




MEMORIA

2024



Mutualiaren 2024ko urteko memoria

Txosten hau egiteko, Mutualiako arlo guztiek hartu dute parte, Komunikazio Zuzendaritzak koordinatuta, eta produkzio-baliabideak eta berezko baliabideak erabili dira bakarrik.

Memoria hau online bistaratzeko diseinatu da bereziki, eta, ingurumen-arrazoiak direla eta, ez dugu inprimatzea gomendatzen. Era berean, txosten hau eskuragarri dago gure webgunean, PDF formatuan, irisgarritasun-irizpideetara egokituta.



Harremanetarako:

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.ko mutua

Egoitza operatiboa:

Henao kalea, 26

48009 Bilbo

94 4252500

www.mutualia.eus

Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan helbide elektroniko honen bidez: dircom@mutualia.es

Memoria hau www.mutualia.eus webgunean dago eskuragarri, Espainiako Red Munduko Ituna ren webgunean ere badago. <http://www.pactomundial.org/informes-de-progreso/>.

Memoria honen hainbat eremutatik zuzenean sar daiteke GRI taulara, kasu bakoitzari dagozkion adierazleak ikusteko. Erreferentzia horiek orrialdeen behealdean daude, ezkerrean, eta saguaren gezia sakatuz nabigatzen da. Hasierako orrira itzul gaitezke, GRI taulan agertzen den orrialdearen zenbakia sakatuta.

Aurkibidea

01	Adierazpen korporatiboa	4
	Presidentearen gutuna	5
	Zuzendari kudeatzailearen gutuna	7
	Nazio Batuen gutuna	9
	Memoria honetaz eta berorren irismenaz	10
	Memoria prestatzeko printzipioak	11
02	Gobernuko eta Partaidetzako organoak	12
	Organigrama orokorra	13
	Batzar Orokorra	14
	Zuzendaritza Batzordea	15
	Batzorde betearazlea	15
	Beste batzorde batzuk	16
	Zuzendari kudeatzailea	16
	Kontrol eta Jarraipen Batzordea	17
	Prestazio Berezien Batzordea	17
	Zuzendaritza Batzordea	18
	Kudeaketaren Jarraipena	18
03	Nor gara?	19
	Erakundearen profila	20
	Kultura korporatiboa	21
	Non gaude?	22
	Rama Korporazioa	23
	Kudeaketa-ereduan mugarri izan diren zenbait gertaera	24
	Ziurtagiriak, sariak eta aintzatespenak	25
	Nazio Batuen Itunarekin bat egitea	26
	Interes-taldeen konpromisoa eta parte-hartzea	27
	Materialtasunaren azterketa	29
	2021-25 Plan Estrategikoa	30
04	Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa	31
	Arriskuen kudeaketa integrala	32
	Kode Etikoa, Arrisku Penalen Prebenziorako Plana eta Politika	34
	Informazioaren segurtasuna eta datuen babesa	35
	Finantza-inbertsioen jokabide-kodea	37
	Kudeaketa ekonomikoaren adierazleak	38
	Baliabideen kudeaketa	41
	Ingurumen-kudeaketa	43
	Mutualiako langileek gizartearekin duten inplikazioa	46
	Gizarteari itzultitako balioaren monetizazioa	47
	Interes-taldeekiko komunikazioa	49
05	Pertsonen konpromisoa indartzea	50
	Pertsonak	51
	Barneko komunikazioa	58
06	Berrikuntza zerbitzuetan	59
	Babestutako pertsonak	60
	Osasun-jarduera	61
	Osasun-kudeaketa	64
	Osasun-administrazioa	66
	Prestazio ekonomikoak	68
	Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak	70
	Prebentzioko jarduerak	72
	Bezera bakoitzaren tipologiara egokitutako zerbitzuak	74
	Eraldaketa digitala	75
07	Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea	77
	Prestazio bereziak	78
	Eraikinak eta instalazioak	80
	Asistentziaren kalitatea eta pazienteen segurtasuna	81
	Bezeroen Defentsa Erakundea	83
	Gogobetetze-indizeak	84
08	GRI – Global Reporting Initiative	85
09	Urteko kontuak eta finantza-analisia	98
10	Eranskinak	115
	2024ko legegintza-berritasunak eta arau-esparrua	116
	Glosarioa	123

Adierazpen korporatiboa





Presidentearen gutuna

“Gure helburua da pertsonen osasunerako, segurtasunerako eta ongizaterako eskubidea bermatzea Gizarte Segurantzarekin lankidetzan. Mutualiako langileen inplikazioari, hornitzaile eta aliatuen elkarlanari eta Gizarte Segurantzaren beraren lankidetzari esker, gure helburuak bikain betetzen ditugula ikusiko du gizarteak.”

Mutualista agurgarriok:

2023ko ekitaldiko Memorian, kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunagatiko prestazioen bilakaerari buruzko pronostiko bat egitera ausartu nintzen, eta pronostiko ezkor hura bete egin da. Badirudi prestazio horien gorakadak ez duela mugarik, eta mutuentzat eta Gizarte Segurantzarentzat arazo izaten jarraitzen du. Mutuentzat neurri txikiagoan, defizitaren zati bat finantzaketa bidez ordaintzea ziurtatu denetik. Hala ere, esan beharra daukat finantzaketaren igoerak kontingentzia profesionalen kudeaketaren emaitza positiboa konpentsatzeko gai ez den defizita baino ez duela estaltzen. Hau da, ez du erreserben zuzkidura estaltzen, ez kontingentzia arruntena, ez kontingentzia profesionalena. Eta bi kontingentzietako kotizazioengatiko diru-sarrerak urtero handitzen direnez, eta bi erreserba horien gutxieneko zenbatekoak sarrera horien ehuneko gisa kalkulatu direnez, azkenean zero den soberakinak ez du bide ematen erreserba horiek zuzkitzeko, eta, ondorioz, estalitako ehunekoa etengabe gutxitu eta mutuen kaudimena arriskuan jartzen da. Emaitza orokorra negatiboa izango ez dela ziurtatzea ez da nahikoa mutuen kaudimena bermatzeko, kaudimena, orain arte bezala, erreserbek estaltzen duten diru-sarreraren ehuneko gisa neurtu behar delako. Mutuak urtero aukerako finantzaketa eskuzabal bat eskatzera behartuz gero, Gizarte Segurantzaren kudeaketan lankidetzaredua desagertzea sustatzen da.

Gainera, azken urteotan kudeaketa-ahalmena gutxitu da, bai kudeaketa ekonomikoan, bai antolamenduaren kudeaketan. Horiek horrela, aitortu behar dut, atsekabez, etorkizun hurbila ez dela itxaropentsua.

Era berean, 2023ko Memorian esan nuen ez nuela sinesten GSINek sustatzen dituen osasun-zerbitzu publikoekiko lankidetzahitzarmenek, enplegurako eta negoziazio kolektiborako V. akordioan oinarritutako horiek, asko lagunduko zutenik egoera hori hobetzen, eta eragin txikia izango zutela mutua guztietan, eta batere eraginik ez sinatzen ez zituzten autonomia-erkidegoetan. Igaro dira 2024. urte osoa eta 2025eko lau hilabete, eta autonomia-erkidego bakarra dago akordio bat sinatzeko bidean.

1. Adierazpen korporatiboa

Ez nuke alarmistegia edo ezkorregia izan nahi, baina esan behar dut, halaber, Euskadi beti langile bakoitzeko baja-egun gehien dituzten autonomia-erkidegoen artean egotea eragin dezaketen arrazoiak hor daudela oraindik: Euskadiko maila ekonomiko orokorra, ongizate-egoera hobea, langileen adina, enpresen tamaina, industria- eta zerbitzu-sektoreak gainerakoen aldean duen pisua, sektore publikoak pribatuaren aldean duen pisua, aldi baterako ezintasuna izanez gero soldataren % 100 jasotzea ziurtatzen duten hitzarmenak dituzten enpresetan lan egiten duten pertsonen ehunekoa, etab. Hala ere, aurten esan dezaket itxaropen sendoa dudala arrazoi horien gainean Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua, egiten ari den ikerketa batean. Denbora beharko du, baina azterketa hori erabaki eraginkorrak hartzeko oinarria izan liteke.

Eta azpimarratu nahi dut sektorearen beste kezka handi bat osasun-langile falta dela. Berriz diot: mutuetako osasun-langileen soldatak osasun-zerbitzu publikoenekin berdintzearen aldeko

apustu irmoa egiteak konponduko luke arazo hori neurri handi batean —betiere kontuan harturik autonomia-erkidego bakoitzeko soldata-maila desberdinak—.

Eta, hala ere, egoera beltz horretan, nire burua zoriontzeko moduan nago urtez urte kudeaketa-planak betetzen dituen mutua baten buru izateagatik. 2021ean abiarazi genuen Plan Estrategikoaren barruan daude bilduta, zeina 2025ean amaituko baita. Aurreko urteetan bezala, gure zerbitzuak eskaintzen dizkiegun enpresen eta langileen gogobetetzea bikainetik oso hurbil dago; zenbaitetan bikaina ere bada.

Dagoeneko hilabete gutxi falta dira 2021-2025 aldiko plan estrategikoa amaitzeko, eta oraindik erronka eta proiektu garrantzitsuak daude egiteko; iaz esan nuen bezala, horiek osatzeko asmo sendoa dugu.

Mutualiak 125 urte bete ditu martxoan. Harro esan dezaket La Previsora, Mutualia sortu zuen bat-egitearen parte izan zen mutuetako bat, estatuko lehen mutua

izan zela; eta, ziur asko, hilabete geroago sortu zen Seguros Mutuos de Vizcaya bigarrena izango zen. Horrek balioa ematen die euskal enpresariei, industria-iraultzak ekarri zuen gizarte-eraldaketak eragindako ahultasun-egoerei arduraz eta azkar erantzuten jakin baitzuten.

Gure helburua da pertsonen osasunerako, segurtasunerako eta ongizaterako eskubidea bermatzea Gizarte Segurantzarekin lankidetzan. Mutualiako langileen inplikazioari, hornitzaile eta aliatuen elkarlanari eta Gizarte Segurantzaren beraren lankidetzari esker, gure helburuak bikain betetzen ditugula ikusiko du gizarteak.

Urtza Errazti Olartecoechea
Presidentea





Zuzendari kudeatzailearen gutuna

“Mutualiak, herriko enpresa bat izan nahi duenez, bere gobernantza hobetzea bultzatzen du. 2024an, Eusko Jaurlaritzak, Euskaliten bidez, Gizartea elementuaren kudeaketa aintzatetsi zuen Kudeaketa Aurreratuko Ereduan.”

Mutualista agurgarriok:

Mutualiak bere interes-taldeei kontuak emateko duen legezko betebeharraren eta betebeharraren ondorio gisa egin da 2024ko ekitaldiko memoria hau. Beraz, ez gatoz Mutualiari komeni zaizkion lorpen eta datuen berri ematera: gure interes-taldeen gure jardunari buruzko informazioa lortzeko duten interes legitimoari erantzun nahi diogu. Interes-eremuak zein diren eta talde bakoitzarentzat zer garrantzi duten jakiteko, materialtasun-inkesta bat egin dugu, eta hura ere memorian jasota geratu da.

Lerro gutxi hauetan, egindako lanaren parte bat nabarmendu nahiko nuke, osotasuna ulertzeko balio izan baitezake. Hala, 2021-2025 aldirako plan estrategikoan egin ditugun aurrerapenak azalduko ditut; izan ere, gure interes-taldeen modu koherentean parte hartu zuten plan hori diseinatzeko.

Mutualiak, herriko enpresa bat izan nahi duenez, bere gobernantza hobetzea bultzatzen du. 2024an, Eusko Jaurlaritzak, Euskaliten bidez, “Gizartea” elementuaren kudeaketa aintzatetsi zuen Kudeaketa Aurreratuko Ereduan. Lehenago aintzatetsita zeuden “Estrategia”, “Pertsonak” eta “Bezeroak” elementuei, “Gizartea” gehitu zaie orain. Beraz, kudeaketa aurreratuaren ondorioz Euskadin erreferentziatzeko erakundea izatearen helburua (planean jasotzen da) gertu-gertu daukagu, “Berrikuntza” elementua baino ez baitaigu geratzen.

Lan egin dugu, halaber, alderdi hauek hobetzen ere: arriskuen kudeaketa, gobernantza etikoaren alorreko politika eta prozeduren berrikuspena, sexu-jazarpena, sexu-arrazoiengatik diskriminazioa, sexu-indarkeria eta LGBTI pertsonen aurkako indarkeria prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko prozeduren berrikuspena, erakundeko erantzukizun-maila guztietan betetze-mailaren kultura indartzeko aldizkako prestakuntza, etab.

Mutualiak erreferentzia izan nahi du kudeaketa jasangarrian ere. Horregatik, GJHen aldeko Euskal Aliantzarekin bat egin du 2024an; 55 erakundek sinatu dute aliantza hori, Agenda 2030 lankidetzan garatzen laguntzeko.

Memoria honetako atal batean,

1. Adierazpen korporatiboa

Mutualiak emandako balio sozialaren neurketa espezifikoa bat jasotzen da; beste atal batzuetan, enpresa elkartuen eta haietako langileen gogobetetze-mailaren balorazioa ikus daiteke. Datuak adierazgarriak dira eta erakusten dute ingurunean sortzen duen balioagatik aintzatesten den erakunde bat garela.

Langileek erakundea lanerako toki bikaintzat jotzea asmo handiko helburua da, Mutualiako pertsonetik dugun konpromisoaren neurri gisa. 2010etik, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateetako langileen kudeaketa Gizarte Segurantzako Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak zuzendu eta babestu du. Horren ondorioz, kudeatzeko ahalmena nabarmen murriztu zaigu, eta, batez ere, langileei gehien interesatzen zaizkien alderdietan. Horregatik, hain zuzen, gogoz dihardugu langileen gogobetetze-maila hobetzen, gutxiago bada ere, balioesten diren beste alderdi horietan. Hala, 2024an, kontratazio finkoa bultzatzen jarraitu dugu, bai eta langileek kudeaketan, kontziliazioan eta trebakuntzan parte har dezaten sustatzen, gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murrizteko lan egiten eta gure langileen segurtasuna eta osasuna zaintzen ere. Memoriako

atal egokian ikus daitezke lan horren emaitzak.

Gorago adierazi dudanez, urteak daramatzagu berrikuntza gure kudeaketan sartzen, baina elementu hori izan da 2024an gure arretagune nagusia. Berrikuntzaren adibide ugari jaso dira memorian, hala nola onarpen digitala, absentziak kudeatzeko gida eta poliza digitala. Baina hona zein den alderdi garrantzitsua: berrikuntza kudeatzeko sistema birdiseinatu dugu “berrikuntzako agentearen” figura sortuz, ideia berritzaileen kudeaketa aldatuz, BOGA proiektuko taldeetan parte hartuz, etab. Sinetsita nago aldaketa garrantzitsu horretan oinarrituta Mutualia erreferentzia izango dela berrikuntzaren kudeaketaren esparruan ere 2025etik aurrera.

Mutualiaren xedea da osasunerako, segurtasunerako eta ongizaterako eskubidea bermatzea pertsonen, eta, horretarako, zainketaren humanizazioan, gertutasunean, dibertsitatearekiko arretan eta beste balio batzuetan oinarritzen da. 2024an, laguntza sozialeko 600 eskaera baino gehiago artatu dira; Gizarte Segurantzaren prestazioen katalogoa baino zabalagoa da, eta gure Prestazio Berezien

Batzordeak artatzen ditu. Gure xedea betetzeko egin dugun ahaleginaren erakusgarri Memoriako ataletan jasotzen diren adierazle hauek eta beste batzuk ditugu: 8,8 eguneko itxaronaldia kirurgian, % 0ko tasa ospitaleko osasun-arretari lotutako infekzioetan, 9,3 kexa baino ez 10.000 zerbitzuko... Hori guztia Mutualiako langileek lortzen dute, eta eskerrak ematen dizkiet eguneroko lanean jarri duten eta jartzen duten ahaleginagatik, inplikazioagatik eta profesionaltasunagatik. Gertuko lantalde eraginkorra da, hobetzeko gogoz lan egiten duena beti; haiei esker, Mutualiak abangoardian jartzea lortu du.

Ignacio Lekunberri Hormaetxea
Zuzendari kudeatzailea



Nazio Batuen gutuna



Guterres jauna
Nazio Batuen Erakundeko
idazkari nagusia

Guterres jaun preziatua:

2005ean Nazio Batuen Munduko Itunean sartu ginenetik, urtero berritu dugu gure babesa, ziur baikaude ituneko printzipioak geure egitea funtsezkoa dela gure erakundea kudeatzeko.

Mutualiak urtero hartzen du Munduko Ituneko printzipioak betetzeko konpromisoa, gure eragiketa eta jarduera guztietan ezarritik, eta gure interes-talde guztiak engaiatuz. Enpresa-jardunbideak arduratsuak izan daitezzen bermatzeko, printzipio horiek gure estrategian eta harremanetan txertatzen dituzten talde espezializatuak ditugu:

- Interes-taldeen itzaropenak eta premiak kontuan hartzea.
- Giza eskubideen alde egiteko konpromisoa hartzea.
- Lan-arauak errespetatzea.
- Ingurumena babestea.
- Ustelkeriaren kontra egitea.

Enpresa-kultura etiko, jasangarri eta inklusiboa sustatzen dugu, eta jokabide etikoaren kode bat dugu, erakundeak eta hornitzaileek bete behar dutena.

Gure web-orrian (www.mutualia.es) jasangarritasun-txostena argitaratzen dugu. Han, 10 printzipioen eta 17 GJHen inguruko gure jarduera eta aurrerapenen berri ematen dugu, eta, hala, gure interes-taldeek identifikatutako alderdirik garrantzitsuenei erantzuten diegu.

Beste behin ere, berresten dugu Munduko Ituna babesten dugula, eta eusten diogula mundu bidezkoagoa eta jasangarriagoa eraikitzeke interesa duten beste alderdi batzuekin lan egiteko konpromisoari.

Adeitasunez,

Ignacio Lekunberri Hormaetxea
Zuzendari kudeatzailea

Memoria honetaz eta berorren irismenaz

Mutualiak ezagutzero ematen du jasangarritasunarekin duen konpromisoa, urtero jasotzen baititu memorietan GRI estandarren gidaren (2021) jarraibideei, GJHei eta Munduko Ituneko printzipioei loturiko zein ekintza gauzatu dituen, “GRI estandarrekin bat” aukera lortzeko asmoz.

Aurten, ez da txostenaren kanpo-egiaztapenik egin, bi urtean behin egiten baita.

Memoria honetan, printzipio etikoetan eta Gobernu Onaren printzipioetan oinarrituta 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte egindako jarduera guztiak jaso dira, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-

arlokoak. Memoria egiteko, erakundeko arlo eta talde guztien laguntza izan dugu.

Memoriaren helburua da Mutualiak bere interes-taldeekiko duen konpromisoa betetzea, eta talde horietako bakoitzak identifikatutako gai garrantzitsuei buruzko kontsulta argi eta eraginkorra eskaintzen du.

2024ko Memoria Mutualiako Batzar Orokorrarekin batera argitaratu da, 2025eko uztailaren 18an. Batzarra Erronka Garbia eta Ekitaldi Jasangarria (IHOBE) ziurtagiriaren arabera diseinatu zen, eta Gasteizen egin zen, Mutualiaren Ospitaleko ekitaldi-aretoan.

Memoria argitaratzeaz eta entregatzeaz gain, honako hauek aurkeztu ziren: ekitaldiko finantza-informazioa, kanpo-auditoretzako txostenak eta Gizarte Monetizazioaren txostena; azken horretan, Mutualiak sortutako balio sozial osoaren balorazio ekonomikoa egin zen.

Memoria honetan jasotako alderdi materialak identifikatzeko, interes-talde guztiek parte hartu dute, nork bere premia eta espektatibak zehazten, eta, horiei gehitu dizkiegu erakundeak bere jardueren eraginari eta inpaktuari buruz dakizkien datuak.

Memoria prestatzeko printzipioak

Oreka

Memorian, Mutualliak erakundearen espektatibak bete ez dituzten jardueren alderdi positibo eta negatiboen berri ematen du, interes-taldeek zentzuzko balorazioa egin ahal izan dezaten.

Konparagarritasuna

Interes-taldeek Mutualliak denboran zehar izan dituen aldaketak azter ditzakete; izan ere, txosteneko datu kuantitatibo guztiak aurreko urtekoekin alderatzen dira, eta, batzuetan, baita aurrekoekin ere. Hala, erakundeak bere jardunean izan dituen aldaketak aztertu eta alderatu daitezke.



Argitasuna, zehaztasuna eta zorroztasuna

Informazioa sistematikoki azaltzen da. Irakurtzea errazten duen aurkibide orokor batez gainera, GRI adierazleen indize orokor bat ere badu, aurkezten diren datu kualitatibo zein kuantitatiboak erraz eskuratu eta kokatu ahal izateko. Ahal den neurrian, modu ulergarrian eta interes-talde guztietara egokiturik ematen dira termino teknikoak. Urteko memoria honetan bildutako informazioa eta datuak Mutualliak 2024ko ekitaldian egindako jardueri buruzkoak dira, prozesuak kudeatzeko erabiltzen diren informazio-sistemetatik (AS/400, SAP R/3, PRISMA, EPSILON, SICOMAT, COGNOS, MIDENET, etab.) eta arlo bakoitzerako kalkulaturako jarduera-adierazleetatik lortuak. Memoria honek AENOR etxearen kanpo-egiaztapena jaso du.

Jasangarritasun-testuingurua

Erakundeak ahal duen neurrian laguntzen du ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapenean, tokian-tokian, autonomia-erkidegoan eta estatu osoan, betiere modu interkonektatuan; horretarako, Garapen Jasangarriko Batzorde bat dauka eratuta.

Puntualtasuna

Txosten hau urtero egiten da, erakundearen ezaugarriak kontuan hartuta eta Mutualliak garatzen dituen jarduera guztiak bilduta. Hori horrela, erakundearen ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jardunari buruzko informazio bategina jasotzen du.


Egiaztagarritasuna

Interesdunek dokumentazio eta informazio guztia egiaztatu eta berretsi dezakete.

Gobernuko eta Partaidetzako organoak



Organigrama orokorra



Batzar Orokorra

Gobernu-organo gorena da.

Batzar Orokorra mutuen gobernu-organo gorena da. Honako hauek osatzen dute: enpresa elkartuetako ordezkariak, atxikitako langileen ordezkariak batek (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arauzko garapenak

zehaztutako moduan) eta mutuako langileen ordezkariak.

Urtean ohiko bilera bat egiten du, aurrekontuen aurreproiektua eta urteko kontuak onesteko, eta baita ezohiko bilerak ere, dela Zuzendaritza Batzordeak deitu duelako, dela enpresa elkartuen % 10ak Zuzendaritza Batzordeari hala eskatu diolako; enpresa horiek, betiere, beren betebeharrak sozialak egunean eduki behar

dituzte.

Presidentea, presidenteordea eta idazkaria Zuzendaritza Batzordean kargu horiek dituzten kideak izaten dira.

Enpresa elkartu bakoitzak boto bat emateko eskubidea du, eta ordezkariak eskuordetza ere beste enpresa kidetu bati dagokio. Berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoak ebatziko du.



Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzordea kide anitzeko organo bat da, eta zeregin hauek dagozkio: mutua zuzenean gobernatzea eta ordezkatzeko, eta haren interesak babestea, behar adina zuzendaritza-, administrazio-, xedatze- eta betearazpen-ahalmen erabiliz.

Zuzendaritza Batzordeko kideak honako hauek dira:

- Enpresa elkartuen 10-20 ordezkari. Horietatik, % 30 langile gehien dituzten enpresak izango dira, araudiaren arabera ezartzen diren tarteei jarraikiz.
- Atxikitako norbere konturako langile bat.
- Batzar Orokorreko kide den entitateko langileen ordezkaria.

Zuzendaritza Batzordeko kideak izendatzea Batzar Orokorrari dagokio, eta ministerio eskudunak berretsi beharko ditu. Erakundeko langilearen ordezkaritza, berriz, Enpresa Batzordeko kideen artean aukeratuko da. Zuzendaritza Batzordeak gutxienez hiru hilean behin egingo ditu ohiko bilerak, eta ezohikoak behar beste alditan, dela presidenteak deia egin duelako, dela kideen herenak hala eskatu duelako. Bilerak sozietate-egoitzan edo Zuzendaritza Batzordeak proposatutako beste edozein tokitan egiten dira.

Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonak ez dute ordainsaririk jasotzen, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Konpentsazioak jasotzea badagokie, otsailaren 4ko TIN/246/2010 Aginduan zehaztutakoaren arabera dira.

2021eko uztailaren 6an, Zuzendaritza Batzordeak Zuzendaritza Batzordearen Antolakuntza eta Funtzionamenduaren Barne Araudia onartu zuen, eta urte bereko uztailaren 16an berretsi zuen Mutualiako Batzar Orokorrak, ohiko bileran. 2023ko uztailaren 14an berrikusi zen, estatutuetako aldaketak eta Gobernu Korporatibo Onaren Politika Orokorretik eratorritakoak sartzeko.

Zuzendaritza Batzarraren eraketa (2024-12-31)

Kargua	Urte ¹	Izena	Erakundea
Presidentea	2007	Urtza Errazti y Olartecoechea	Voestalpine Railway Systems Jez, S.L.
1.presidenteordea	2020	Nerea Garmendia Goñi	Plastigaur, S. A.
2.presidenteordea	2019	Marta Barredo Unamunzaga	Herdit, S. L.
3.presidenteordea	2022	Jone Nolte Uspadicha	Asociación Empresarial ASLE
Idazkaria	2021	Miren Garbiñe Urrutikoetxea Zabala	Fundación del Museo Guggenheim Bilbao
Idazkariordea	2023	Alexia Delclaux Gaytan De Ayala	Prodol Meditec, S.A
Batzordekidea	2024	Jon Ander Lapatxa Benito	Amurrio Ferrocarriles y equipos S. A.
Batzordekidea	2007	Javier Sánchez Pérez	ArcelorMittal Olaberria Bergara, S.L.U.
Batzordekidea	2010	Ignacio Toledano Yániz	Calcinor Servicios, S.A.
Batzordekidea	2008	Pendiente nombramiento	Eusko Jaurilaritza-Gobierno Vasco
Batzordekidea	2007	Naiara Erauso Sanz	Krafft, S.L.
Batzordekidea	2012	Diego Ricondo Chaves	Kutxabank, S.A.
Batzordekidea	2016	José Ignacio Zudaire Arana	Petróleos del Norte, S.A.
Batzordekidea	2007	Ricardo Eusebio Echave Subijana	Sociedad Alavesa de Inversiones, S.A.
Batzordekidea	2007	José Maria Echarri Campo	Heidelberg Materials Hispania Cementos S.A.
Batzordekidea	2016	Gorka Zubillaga Bereciartua	Supermercados Ercoreca S.L.
Batzordekidea	2022	Ekhi Anko Etxeberria Monbiela	Tubos Reunidos, S.A.
Batzordekidea	2007	Fernando Salamero Laorden	Vinos Herederos Marques de Riscal, S.A.
Batzordekidea	2024	Isabel Iturbe Mach	Representante personas trabajadoras por cuenta propia adheridas
Batzordekidea	2023	Carolina Pérez Toledo	Fortek Servicios De Formación S.L.U.
Batzordekidea	2024	Izaskun Elorduy Vadillo	Representante de las personas trabajadoras de Mutualia

[1] lanean hasitako urtea

Batzorde betearazlea

Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Exekutiboa eratzen du bere kide batzuekin, mutua zuzentzeko, administratzeko eta ordezkatzeko zereginak lehenbailehen betetzeko.

Gehienez hamar kidek osatzen dute, eta, gutxi gorabehera, hilean behin egiten du ohiko bilera.

2024ko abenduaren 31n, presidenteak, hiru presidenteordeek eta idazkariak osatzen zuten Batzorde Exekutiboa.

Beste batzorde batzuk

Zuzendaritza Batzordeak eratu ahal izango ditu.

Zuzendaritza Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen batzordeak eratu ahal izango ditu bere kideekin, mutuaren kudeaketaren alderdi garrantzitsu eta teknikoak kontrolatzeko, egiaztatzeko, eta haien jarraipena egiteko. Gai hauen ingurukoak dira batzorde nagusiak: araudia betetzea eta arriskuak, inbertsioak, barne- eta kanpo-auditoretzak, Kontu Auzitegiaren fiskalizazioa eta zuzendari kudeatzaileen eta goi-kargudunen ordainsarien ezarpena.

Batzorde horiek hiruna kide izango dituzte, gehienez, eta presidentea izango da

horietako bat. Presidenteak behar adina bilera deituko ditu, berak edo kideen gehiengoak hala eskatuz gero, eta egokiak iruditzen zaizkion eginkizun eta ahalmenak emango dizkio batzordeari, dauzkan eduki funtzionalak eta helburuak kontuan hartuta.

Aurreko orrialdeko grafikoan ikusten da batzordeak organigraman non kokatuta dauden. Batzorde Exekutiboaz gain, honako batzorde hauek ere badaude:

Ordainsarien Batzordea

Kide anitzeko organoa da, funtzio exekutiborik gabea. Informatzeko, aholku emateko eta proposamenak egiteko ahalmena du, gai hauetan: zuzendari kudeatzailearen, funtzio exekutiboak dituzten pertsonen eta Barne Auditoretzako zuzendariaren ordainsariak eta urteko helburuak.

Auditoretza Batzordea

Auditoretza Batzordea kide anitzeko organo bat da, funtzio exekutiborik gabea. Kontsultak jasotzen ditu eta informazioa ematen du, dagokion jarduera-eremuan, Mutualiak arriskuak kontrolatzeko daukan hirugarren defentsa-lerroan.

Batzorde Etikoa

Funtzio exekutiborik ez duen organo bat da, eta haren zeregin nagusia da, batetik, Mutualiak gizarte-erantzukizun korporatiboan eta ospe korporatiboan dituen estrategiak bultzatzea, eta, bestetik, Gobernu Korporatiboko Sistema betetzen dela gainbegiratzea. Batzorde horren mende dago Batzorde Betearazlea, zeina Gobernu Korporatiboko Sistemak eraginkorki funtzionatzen duela zaintzeaz arduratzen baita.

Zuzendari kudeatzailea



Mutuالياren zuzendaritza exekutiboaz arduratzen da

Mutuالياren zuzendaritza exekutiboa gauzatzen duen organoa da, erakundearen helburu orokorrak garatzen dituen eta ohiko zuzendaritzaz arduratzen dena. Zuzendaritza Batzordeak eta presidenteak emandako irizpide eta jarraibideen mende dago, eta mutua Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen erakunde gisa kudeatzeko ezarritako araudia aplikatzen du.

Zuzendari kudeatzailearen ahalmen, muga, debeku eta erantzukizunak erakundearen estatutuetan daude jasota. Izendapena Zuzendaritza Batzordeari dagokio, eta izendapen hori eta goi-zuzendaritzako bere lan-kontratua eraginkorrak izan daitezen, ministerio eskudunak berretsi behar ditu.

Kontrol eta Jarraipen Batzordea

Gizarte-eragileek parte hartzeko organoa da, eta, besteak beste, erakundeak lankidetzak-modalitateetan egiten duen kudeaketa ezagutzea eta horren berri ematea dagokio.

Hamar kidek osatzen dute, mutuaren kuoten arabera. Kideen erdiak babestutako langileen ordezkariak dira, eta erakundeak jarduten duen lurraldean ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalen bidez aukeratzen dira; beste erdiak, berriz, enpresa elkartuen ordezkariak dira, eta ordezkaritza handiena duten enpresa-erakunde bidez aukeratzen dira. 8/2015 Legegintzako Errege Dekretu berrian, langile autonomoen elkarte profesionalen ordezkaritza dago jasoa.

Kontrol eta Jarraipen Batzordearen eraketa (2024-12-31)

Kagua	Izena	Erakundea
Enpresa elkartuen ordezkaritza:		
Presidentea	Urtza Errazti y Olartecoechea	Voestalpine Railway Systems Jez, S.L
Batzordekidea	Gonzalo Salcedo Bilbao	CEBEK
Batzordekidea	Montserrat Ruiz Mitjans	CEBEK
Batzordekidea	María José Irastorza Estensoro	ADEGI
Batzordekidea	Fernando Raposo Banda	SEA
Sindikatuaren ordezkaritza:		
Batzordekidea	Alfonso Ríos Velada	CCOO
Batzordekidea	Luis Mouliá Mayor	CCOO
Batzordekidea	Leire Heredia Bilbao	ELA
Batzordekidea	Juan Carlos Cárdenas Bonelli	UGT
Batzordekidea	Ibon Zubiela Martín	LAB
Zuzendari kudeatzailea:		
Idazkaria	Ignacio Lekunberri Hormaetxea	Mutualia

Prestazio Berezien Batzordea

Organo honek Gizarte Laguntzako Erreserbatik eratorritako onurak emateko eskumena du. Irabazi horiek ematen dizkiete, zehazki, babestutako edo atxikitako langileei eta haien eskubidedunei, baldin eta kontingentzia profesionalak estalita badituzte, laneko istripu bat edo gaixotasun profesional bat izan badute eta egoera berezian edo premia bereziko egoeran badaude.

Onurak hautazkoak eta Gizarte Segurantzaren babes-ekintzan jasotakoetatik apartekoak izango dira.

Batzordea hamar kidek osatzen dute: enpresa elkartuen eta langile babestuen bosna ordezkariak.

Presidente-, presidenteorde- eta idazkari-karguak bi urterako dira, eta, kargu horiek betetzeko, enpresen eta babestutako langileen ordezkariak aukeratzen dira, txandaka.

8/2015 Legegintzako Errege Dekretu berrian, langile autonomo elkartuen ordezkaritza bat ere jasotzen da.

Prestazio Berezien Batzordearen eraketa (2024-12-31)

Kagua	Izena	Erakundea
Presidentea	Álvaro Plaza Reino	ArcelorMittal Olaberria Bergara, S.L.U.
Presidenteordea	Juan Carlos Cárdenas Bonelli	UGT
Idazkaria	Ainara Agirrebengoa Pereira	Gestamp Bizkaia, S.A.
Batzordekidea	Elena Izquierdo Cuadrado	Zayer, S. A.
Batzordekidea	José Hernández Duñabeitia	ASLE
Batzordekidea	Leire Heredia Bilbao	ELA
Batzordekidea	Andoni Larralde Etxarte	ELA
Batzordekidea	Jose María Echarri Campo	Heidelberg Materials Hispania Cements S.A.
Batzordekidea	Alfonso Rios Velada	CCOO
Batzordekidea	Jose Javier Arriola Ubiernag	LAB

2. Gobernuko eta Partaidetzako organoak

Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Komitea mutuaren zuzendaritza exekutiboko kide anitzeko organoa da. Erakundearen helburu orokor eta operatiboak garatzen ditu, eta erakundearen ohiko zuzendaritzaz arduratzen da.

Osatzen dute, batetik, zuzendari kudeatzaileak, eta bestetik, goi-zuzendaritzako kontratuak eta zeregin exekutiboak dituzten eta haren mende dauden gainerako pertsonak, haren muga, debeku eta erantzukizun bereberkin.


Zuzendaritza Batzordearen organigrama



Kudeaketaren Jarraipena

Kudeaketa operatiboko organo bat da, eta Zuzendaritza Komiteko kideek eta arloetako zuzendariak osatzen dute. Hilero biltzen da Mutualiaren jarraipen estrategikoa egiteko.

Kudeaketaren jarraipena



Nor gara?



3. Nor gara?

Erakundearen profila

Mutualiak lan-istripuen ondoko osasun-laguntza ematen du, laneko bajeen prestazio ekonomikoak eta Gizarte Segurantzak lankidetzaren esparruan eskatzen dizkion prestazioak kudeatzen ditu, eta laneko arriskuen prebentzioa zabaltzen du.

%44

AEKO LANGILEEN % 44K
MUTUALIAREN BABESA
DUTE

Mutualia, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2. mutua, eredu da Euskadin, eta langileen % 44ri baino gehiagori ematen dio estaldura.

Mutualia irabazi-asmorik gabeko enpresa-elkarte bat da, eta erantzukizun mankomunatua du. Gizarte Segurantzarekin batera lan egiten du, enpresa, langile eta gainerako bezeroentzako zerbitzu hauek kudeatzen: osasun-zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta prebentzioaren zabalpena.

Mutualia 2005. urtean sortu zen, Mutua Vizcaya Industrialek eta Pakeak bat egin zutenean. 2007an La Previsora gehitu zitzaion, istripuen mutuarik zaharrena, zeina 1900eko martxoaren 25ean eratu

- baitzen.
- Mutualiaren jarduera-eremua estatu osoa da, eta jarduera-printzipio hauek ditu: arreta pertsonalizatua, berehalakotasuna, laguntza atsegina, osasun-zentroen kalitatea eta profesionalen hurbiltasuna enpresa elkartu eta aholkularitza laguntzaile guztientzat.
- Mutualiaren xedea da Gizarte Segurantzarekin lankidetzak-jarduera hauek gauzatzea:
- Gizarte Segurantzako laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen kontingentziak babesten dituzten prestazio ekonomikoak eta osasun-laguntza kudeatzea, errehabilitazioa barne, bai eta kontingentzia horiekin lotutako prebentzio-jarduerak ere.
 - Kontingentzia arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatik prestazio ekonomikoa kudeatzea.
 - Haurdunaldiko eta edoskitze naturalaren garaiko arriskuengatik prestazioak kudeatzea.
 - Norberaren konturako langileek jarduera uzteagatik jasotzen dituzten prestazio ekonomikoak kudeatzea, abuztuaren 5eko 32/2010 Legeak, langile autonomoak jarduera utzi ostean babesteko berariazko sistema ezartzen duenak, ezarritako moduan.
 - Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzeko prestazioa kudeatzea.
 - Legez egokitu dakizkikeen Gizarte Segurantzako gainerako jarduerak.



3. Nor gara?

Kultura korporatiboa

Mutualian lan egiten duten pertsonak helburu komun batek bultzatzen ditu: “Pertsonak osasunerako, segurtasunerako eta ongizaterako duten eskubidea bermatzea, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan”.

Balioak



Profesionaltasuna



Gardentasuna



Eraginkortasuna



Taldea



Hurbiltasuna



abangoardismoa

Jomuga

“Mutualiako pertsonen asmo korporatiboa hau da: “Pertsonen osasun-, segurtasun- eta ongizate-eskubidea bermatzea, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan”.


Misioa

“Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen Mutua, enpresen elkarte pribatua da, irabazi-asmorik gabekoa. Beraren xedea osasungintzako zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak kudeatzea da, elkarteko kide diren enpresei eta babestutako pertsonen zuzenduta, Gizarte Segurantzako Sistema egonkorra izan dadin laguntzeko”.

Ikuspegia

“Gure interes-taldeek legitimatutako eta aitortutako mutualitatea izatea, kudeaketa etiko eta berritzailearen bidez gure inguruaren ongizateari ekarpena egiteagatik.”

Kultura korporatiboaren elementuak Mutualian



3. Nor gara?

Non gaude?

Mutualiak Euskal Herrian jarduten du gehien bat, eta han daude erakundearen laguntza-baliabide guztiak, besteak beste, hiru ospitale, lurralde historiko bakoitzean bana.

EAEn egiten du bere jardueraren zati handiena. Han dago, hain zuzen ere, erakundeak estaldura ematen dien biztanleen % 94,54, eta, horregatik, Mutualiaren asistentzia-zentro propio guztiak Euskal Herrian daude. Urteak igaro ahala, zentro-sare zabal bat eratzea lortu du, arreta sanitario eta ekonomikoa behar duten pertsonen berehalako eta hurbileko erantzuna emateko.

Guztira, Mutualiak 18 asistentzia-zentro ditu, horien artean 3 ospitale, lurralde historikoetako hiriburu bakoitzean bana, 13 asistentzia-zentro eta 2 administrazio-zentro.

%94,54

MUTUALIAK BABESTUTAKO LANGILEEN PROBLEMATIKAREN % 94,54 EAEN DAGO

Egoitza Operatiboa
Henao kalea, 26
48009 Bilbao (Bizkaia)
944 25 25 00

Sozietatearen Helbidea
Miraconcha kalea, 7
20007 Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa)
943 42 65 00



- Ospitaleak (3)
- Asistentzia-zentroak (13)
- ▲ Administrazio-zentroak (2)

3. Nor gara?

Rama Korporazioa

2016ko urtarriletik, Rama Korporazioko kide da Mutualia, eta hura osatzen duten gainerako mutuekin sinergiak ditu, enpresei eta langileei zerbitzu hobea emateko.

180

ZENTRO

3.950

LANGILETIK GORAKO
PLANTILLA

264.559

ENPRESA ELKARTURI ESKAINTZEN ZAIE
ZERBITZUA

3.024.310

PERTSONA BABESTU, BESTEREN KONTURAKO
LANGILEAK ETA NORBERE KONTURAKO
LANGILEAK

Rama Korporazioa lankidetzaproiektu komun bat da, eta Mutua Korporazioa zena osatzen zuten mutuek eutsi zioten hasieran. Elkarte hori nortasun juridiko propioarekin gabeko erakunde gisa formalizatu zen, Gizarte Segurantzaren Antolaketako Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko urtarrilaren 13ko Ebazpenaren bidez. Ebazpen haren bidez, "Aliantza estrategikoko akordioa" onartu zen, zeina garai hartan elkarte osatzen zuten zazpi mutuek sinatu baitzuten, egun berean.

Halaber, onartu zen, batetik, RAMA Korporazio izena ematea (gaztelaniaz Red Asistencial de Mutuas Asociadas, Mutua Kidetuen Asistentzia Sarea), eta, bestetik, sarea osatzen duen mutua bakoitzaren irudi komun desberdina erabiltzea. Marka Patenteen eta Marken Erregistroen Espainiako Bulegoan erregistratu zen. Tresna hori oso erabilgarria da mutuek Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten erakunde gisa lege dagozkien baliabide publikoak ahalik eta ondoen eta ahalik eta modu eraginkorrean kudeatzeko. Mutuei dagozkien jarduera-arloetan lankidetzan eta elkarlanean aritzeko esparru egonkor bat da. Jarduera horiek dira, besteak beste: osasun-prestazioak elkarri ematea, kontingentzia arruntengatik aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa kontrolatzea eta haren jarraipena egitea, mutua guztien instalazio eta asistentzia eta administrazio-zentroak erabiltzea, eta kontingentzia profesionalak gutxitzea bideratutako ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egitea, mutuek kudeatzen dituzten baliabide publikoak eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen sustatze aldera.

•••••
Corporaciónrama

3. Nor gara?

Kudeaketa-ereduan mugarri izan diren zenbait gertaera

- UNE 19601 ziurtagiria, compliance penala kudeatzeko sistemarena.
- EFR ziurtagiria, B enpresa proaktiboaren kategorian.
- Q jasangarritasun-ziurtagiria Henaoko eta Ercilla klinikako gure eraikinetarako, kalifikazio gorenarekin: EVOLUTION EXCELLENCE Q JASANGARRIA.
- Erronka Garbia zigilua, 2019ko Batzar Orokorraren antolaketa ingurumenaren aldetik jasangarria izan zelako.

2019

- Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria estrategiaren alorrean; sari hori Eusko Jaurlaritzak ematen du, Euskaliten bitartez.
- Evolution Excellence Plus Q Jasangarria ziurtagiria Mutualiaren Gasteizko Erabakimen Handiko Ospitalerako.
- ISO 45001 ziurtagiria lantokian segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemari.
- Erronka Garbia zigilua, 2020ko Batzar Orokorraren antolaketa ingurumenaren aldetik jasangarria izan zelako.

2020

- Quality Innovation Award (QIA) sariko finalista Euskadiko fasean.
- 5S Digitalen diploma Arriskuen Antolaketa eta Kudeaketa arloari.
- Evolution Excellence Q Jasangarria ziurtagiria Gernikako eta Bergarako zentroetarako.
- Erronka Garbia zigilua, 2021ko Batzar Orokorraren antolaketa ingurumenaren aldetik jasangarria izan zelako.

2021

- 5S “zilarrezko diploma” Pakea klinikarentzat.
- EFR ziurtagiriaren maila igotzea, Btik B+ proaktibora.
- AENOR etxeak ematen duen Segurtasun Eskema Nazionalaren ziurtagiria.
- Erronka Garbia zigilua, 2022ko Mutuaia Sarien eta Batzar Orokorraren antolaketa ingurumenaren aldetik jasangarria izan zelako.

2022

- Kudeaketa Aurreratuaren 2023ko Urrezko A.
- Humans ziurtagiria (A maila), humanizazioari eta asistentziaren kalitateari buruzko irizpideak betetzeagatik.
- Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiria.
- Erronka Garbia zigilua, 2023ko Batzar Orokorraren antolaketa ingurumenaren aldetik jasangarria izan zelako.

2023

- Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria gizartearen alorrean; sari hori Eusko Jaurlaritzak ematen du, Euskaliten bitartez.
- “DESKARBONIZAZIOAREKIN KONPROMETITUTAKO ERAKUNDEA – ECO2 AGREED 2030” zigilu europarra.
- Euskadi Agenda 2030 Saria.
- Erronka Garbia zigilua, 2024ko Batzar Orokorraren eta Aniztasunaren Egunaren antolaketa ingurumenaren aldetik jasangarriak izan zirelako.

2024

3. Nor gara?

Ziurtagiriak, sariak eta aintzatespenak



3. Nor gara?

Nazio Batuen Itunarekin bat egitea

Mutualian, erantzukizunez eta etorkizuna kontuan hartuz lantzen da jasangarritasuna, etengabeko prozesu gisa, betiere. Jasangarritasuna Mutualiaren estrategian integratu da, eremu guztietan inpaktu positiboa eragiteko eta balizko edozein inpaktu negatibo minimizatzeke. Helburuek bat egiten dute Nazio Batuen Mundu Itunarekin, Agenda 2030ekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin.

Kudeaketa etiko, garden eta eraginkor batean oinarritzen da ikuspegia, eta aukera ematen du erantzukizunez jarduteko, arriskuak prebenitzeko eta laneko ongizatea, laneko osasuna eta ekitate soziala bultzatzeko.

Bizkor aldatzen ari den mundu honetan, lanari eragiten ari zaizkio eraldaketa digitala, biztanleriaren zahartzea, klima-aldaketa eta bestelako faktore batzuk.

Hala, epe laburrean, hiru elementu lehenesten dira: irisgarritasuna hobetzeko zerbitzuak digitalizatzea, ingurumen-aztarna murriztea instalazioetako energia-erabilera optimizatuz eta enpresa mutualisten prebentzio-kultura indartzea. Epe ertainean, berriz, aliantza estrategikoak bilatzen dira, berrikuntza sustatzeko, behar bezalako arreta erakunde osoan integratzeko eta berdintasun- eta dibertsitate-politikak ezartzeko.

2024an, aurrerapen nabariak egin dira zenbait alderditan; besteak beste, prozesuen digitalizazioan, dibertsitatean eta inklusioan, arriskuak kudeaketan eta erabiltzaileen gogobetetzean. Hala ere, gehiago aurreratu behar da inpaktuen neurketan eta interes-taldearen partaidetza indartzen.

Testuinguru horretan, Mutualiak erronka hauek ditu, besteak beste, epe laburrerako eta ertainerako.

- ESG-irizpideen sistema bat sendotzea.
- CO2-emisioak murrizten jarraitzea.
- Prebentzio-programak eta laneko osasuna sustatzeko programak zabaltzea.
- Berdintasuna eta inklusioa sustatzea erakundearen maila guztietan.
- Behar bezalako arreta ezartzea erakunde osoan.

Gizarteak gero eta gardentasun eta konpromiso handiagoak eskatzen ditu, eta kudeaketa jasangarri eta inklusiboago baterako bidean aurrera egiteko aukera da hori Mutualiarentzat.



3. Nor gara?

Interes-taldeek konpromisoa eta parte-hartzea

Interes-taldeak erakundearen parte eta elementu garrantzitsu dira. Identifikatu eta definitu egiten dira, ezagutzeko, komunikatzeko, inplikatzeko eta haiekin elkarrekintzan aritzeko, jarduera-eremu guztietan bikaintasuna lortze aldera.

Mutualiak jarduten duen ingurunean eta ikuspegi estrategikoan konfiantza sortzeko, garrantzitsutzat jotzen da jarduerak eragiten dien taldeekiko harremana, gizarte-erantzukizunaren ikuspegitik.

Horretarako, interes-talde guztiak engaiatu behar dira, helburuak modu jasangarrian betetzeko. Inplikazio eta konpromiso hori lortzeko, ezinbestekoa

da konfiantza sortu eta areagotzen duten harremanak eraikitzea, talde horien espektatiba eta premiei erantzuteko eta Mutualiaz duten pertzepzioa hobetzeko.

Harreman horrek aurrera egiten, lehitzeko gaitasuna handitzen eta garapen jasangarria sustatzen laguntzen du.

Mutualia, bere estrategia definitzeko,


besteak beste, interes-taldeetatik jasotako informazioan oinarritzen da. Horretarako, erakundeak hainbat komunikazio-iturri ditu, interes-talde guztiekin sistematikoki eta etengabe elkarrekin aritzeko, eta, era horretan, informazioa modu egituratuan barneratzeko hausnarketa-prozesuan.

Mutualiak beste hainbat informazio-iturri kudeatzen ditu, inguruan (administrazioa/erakundeak, merkatua-bezero potentzialak eta/edo sektorea) gerta daitezkeen aldaketak ulertzeko eta haiei aurrea hartzeko. Hori dela eta, Laneko Istripuen Mutuen Elkartearen (AMAT) Zuzendaritza Batzordeko eta Bikaintasunerako Euskal Fundazioko (EUSKALIT) kide da, eta hainbat enpresa-erakundek (ADEGI, CEBEK, SEA eta CONFEBASK, adibidez) sustatzen dituzten foro eta lantaldeetan parte hartzen du.

Mutualiaren kontabilitateko egoera-orriak, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen erakundea denez, Gizarte Segurantzako Kontu Hartzailletza Nagusiak ikuskatzen ditu urtero, eta, beraz, funts publikoak behar bezala erabiltzen direla bermatzen du. Era berean, kudeaketa eraginkorra eta gardena izan dadin are gehiago ziurtatzeko, Mutualiak kudeaketa-sistemen ziurtagiriak ditu, eta AENOR erakunde ziurtatzaileak ikuskatzen ditu urtero.

Neurri horiek guztiak bat datoz Nazio Batuen Mundu Itunaren hamargarren eta azken printzipioarekin. Printzipio horren arabera, "enpresek ustelkeria-mota guztien aurka lan egin behar dute, estortsioa eta eroskeria barne".

Mutualiaren iritziz, garrantzitsua da interes-talde guztiei mezuak modu argi eta arinean helaraztea, eta, jakina, zer iritzi dituzten jakitea eta hobetzeko adierazi nahi dituzten ideia guztiak biltzea. Hori dela eta, interes-talde horien informazioa, bildu eta aztertu ondoren, hausnarketa estrategikoaren prozesuan sartzen da, eta arlo bakoitzeko urteko ekintza-planen bidez zabaltzen da. Izan ere, informazio-iturri horiek urteetan sistematikoki aztertu izanari esker, kudeaketan zuzeneko eragina izan duten estrategia eta ekintzak garatu dira.



3. Nor gara?

Interes-taldeak eta parte hartzeko ekintzak

Bezeroak - Gogobetetze-inkestak (enpresa mutualistak, aholkularitzak, osasun laguntza, prestazio ekonomikoak). - Bilerak enpresa mutualistekin eta aholkularitzekin. - Larrialdien sistema, kexak eta erreklamazioak (Webgunea, extraneta, contact center, MEYSSen bulego birtuala, etab.). - Mutualia Foroan bildutako proposamenak eta ekarpenak. - Focus Group. - Eguneroko harremanak enpresekin, aholkularitzekin eta autonomoekin (kudeatzaile osoa). - Eguneroko jarduera/zerbitzuaren prestazioa. - Materialitate-inkesta	Pertsonak - Pertsonen gogobetetze-mailari buruzko inkesta. - Arrisku psikosozialen inkesta. - Boga proiektua. - Iradokizunen sistema. - Prozesuko taldeak/Hobekuntzako taldeak/Saio klinikoak. - Langileen legezko ordezkariekin bilerak. - Elkargune, atari korporatiboa. - Diagnostikoa eta berdintasun-plana. - Barne-komunikazioak hilero. - Eguneroko jarduera/harreman zuzena. - Materialitate-inkesta	Gobernu-organoak eta parte-hartzekoak - Batzar Nagusiaren bilerak. - Zuzendaritza Batzordearen bilerak. - Batzorde Betearazlearen bilerak. - Kontrol eta Jarraipen Batzordearen bilerak. - Zuzendaritza Batzordeko komisioen bilerak. - Materialitate-inkesta.
Funtsezko aliatuak eta hornitzaileak - Rama korporazioaren bilerak. - AMATen bilerak. - Gogobetetze-inkestak. - Materialitate-inkesta.	Gobernua eta erakunde publikoak - Gizarte Segurantzako Ordenazioko zuzendaritza orokorrarekin bilerak. - Sektorean aplikatzen den araudia aldatu eta eguneratu. - Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Nagusiaren auditoria. - Materialitate-inkesta.	Gizartea - Gizartearen gogobetetze-inkesta. - Bilerak aldiro elkarteekin eta antolaketekin. - Materialitate-inkesta.

3. Nor gara?

Materialtasunaren azterketa

2024ko azken hiruhilekoan beste materialtasun-azterketa bat egin zen. Hasiera batean, aurreko materialtasun-azterketa egungo plan estrategikoaren indarraldian mantentzeko asmoa genuen; hau da, 2025eko ekitaldia arte. Baina gertaeren abiadura handia eta gure ingurune aldakorra ikusita, berriro galdetu behar izan diegu interes-taldeei zer alderdi diren haientzat garrantzitsuak Mutualiarekiko harremanean.


2021ean erabilitako metodologiaren antzekoa baliatu dugu, eta 37 gai garrantzitsuren inguruko galderak egin dizkiegu interes-taldeei, hiru eremutan multzokatuta: jarduera etikoa eta gobernu ona, ingurumen-jarduera eta jarduera soziala. Gainera, hiru jarduera horiek Mutualiaren jarduera ekonomikoarekin lotzen dituen balorazio bat egin da. Inkestan, pertsona bakoitzak gehienez ere hiru gai hauta zitzakeen, ESG-irizpideen hiru eremu horietako bakoitzeko,

37 gai horiek interes-maila handia dute Mutualiarentzat; hau da, gai horiek erakundean lantzen dira. Horrez gainera, interes-taldeei aukera eman zaie adierazteko zer gai diren haientzat interes-maila altukoak, galdetegian jasotakoez gainera. Azterketa honetan ez da barne hartu inolako kanpo-elementu materialik.

Aurreko materialtasun-azterketan bezala, interes-taldeek ez dute materialtzat jotzen ingurumen-jarduera, kontuan hartuta Mutualiaren jarduerak ingurumenean eragin negatiborik ez duela, ez dela jarduera kutsatzailea eta ekintzen, ez-egiteen eta istripuen ondorioz ingurumena kaltetzen ez duela.

Gainera, jarduera soziala eta gobernantza gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira erakundeetan, eta, horren ondorioz, interes-taldeek ere garrantzi handiagoa ematen diete.

37 gaien banaketa, jardunaren eta puntuazioaren arabera



Gai materialen zerrenda

Ordena	Gaia	Puntuazioa
1	Baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra	74,25
2	Osasuna eta ongizatea	73,08
3	Konpromiso etikoak definitzen dituzten jokabide-kodeak eta politikak	72,6
4	Gardentasuna	61,6
5	Produktuen eta zerbitzuen kalitatea	46,75
6	Arriskuak kudeatzeko eta kontrolatzeko protokolo eta prozedurak.	45,1
7	Gizarte Segurantzako Sistemaren jasangarritasunari egindako ekarpena	33,6
8	Pertsonen gogobetetzea eta segurtasuna	31,08
9	Enplegararritasuna	28,56
10	Datuen babesa eta zibersegurtasuna bermatzea	27,5

3. Nor gara?

Plan Estrategikoa

Indarrean dagoen Plan Estrategikoak 2021. urtetik 2025. urtera bitarteko aldia hartzen du.

Mutualiaren Plan Estrategikoa hainbat fasetan egin zen. Lehenik eta behin, hausnarketa estrategikoko prozesu bat egin zen, Kudeaketaren Segimendurako taldea buru zela, nagusiki. Gero, Zuzendaritza Batzordeak eta haren batzordeek esku hartu zuten, eta, ondoren, Kudeaketaren Segimendurako taldeak planaren zirriborroa egin zuen. Erakundeko pertsona guztiei zirriborro horren berri eman zitzairen eta, hala,

parte hartzeko epea ireki zen. 135 ekarpen jaso ziren, eta ekarpen horiei esker proiektu berriak sustatu eta zirriborroan aurreikusitakoak aberastu ziren.

Plan Estrategiko horretarako berrikusi eta, hala bazegokien, aldatu ziren kultura korporatiboaren inguruko alderdiak, hala nola asmoa, xedea, balioak eta ikuspegia, finko dira eta, baina badira urtero berrikusten diren beste elementu

batzuk, hala nola AMIA eta agertokiak.

Plan Estrategikoak irauten duen bitartean, euskarri dituen lau ildo estrategikoak ere ez dira aldatzen: Gobernu korporatiboa eta herritarren enpresa sustatzea, pertsonekin hartutako konpromisoa indartzea, zerbitzuak berritzea, osasun-zaintza humanizatzea, segurtasuna eta babes ekonomikoa. Ildo estrategiko bakoitzari “etorkizuneko posizio” bat ematen zaio, helmuga 2025eko ekitaldian jarrita, eta ezinbesteko erronkak egokitzen zaizkio, gero makroproiektu, proiektu eta ekintzak gauzatuz lortzeko.

2024ko ekitaldiaren hasieran Plan Estrategikoa berrikusi da: proiektu guztien egoera eta erronken lorpen-maila aztertu eta AMIA berri bat sortu da, zeinak proiektu estrategiko berriak ekarri baititu.

Memoria honetako hurrengo lau kapituluak ildo estrategiko horiei buruzkoak dira.

Ildo estrategiko		Erronka estrategikoa	
1	Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa		- Euskadiko erreferentziako erakundea izatea kudeaketa aurreratua dela-eta. - Erreferentziako erakundea izatea kudeaketa etikoa dela-eta. - Erreferentziako mutualitatea izatea kudeaketa iraunkorra dela-eta. - Gure kanpoko interes taldeek (IT) aintzatetsi gaitzaten, gure inguruan sortzen dugun balioa dela-eta.
2	Pertsonetikiko konpromisoa indartu		Lanerako leku bikain gisa aintzatetsitako erakundea izatea.
3	Zerbitzuen berrikuntza		Mutualitate azkarra eta puntakoa izatea, zerbitzuen prestazioari dagokionez berrikuntza ezartzeko.
4	Osasunaren zaintza humanizatzea, segurtasuna eta babes ekonomikoa		Erreferentziazko mutualitatea izatea bere hurbiltasunagatik, oinarri dituelarik zentro sare zabal bat eta aniztasunaren arreta.

Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa



Arriskuen kudeaketa integrala

Mutualiak balio-sorkuntzarekiko eta jasangarritasunarekiko konpromisoa du. Konpromiso horri erantzuteko, arriskuak kudeatzeko politika bat definitu du erakundeak. Hona zein diren politika horren printzipio orokorrak: betetzea, proaktibitatea, independentzia, homogeneotasuna, gardentasuna eta etengabeko hobekuntza.


Politika hori arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistema integral baten bidez gauzatzen da. Sistema hori funtzio eta ardurak mailaka definitzean eta esleitzean oinarritzen da, eta, halaber, sistemako aldi eta jardueretara egokitutako prozedura, metodologia eta laguntza-tresnetan, bermatzeko erakundeari negatiboki eragin diezaioketen mota guztietako arriskuak modu sistematikoan, irizpide uniformeekin eta gure Zuzendaritza Batzordeak ezarritako tolerantzia-mailen barruan identifikatzen, aztertzen, ebaluatzen, kudeatzen eta kontrolatzen direla.

Erakunde guztiaren erantzukizuna da arriskuak identifikatzen eta kudeatzen laguntzea. Jarduera horiek koordinatzeko, Mutualiak hiru Hiru Babes Lineen ereduari jarraitzen dio:

Lehenengo babes-linea: Kudeaketa operatiboa

Arlo guztiak dira arriskuen eta haien kudeaketaren erantzule, eta, beraz, barne-kontrol eraginkorra dute eta etengabe egiten dituzte arriskuen gaineko kontrolak. Gainera, beharrezkoa denean, ekintza zuzentzaileak ezartzen dituzte.

Defentsa-lerroen eskema orokorra



Bigarren babes-linea: Arriskuen kudeaketa

Arriskuak Antolatze eta Kudeatzeko arloak, prozesu-taldeak eta egiturazko talde eta/edo talde iraunkorrek osatzen dute. Haren eginkizunak dira arriskuak kudeatzeko sistema definitzea eta berrikustea, arrisku-mapak egitea, sustatzea eta ezarritako ekintza-planen segimendua egitea.

Hirugarren babes-linea: Barne-auditoretza

Arlo hau Zuzendaritza Batzordeko Ikuskaritza Batzordearen mende dago, eta arriskuen kudeaketaren, kontrolaren eta gobernu korporatiboaren eraginkortasuna berrikusten eta baliozkotzen du, lehenengo bi babes-lerroen funtzionamendua barne, modu

independente eta objektiboan.

Eredu horren bidez, kontrol-egitura optimo bat bermatzen dugu arrisku-mailei buruzko informazioa zabaldu dadin erakundean eta arrisku-maila horiek onargarriak izan daitezen gure helburu estrategikoak betetzeko prozesuan.

2024ko ekitaldian, aurrerapenak egin dira Arriskuaren Kudeaketaren Kultura Sendotzea makroproiektua zabaltzeko lanean. Makroproiektu hori 2021-2025 Plan Estrategikoan jasota dago. Hauek dira lorpen garrantzitsuenak:

- Sektore publikoko kontratuen legea ez betetzearekin zerikusia duten arriskuen mapa definitu da.
- Arrisku etikoetan duen eragina neurtzeko beste modu bat proposatu

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

da. • Ekonomiaren, finantzen eta pertsonen garapenaren arloan proba pilotu bat egin da, arrisku penalak ebaluatzeko. • Arlo hauetako arriskuen mapa berrikusi da: kanpoko osasun-laguntza, kontingentzia arrunta, erradiodiagnostikoa eta ospitalizazioa. • FIBKSren etengabeko auditoretza diseinatzeko eta ezartzeko aurrerapausoak eman dira, prestazio ekonomikoen arloan kontabilitateko eta kontabilitatetik kanpoko informazioa trukatzeko programak garatuz. • Auditoretza-txostenetan sistematikoki sartu dira arriskuen mapan identifikatutako arriskuen eta kontrolen ebaluazioari buruzko iritziak, eta arrisku berriak identifikatu dira, gero tratatzeko. • Zuzendaritza Batzordeko Ikuskaritza	Batzordeak onetsitako barne-auditoretzako planaren % 94 bete da. Sistematika hori, arriskua ebaluatzeko eta gure jarduketak lehenesten laguntzeko aukera emateaz gainera, baliagarria da arriskuen kudeaketako eremu jakin batzuetako ziurtagiriak berritzeko; esate baterako: • UNE 179003 "Pazientearen segurtasunerako arriskuen kudeaketa" • UNE 179006 "Osasun-laguntzarekin zerikusia duten infekzioen zaintza, prebentzioa eta kontrola" • ISO 27001 "Informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema" • UNE 19601 "Compliance penala betetzea kudeatzeko sistema" • Informazio Sistematarako Segurtasunaren Eskema Nazionalaren araberrako ziurtagiria (kategoria ertainekoak)	Gainera, beheko ziurtagiri horiek ere berritu ditugu. Ez dira espezifikoak arriskuei buruzkoak, baina, haien goimailako egitura dela eta, garrantzi handiagoa ematen diote arriskuen kudeaketari: • ISO 9001 "Kalitatea kudeatzeko sistema". • ISO 14001 "Ingurumena kudeatzeko sistema" • ISO 50001 "Energia kudeatzeko sistema" • ISO 45001 "Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistema" Ziurtagiri horiek garrantzitsuak dira arriskuak kudeatzeko gure sisteman, kanpo-erakunde akreditatuek baliozkotutako prebentzio-kontrolak baitira, eta, hala, gure sistemaren eraginkortasuna are gehiago bermatzen da interes-taldeen aurrean.
--	---	---



Kode Etikoa, Arrisku Penalen Prebenziorako Plana eta Politika

Barneko informazio-sistema eta informatzailearen babesa

Mutualiaren Kode Etikoa, Zuzendaritza Batzordeak 2015ean onetsia —indarrean dagoen testua 2021eko abenduaren 17ko berrikuspenari dagokio—, Gobernu Korporatiboaren sistemaren parte da, eta egokitzapen etikoaren eta betetzearen proiektuan txertatzen da, 2021-2025 Plan Estrategikoaren zenbait ildotan islatzen den bezala.

Erakunde eta pertsona mutualistekiko erantzukizun-jardun bat da, eta lerrokaturik dago Mutualiaren balioekin: hurbiltasuna, efizientzia, taldea, profesionaltasuna, gardentasuna eta abangoardismoa. Hori garatzeko, Mutuialiak Jokabide profesionaleko arau orokorrak onetsi zituen 2022an, oinarri gisa harturik erakundearen xedea, eginkizuna, balioak eta Kode Etikoa, enpresa-kulturaren oinarritzko elementu diren heinean.

Mutuialiak badu “Interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta kudeatzeko protokolo” bat, zeinak konfidentziasun-konpromisoa eta interes-gatazken eta debekuen konpromisoa adierazteko dokumentuak jasotzen ditu eranskin gisa Mutualiaren Kontratazio Publikoaren prozeduran.

Gure Delituak Prebenitzeko Politikak (2019), ereduko elementu nagusiak barne hartzen ditu, eta erakundeak araudia oro har eta espezifikoki araudi penala behar bezala betetzen dela bermatzeko duen asmoari dagozkion helburuak zehazten ditu. Haren edukia ezagutzeko eta betetzeko beharra ezartzen die Mutuialiko gobernu- eta partaidetza-organoetako kide eta ordezkari diren pertsona fisiko guztiei —edozein dela ere haien maila hierarkikoa, kokapena eta funtzioak—, baita langile guztiei ere. Mutualiaren izenean eta hura ordezkatzu diharduten hirugarrenei ere badagokie politika hori. Pertsona juridikoaren erantzukizun penalaren prebenziorako Mutualiaren planeko oinarritzko ardatzak diren gainerako dokumentuekin batera dago argitaratua.

Bat dator Gobernu Korporatiboaren Politika Orokorrarekin, zeinaren 5. berrikuspena 2024ko maiatzaren 31ko Zuzendaritza Batzordean

erabaki baitzuten eta urte horretako uztailaren 19an Batzar Nagusian berretsi, eta Mutualiaren compliance penalaren funtsezko beste politika bat da.

Betearazpen Batzordea kide anitzeko organo bat da, eta ekimen- eta kontrol-ahalmen autonomoak ditu prebentzio-ereduaren funtzionamendua eta egikaritzea gainbegiratzeko, Zigor Kodearen 31. bis.2.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Haren antolamenduko eta funtzionamenduko barne-erregelamenduak Mutuialiko barneko informazio-sistemari eta informatzailearen babesari buruzko politika garatu zuen, 2023an onartua, eta haren aldaketa (hura barneko informazio-sistemaren eskumen-eremu materialeko kasuak doitzeko, barne-arauen eta -protokoloen balizko ez-betetzeei dagokienez) 2024ko martxoaren 25eko Zuzendaritza Batzordeak onartu du.

Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko 2/2023 Legeak Batzorde Betearazlea ezartzen du barneko informazio-sistemaren arduradun gisa. Hura arduratzen da, halaber, indarrean dauden araudiak arlo guztietan duen eragina aztertzeaz eta Mutualiaren arrisku penalen mapa egiten dela gainbegiratzeko. 2024ko ekitaldian, arrisku penalen ebaluazioa berrikusten jarraitu zen, eta, ildo horretan, egokitu egin zen Zigor Kodeak pertsona juridikoarentzat deskribatzen dituen delitu-tipoekin lotutako jokabideak aztertze metodologia. Pertsonen Garapena eta Kontratazioa arloetako arrisku-mapak eta kontrolak berrikusi dira.

Nabarmendu behar da, arrisku penalei dagokienez duen irismenagatik, eguneratutako protokoloen artean honako prozedura hau berrikusi dela: sexu-jazarpenaren eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenaren eta sexu-indarkeriak eta/edo LGBTI pertsonen aurkako indarkeriak prebenitzeko eta haien aurrean jarduteko prozedura, Berdintasun Batzordean adostutakoa.

Horrenbestez, pertsona juridikoaren

erantzukizun penala prebenitzeko planaren funtsezko zutabeak honako hauek dira: kode etikoa; compliance penalaren politika; arrisku penalen mapa; arrisku penalak betetzeko eta prebenitzeko eskuliburua; Mutualiaren jokabide profesionalaren arau orokorrak; interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta kudeatzeko protokolo orokorra; eta barneko informazio-sistemari eta informatzailearen babesari buruzko politika. Plan horren xedea da delitu-arriskua prebenitzeko edo modu esanguratsuan murrizteko zaintza- eta kontrol-neurri egokiak barne hartzen dituen antolamendu- eta kudeaketa-eredu bat ezartzea eta eraginkortasunez egikaritzea.

2023an, ezarritako legezko epeen barruan, web-tresna bat jarri zen barneko eta kanpoko interes-talde guztien eskura, barne-kanal gisa, eta haren bidez jaso daitezke 2/2023 Legeak ezartzen duen eremu materialean eta pertsonalean arau-hausteren bat deskriba dezaketen komunikazioak, edo are lehen aipatutako barne-arauak, kodeak eta protokoloak urratzea ekar dezaketen gertakariak deskribatzen dituztenak. Informazio-kanal horrek betetzen ditu eskaturiko bermeak: konfidentziasuna, informatzailea babestea eta komunikazioak tratatzea.

Batzorde Betearazleak bere kideak gaitzeko programa jarraitu bat ezartzen du. 2024an, nabarmentzekoa da hainbat eguneratze-jardunaldiren eta berritasunen bitartez arlo hauetan eskainitako prestakuntza: zibersegurtasuna, adimen artifizialaren erregulazioa eta erakundeetako jazarpen-protokoloak. Hirugarren aditu baten aholkularitza eta lankidetzak juridiko-teknikoa jasotzen du Batzordeak, eta Mutuاليا Espainiako Compliance Elkarteko (ASCOM) kide da, haren prestakuntza-programa zabalerako sarbidea izateko.

Prebentzio penalaren arloko aldizkako prestakuntzaren eta barne-komunikazioaren testuinguruan, nabarmentzekoa da plantilla osoari zuzendutako prestakuntza-ekintza bat egin dela. Hainbat gai azaltzeko bideo laburrak dira, eta edukiak multzoka sailkatuta daude: etika eta balioak; prebentzio penala eta eroskeriaren prebentzioa; pribatutasuna eta konfidentziasuna. Gainera, jardunaldi bat egin zen Batzorde Betearazlearen funtzioak eta helburuak ezagutarazteko eta delituak prebenitzeko sistemaren funtsezko alderdiak gogorarazteko. Era berean, komunikazio-ekintza planifikatuak gauzatu dira erakundearen erantzukizun-maila guztietan betetze-kultura zabaltzera bideraturik, askotariko kanalak aprobetxatuz.

AENOR entitateak 2024ko abenduan egin du Mutualiaren sistemaren jarraipen-auditoria berria (Egiaztapen Erakunde Nazionalak [ENAC] egiaztatutik dauka AENOR, compliance penaleko kudeaketa-sistemak UNE 19601 Arauari jarraituz ziurtatzeko). 2023ko urtarrilaren 17an berritu zen 2019ko abenduan lortutako ziurtagiria, eta 2026ko urtarrilera arte egongo da indarrean.

Informazioaren segurtasuna eta datuen babesa

Mutualiak datuak babesteko araudi zorrotza ezartzen du datu pertsonal sentikorrek kudeatzerakoan (DBEO, DPBEDBLO eta ENS); horretarako, ziurtatutako neurri teknikoak eta antolamendu-neurriak erabiltzen ditu(ISO 27001), segurtasuna eta pribatutasuna bermatzen dituen diziplinarteko batzorde baten laguntzarekin. 2024an, batzorde horrek barne-politikak indartu, arrisku-ebaluazioak eguneratu, prestakuntza espezifiko sustatu eta prozesuak ikuskatu ditu, eta, horrela, etengabeko bilakaeran den araudia betetzeko eredu dinamiko bat finkatu du.



Mutualiak, bere izaera juridikoa eta eskaintzen dituen zerbitzuak direla eta, datu pertsonalen zenbait kategoria tratatzen ditu, legeetan datu pertsonalen kategoria berezitzat jotzen direnak barne hartuta; halakoak dira, adibidez, osasunari buruzko datuak.

Datuen Babeserako Espainiako Agentziako Kabinete Juridikoaren 17302/2018 txostenaren arabera (kabinetearen aurreko 189/2008 eta 350/2009 txostenetan jasotako irizpideak berresten ditu), Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek legez egozten zaien jardueran kudeatzen dituzten datu pertsonalen tratamenduaren arduradunaren izaera dute.

Mutualia erakundea hauen mende dago, eta bermatu behar du zorrotz betetzen dituela: apirilaren 27ko Datuak Babesteko (UE) 2016/679 Erregelamendu Orokorra (DBEO), Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (DBEDBLO) eta haiekin lotura izan dezaketen eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

Araudi hori betetzeko eredu elementu hauetan oinarritzen da:

- Datuen Babeserako ordezkaria (AEPDren datuen babeserako ordezkarien eskemaren arabera ziurtatutako abokatua).
- Segurtasun-arduraduna (Informazio Sistemetakozuzendaria).
- Informazioaren Segurtasunaren eta Datuen Babesaren Batzordea eratzea eta etengabeko funtzionamendua, 2. defentsa-lerroko diziplinarteko kide anitzeko organo gisa.
- Segurtasun Batzordeari laguntzeko kanpo-aholkularitza, datuen babesean espezializatua.
- Erakundeko arriskuen kudeaketako sistema orokorra.
- Diseinu Estrategikoko Prozesuko arriskuei buruzko txostena eta kudeaketa.
- Datuen segurtasunaren eta babesaren arloko politika eta prozedurak.
- Tratamendu-jardueren erregistroa.
- Datuen babesari eta konfidentziasunari buruzko klausulak datuen tratamenduaren ardura duten hornitzaileekin egiten diren kontratuetan.
- Komunikazioetan, gune elektronikoetan,

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

dokumentuetan eta kontratuetan datuak babesteari eta haien konfidentziasuna gordetzei buruzko klausula informatiboak.

- Erakundeko pertsona guztiak prestatzea eta sentsibilizatzea.
- Etengabeko eguneratzea kontrol-agintaritzen eta jurisprudentziaren irizpide eta gidalerroen arabera.
- Datuetara irispidea izateko, haien zuzentzeko, ezabatzeke, haien tratamendua mugatzeko, haien eramangarritasunerako eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideen kudeaketa eta eskubide horiek baliatzei dagokion erantzuna.
- Arriskuen mapa egokitutako segurtasun-neurriak ezartzea.
- DBEOko arriskuen aldizkako barne-auditoretza.
- Datuak babestea diseinutik bertatik eta lehenespenez.
- Arriskuen analisia eta datuen babesaren inpaktuaren ebaluazioak (PIA - EIPD) tratamenduetan, kontrol-agintaritzen giden arabera, proiektu berriak barne.
- Interes legitimoaren haztapena legitimazio-oinarri hori duten tratamenduetan.
- Hondar-arrisku handiko kasuetan, kontrol-agintaritzari alde aurretik kontsultak egiteko aurreikuspena.
- Segurtasun-arrakalak kontrol-agintaritzari jakinarazteko aurreikuspena, halakorik gertatuz gero.

Araudia betetzeko, neurri tekniko eta antolakuntza-neurri egokiak ditu Mutuialiak, Arriskuak Kudeatzeko Sistema Integral bat barne dela, segurtasun-maila egokia bermatzeko, nolandi ere sistema, zerbitzu eta datuen irisgarritasuna, osotasuna, erresilientzia, erabilgarritasuna, benetakotasuna, trazabilitatea, kontserbazioa eta konfidentziasuna bermatuta, haien eraginkortasuna egiaztatzeke, ebaluatzeke eta baloratzeko prozesuekin.

Mutuialiak Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema Integral bat dauka, ISO/IEC 27001 nazioarteko estandarren arabera. Gure erakundeak estandar horren arabera eta ENACek ziurtatutako erakunde batek emandako ziurtagiria dauka, eta barne-auditoretzak eta kanpo-auditoretzak egiten dira aldizka.

Mutuialiak hartuta ditu Segurtasunaren Eskema Nazionalaren (ENS) neurri

teknikoak eta antolakuntzakoak, eta kanpoko auditoretza-erakundeak ziurtatu ditu.

Araudi hori ez dute jarraibide estatiko hutsek osatzen, izaera dinamikoa, aldakorra eta kasuistika ugariak baita. Horregatik, Informazioaren Segurtasuneko eta Datuen Babeseko Batzordea sortu da kide anitzeko organo diziplinarteko espezializatu gisa, Mutuialiako Arriskuen Kudeaketako Sistemako bigarren babes-linean txertatuta, zeinak Erakundearen jardueran informazioaren segurtasunarekin eta datu pertsonalen babesarekin zerikusia duten alderdi guztiak zaintzen, bultzatzen, sustatzen, bideratzen, informatzen eta kontrolatzen baititu eta haien buruzko zalantza eta galderei erantzuten baitie. Mutuialiako Segurtasun Batzordeko kide iraunkorrak dira Segurtasuneko arduraduna - Informazio Sistemetako zuzendaria, Antolamenduko eta Arriskuen Kudeaketako zuzendaria, datuak babesteko ordezkaria eta pribatutasunaz eta datuen babesaz arduratzen den legerloko teknikari bat.

2024an, Mutuialiako Segurtasun Batzordearen jardueraren barruan, hauek nabarmendu dira:

- Tratamendu Jardueren Erregistroa (TJE) etengabe eguneratzea.
- Datuen Babesari eta Informazioaren Segurtasunari buruzko Arriskuen Mapa etengabe eguneratzea.
- Erakundearen pribatutasunari eta datuen babesari buruzko politikak, prozedurak eta barne-arauak eguneratzea, bai eta webgune korporatiboaren lege-oharrak eta pribatutasun-oharrak ere.
- Kontratu- eta informazio-ereduak eta -klausulak eguneratzea.
- ISO 27001, ENS eta DBEOri buruzko auditoretza-txostenen ondoriozko ekintzak eta jarraipena.
- Proiektu berrien arriskuak aztertzea eta zehaztea ea bidezkoa ote den datuen babesaren inpaktuaren ebaluazioa egitea.
- Datuen babesari buruzko eskubideak gauzatzeari buruzko espedientei erantzutea eta haien jarraipena egitea.
- Datuen babesari eta/edo informazioaren segurtasunari buruzko gorabeheren jarraipena egitea.
- AEPDk eta CEPDk urtean ateratako irizpideen/txostenen/giden jarraipena

egitea.

- Trebakuntza- eta kontzientziazio-ekintzak sustatzea.
- Erakundeko sailetan dauden pertsonekin hitz egitea.
- Kontsultei eta galderei buruzko aholkularitza ematea goi-zuzendaritzari eta sailei.
- Segurtasun Batzordea zortzi (8) aldiz elkartu da formalki 2024an, eta dagozkion aktak egin ditu.
- Gordetzeko eta ezabatzeko epeak finkatzeko jarraibide bat onartu da, irizpide juridikoa eta aukera teknikoak bateratzeko.
- Informazioa etiketatzeke eta sailkatzeke jarraibide bat onartu da.
- Ziberarrisku-erakunde eta datuak babesteko aseguru-poliza baten lizitazioa bultzatu da.
- WEBaren cookie-politika berrikusi da.
- Mutuialiaren historia klinikoko datuak babesteko informazio-orriaren bertsio berria inplementatu eta zabaltu da (3. ber.).
- Pribatutasun Politikaren bertsio berria ezarri da Mutuialiaren webgunean.
- Informazioaren Segurtasuneko Politika (eta haren II. eta III. eranskinak) berrikusi da, eta ENS berriaren arabera egokitu/eguneratu, 31/2022 EDan ezarritakoari jarraikiz.
- Kudeaketa-prozedura eta segurtasun-arrakalen aurrean jarduteko berrikusi dira.
- Historia klinikora sartzeko profilak eta profil/rol bakoitzak izan behar dituen bistaratzeak eta funtzionaltasunak zehazteko jarraibideak berrikustea bultzatu da.
- Mutuialiaren datuak babesteko eta sistema, gailu eta aplikazioak egoki erabiltzeko oinarriko betebeharrak orokorrean 5. berrikuspena onartu da.
- DBEOren bi urteko auditoria egin da.
- Adimen artifizialari buruzko EB Erregelamenduen argitalpena aztertu da, eta adimen artifizialaren Mutuialiaren erabilera eta gobernantza-politika onartzea bultzatu da.

Finantza-inbertsioen jokabide-kodea

Mutualiak “Irabazi-asmorik gabeko erakundeek balore-merkatuan aldi baterako finantza-inbertsioak egiteko jokabide-kodea” betetzen du. Kode hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak onetsi zuen 2019ko otsailaren 20an, eta BOEn argitaratu zen 2019ko martxoaren 5ean, Balore Merkatuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Mutualiak egiten dituen finantza-inbertsio guztietara zabaltzen ditu kode hori arautzen duten printzipioak. Horretarako, erakundearen izaerara egokitutako inbertsio-politika bat zehaztu du; inbertsioen politika betetzen dela ziurtatzeko barne-kontrolak egiten ditu, aginpidez eta modu independentean; eta Finantza Inbertsioen Batzorde bat sortu du, ezagutza tekniko nahikoa duten zuzendaritzako kideek osatua, eta hirugarrenen aholkularitza profesionala ere baduena.

Inbertsioetarako Jokabide Kodea betetzen dela kontrolatzeko, adierazle hauek zehaztu dira, eta, 2024ko ekitaldian, eskuineko taulan ikus daitezkeen balioak aurkeztu dira.

Jokabide Kode hori gorabehera, Mutualiak, finantza-inbertsioak arautzeko dagokionez, azaroaren 14ko 1622/2011 Errege Dekretuaren 30. artikuluan ezarritakoa bete du; Errege Dekretu horrek mutuen kudeaketan laguntzeko Erregelamendu Orokorra aldatzen du.

Inbertsioen adierazleak

Adierazlea	2023	2024
Epe laburreko likidezia (Egokia 1 eta 1,5 artean; 2 baino gehiagok Diruzaintzako soberakina adierazten du)	1,5538	1,5215
Segutasuna (onartutako gutxienezkoa S&P-ren arabera)	BBB	BBB
GS errentagarritasuna (Gizarte Segurantzaren Kudeaketako Diruzaintzako guztizkoa)	1,13%	1,29%
OH errentagarritasuna (Ondare Historikoaren Kudeaketako Diruzaintzako guztizkoa)	1,94%	2,90%
Eragiketa espekulatiboaren zenbakiak	Ninguna	Ninguna

2024. urte honetan, 2023an bezala, Mutualiak ez du betetzen Lankidetzaren 30. artikulua erreserbak gauzatzeari dagokionez: “..... mutuek gutxienez beren aktiboaren zenbateko bat mantendu beharko dute ekitaldi ekonomikoaren une bakoitzean, beren erreserben ehuneko 80ren zenbatekoaren baliokidea, eskudirutan edo finantza-aktibo motaren batean gauzatuta...”. Horren arrazoia da baliabide likido guztiak, aktibo finantzarioekin batera, ez direla nahikoa saldo hori estaltzeko (70.241.239,10 €),

eta defizita, 2024ko abenduaren 31n, 13.208.212,11 eurotan kuantifikatu da.

Azkenik, prozedura gardenagoa izan dadin eta finantza-inbertsioak egiteko kodeari berari jarraituz, Mutualiak “Jokabide-kodearen betetze-mailari buruzko Inbertsio Batzordearen txostena” egiten du urtero. Txosten hori Zuzendaritza Batzordeak onetsi behar du, eta enpresaburuei haren berri ematen zaie Batzar Orokorraren ohiko bileran.

Kudeaketa ekonomikoaren adierazleak

Gizarte Segurantzaren eta Ondare Historikoaren jasagarritasun ekonomikoa eta baliabideen kudeaketaren optimizazioa lortzeko, beharrezkoa da kudeaketa aurreratua eta etikoa izatea.

Erakunde kaudimenduna izateko, erreserba-estaldurak maila egokietan egon behar du. Atal honetan ikusten diren adierazle ekonomikoak erakundeak eskura dituen baliabideen arabera egiten duen kudeaketa orokorraren ondorio dira. Azken bi urteetan, ordea, kontingentzia arruntek eragindako prestazioen ordainketak gehitu izanak agerian utzi du kontingentzia hori behar baino gutxiago finantzatu dela. Ondorioz, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuetan, oro har, kontuek emaitza negatiboak izan dituzte, eta horrek epe ertainera kaudimen-arazoak sor ditzake.

Egoera hori arintzeko, 2024an finantzaketa-mekanismo gehigarriak ezarri dira, hala nola abenduaren 26ko PJG/1473/2024 Aginduan jasotakoa; agindu horren arabera,

478,4

KOBRATUTAKO KUOTENGATIKO DIRU-SARRERAK, MILIOI EUROTAN (AURREKO EKITALDIAN BAINO % 7,8 GEHIAGO)

0,62

ONDARE HISTORIKOAREN KONTUKO EMAITZA, MILIOI EUROTAN

Gizarte Segurantza kudeatzeko kontuaren adierazle garrantzitsuak

Adierazlea	2023	2024
Gizarte-kotizazioen diru-sarrerak(kobratutako kuotak) (milioi eurotan)	443,7	478,4
Gizarte Segurantzako kontuaren kudeaketaren emaitza (milioi eurotan)	-9,07	0 ¹
Laneko kontingentzien erreserben estaldura	25,75%	23,95%
Kontingentzia arrunten erreserben estaldura	5%	5%

Ondare Historikoa kudeatzeko kontuaren adierazle garrantzitsuak

Adierazlea	2023	2024
Ondare historikoaren errentagarritasuna	%53,90	%38,20
Ondare Historikoaren kontuaren kudeaketaren emaitza (milioi eurotan)	0,75	0,62

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek 0,07 eta 0,033 koefiziente bereziak jaso ahal izango dituzte, finantza-eskasia dagoenean. Kontingentzia arrunt eta profesionaletako erresebak erabiltzeko edo hornitzeko banatu beharreko emaitzen batura negatiboa bada, dagokion koefizientea aplikatzean geratzen den zenbatekoa aintzat hartu ondoren, kuota-frakzioa handituko da emaitzen batura negatiboa den bitartean, eta gehieneko muga Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko besteren konturako kuoten gaineke 0,081 koefizienteari dagokiona izango da.

[1]2024an, nahiz eta Mutuak 63,2 milioi euroko emaitza lortu duen kontingentzia profesionalak kudeatzeagatik, finantzaketa gehigarriaren gehienezko zenbatekoa erabili behar izan du kontingentzia arruntek eragindako galerak konpentsatzeko, eta, horregatik, azken emaitza zero da.

Memoria honetako 9. atalean xehetasunez jasotzen da informazio ekonomiko eta finantzario guztia.


Hurrengo orrialdeetan, kudeaketa ekonomikoaren beste adierazle garrantzitsu batzuk dituzten zenbait taula daude.

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa


Prestazioetako zenbatekoak

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Gertakizun arruntengatiko Aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak + 60 egun	200.710.162 €	206.096.627 €	%2,68
Gertakizun profesionalengatiko Aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak + 60 egun	47.019.443 €	53.105.132 €	%12,94
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua	19.844.513 €	19.290.729 €	%-2,79
Gertakari profesionalen ondoriozko sekuelak eta heriotzak	29.858.804 €	35.395.289 €	%18,54
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea	6.310.440 €	8.200.852 €	%29,96
Langile autonomoen jarduera etetea	1.948.722 €	3.021.114 €	%55,03
COVID-19a	5.524.125 €	0 €	%-100,00
LAJE COVID: Ezohiko LAJE	-746.900 €	0 €	%-100,00
Guztira	310.469.309 €	325.109.743 €	%4,72

Prestazioen banaketa



KAABE prestazioen zenbatekoaren bilakaera (milioi eurotan)



4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

Prestazioen zenbatekoen %, horietako bakoitzean sartutako kuotei dagokienez

Adierazlea	2023	2024
Gertakizun arruntengatiko aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak+ 60 egun	%185,27	%189,07
Gertakizun profesionalengatiko aldi baterako ezintasuna eta bestelako prestazioak+ 60 egun	%15,43	%16,36
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua	%6,51	%5,94
Gertakari profesionalen ondoriozko sekuelak eta heriotzak	%9,80	%10,90
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea	%2,07	%2,53
Langile autonomoen jarduera etetea	%27,71	%44,59
Kuoten inguruko prestazioen ratio orokorra	%72,75	%73,83

Kontingentzia profesionalaren adierazleak

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Bajaren batez besteko iraupen ekonomikoa (egunak)	40,19	43,42	%8,04
Baja ekonomikoaren eragina	40,77	40,06	%-1,74
Egun ekonomikoak langile afiliatu bakoitzeko	1,71	1,78	%4,09
Ezbehar-kopuru osoa x 1.000	82,39	79,9	%-3,02
Baja duten ezbeharrak x 1.000	38,3	38,14	%-0,42

Kontingentzia arruntaren adierazleak

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Alta-prozesuen batez besteko iraupena (egunak)	45,27	40,07	%-11,49
Eragin ekonomikoa (%)	145,74	145,44	%-0,21
Alta-proposamenak	5.358	4.907	%-8,42


Baliabideen kudeaketa

2024ko ekitaldian, Baliabideen Kudeaketako arloaren helburu nagusia izan da kudeaketaren efizientzia eta efikazia hobetzen jarraitzea, bai baliabideei dagokienez, bai barruko eta kanpoko bezeroei eskainitako zerbitzuei dagokienez. Helburu hori lortzeko, ekintza hauek egin dira, besteak beste:

- Indarrean dauden kontratazio-prozedurak sakon berrikusi dira, aplikatu beharreko araudira zorrotz egokitzeko. Gainera, zer hobetu daitekeen ikusi da eta sailek ondasunak, obrak eta zerbitzuak kontratatzeko egindako eskaerei erantzun zaie arin, eraginkortasunez eta aplikatu beharreko araudiari jarraikiz.
- Arloetako arduradunei trebakuntza eta laguntza administratiboa eskaini zaie, kontratazioari buruzko ezagutzak eta gaitasunak hobetzeko.
- Espedienteak eta kontratuak egiteko behar den dokumentazioa eguneratu da, bete beharreko lege-xedapen berrien arabera.
- Hornitzaileekiko harremana sendotu eta tokiko enpresek kontratazio-prozeduretan parte har dezaten

%73,19
TOKIKO HORNITZAILEETAN
EGINDAKO GASTUAREN
PROPORTZIOA

Kontratazio-zenbatekoaren banakapena, lurraldeka



- sustatu da, betiere berdintasunaren, gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatuz.
- Arduradunek kontratuak nola gauzatzen dituzten etengabe gainbegiratzen eta kontrolatzen jarraitu da, eta bermatu da betetzen direla, emandako zerbitzuak kalitatezkoak direla, eta portaera etikoa, arduratsua eta jasangarria izan dela. Horiek horrela, gure harremanei eta gizarteari balioa gehitu diegu.
 - Mutualiako arloekiko komunikazioa arina izan da, haien premiak modu eraginkorrean betetzen direla eta beren jarduerak egiteko behar dituzten ondasun eta zerbitzuak jasotzen dituztela bermatzeko.

- Horretarako, premiak programatzeko sistematika bat erabili da, zeina urteko kontratazio-programa batekin amaitu baita; programa horren etengabeko segimendua egingo da, desbideratu ez dadin.
- Asistentzia-prozesua humanizatzeko proiektuarekin bat etorritik, eraikinak egoera onean izateko behar diren mantentze-lanak, obrak eta konponketak egitea.
- 2024ko ekitaldian 30 milioi euro inguru kudeatu dira, eta horietatik % 73,19 EAEko hornitzaileekin kontratatuta da; zenbatekoak goiko grafikoan daude banakatuta.

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

Guztira fakturatutako hori 109 lizitazio-espeditente, 42 kontratu txiki eta zuzeneko erosketa-eskaera ugaritan banatu da. Horien guztien artean, 2.965.540,08 euroko errentagarritasuna lortu da, gehieneko tarifak jaitsi direlako eta prezioei eutsi zaielako; izan ere, prezioek, normalean, hurrengo ekitaldietako emaitzen kontuan eragiten dute.

2024ko ekitaldian, Informazio Sistemen arloarekin elkarlanean, jardueraren automatizazioa hobetu eta berritu da, ekintza hauen bitartez, besteak beste:

- Mutualiaren hornitzaile guztien datu-base eguneratu bat sortu da, eta hornitzaile kritikoak bereizi dira, fakturazio-zenbatekoen arabera.
- Kontratu kritikoen arduradunek kontratu horiek ebaluatu dituzte, nola gauzatzen diren gainbegiratzeko, erabakiak hartzeko eta kontratatutako prestazioa behar bezala gauzatzen dela ziurtatzeko behar diren jarraibideak emateko. Lan hori

baliabide propioekin egin da, power automate aplikazioa erabiliz.

- Espedienteak kontratazio-plataforman argitaratu dira automatikoki, kontratazio-teknikariek sartutako datuak oinarritzat hartuta.
- Eredu ekonomikoaren txosten berri bat ezarri da, zeinak balio baitu, batetik, Mutualiak sustatzen dituen lizitazioetan merkatu-prezioak ezartzen dituela ziurtatzeko; eta bestetik, gastua onesteko.
- "Premia-txosten" berri bat diseinatzeko hasi gara, eskari-eskabidea ordeztuko duena, hobetzen eta kontratazio-araudia betetzen jarraitzeko. Txosten horretan eskatuko da justifikatzea eta arrazoitzea, batetik, material edo zerbitzu hori kontratatuzeko premia dagoela, eta, bestetik, xedea ez dela aldatzen ari, SPKLn ezarritako mugak aplikatzea saihesteko.
- Lizitazio edo kontratazio txiki batetik ez datozen eskari guztien gastua "onesteko" betebeharra ezarri da. Batetik, Sektore Publikoko Kontratuen

Legeari ezarritakoa gehiago betetzeko; eta bestetik, kontraturik gabeko zuzeneko esleipenean egiten den gastua gehiago kontrolatzeko.

- Erosketa- eta kontratazio-arlorako dokumentu-kudeatzailea ezarri da. Horri esker, ERP SAPetik erraz sartu ahal izango da Erosketa eta Kontratazio arloak sortzen duen dokumentazioa. Gordetzen den dokumentazioa SAPen sortzen diren eskari/kontratuekin lotuta dago. Hala, Erosketa eta Kontratazio arloko eta Ekonomia eta Finantza arloko edozein pertsonak eskura izango du gestioak, segimendua eta ordainketak egiteko behar den dokumentazioa.

Halaber, kontratazio-ko Jardunbide Egokien Gida bat egin da, izapidetzen diren prozeduretarako printzipio, jardueren adibide, orientabide eta jarraibideen katalogo bat edukitzeko.



Ingurumen- kudeaketa

Interes-taldeek ez dute materialtzat jotzen ingurumenaren kudeaketa, besteak beste, Mutualiak dagoeneko bide luzea egin duelako gai horretan, legea betetzetik harago, eta, halaber, ez dutelako uste erakundearen jarduera-motak ingurunean eragin negatiborik sortzen duenik.



Baliabideen kudeaketako ingurumen-alderdiei dagokienez, erosketa eta kontratazio arduratsuak egiteko, printzipio hauek betetzen jarraitzen du Mutualiak:

- Gure ingurunean inpaktu handia duten materialak GUTXIAGO erostea eta erabiltzea.
- Ingurumen-irizpideak aplikatzea eta beharrak aztertzea EROSTEKO GARAIA.
- TRAKZIONATZEA, hornitzaileek sortzen dituzten hondakin guztiak kudea ditzaten.
- BERRERABILTZEA, "bartzerteko" baliabideak sailen eta langileen eskura jarritz.
- Mutualian eta gure etxeetan egin ditzakegun ekintza eta ekimenen bidez SENTSIBILIZATZEA.

2024ko ekitaldian, Mutualiak bat egin du GJHen aldeko Euskal Aliantzarekin; 55 erakundek sinatu dute aliantza hori, 2030 Agenda garatzen laguntzeko. Sinatzaileak 2030 Agenda Euskadi Foroko Guneak ekimenean parte hartzen duten gizarte-eragileak dira.

Hitzarmenaren oinarria "2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako" adierazpena da, zeinak bost konpromiso eta bost inplikazio praktiko baititu:

- Gizarte-erakundeen arteko lankidetzaren indartzea, bai eta erakunde horien eta instituzioen artekoa ere.
- GJHak enpresen eta erakundeen kudeaketan eta barne-funtzionamenduan ezartzea.
- 2030 Agenda zabaltzea eta sustatzea, eta herritarren partaidetza eta inplikazioa bultzatzea.
- Elkartasun- eta jasangarritasun-printzipioak bultzatzea, 2030 Agendaren oinarri gisa.
- Euskal esperientzia modelizatzea eta nazioartean esperientzia hori trukatzeko bultzatzea.

Mutuaren inplikazio horietako bat izan zen "2030 Agenda enpresa eta erakundeetan garatzeko gida" baloratzea; elkarlan globaleko ekimen hori 17. GJHaren aplikazio zehatza da. Errealitate praktikora eta tokiko errealitatera eramateak eragindako aliantzak.

Jasangarritasunak arlorako eta Mutualiarako zenbateko garrantzia duen kontuan izanda, Erosketa eta Kontratazio

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

Berdearen Programa 2030 ekimenarekin dugun konpromisoa berritu dugu, IHOBerekin. Hala, gure kontratazioetan gizarte- eta ingurumen-neurriak aplikatzen jarraitzea bultzatu dugu, eta neurri horiek nahitaezkoak izango dira gure kontratuen esleipendun izan nahi duten erakundeentzat.

Ingurumen-kudeaketari dagokionez, ingurumena errespetatzeko eta babesteko hartu dugun konpromisoa sendotzen jarraitu dugu, eta, legezko betebeharrak betetzeaz gainera, lan egin dugu poluzioaren prebentzioan, baliabideen kudeaketa eraginkorrean eta plastiko-kontsumoaren murrizketan.

Co2-emisioak murrizteaz, energia berdea sustatzeaz, bilgarrietako plastiko-kantitatea murrizteaz eta Mutualiako baliabideen eta altzarien balio-bizitza luzatzeaz ari garela, hobekuntza espezifikoko egiteko espedienteak kudeatu dira; besteak beste, hauek:

PAPERA GUTXITZEA ESPEDIENTE HAUETAN:

- 2024/014/01 “Makuluen eta bastoi hornidura” edo 2024/101/01 “Mutualiaren lantokiak botikinez, material berriez eta alekako elementuz hornitzeko kontratua”. Horietan, puntu bat ematen zaio bilgarria birziklatutako edo baso jasangarrietako materialez egina izateari: Gutxienez % 90 paper edo plastiko birziklatuz egina. edo gutxienez % 70 ustiapen jasangarriko basoetako edo birziklatutako materialekin sortutako paperez egina. Bilgarria hau da: produktu-sorta bat garraiatzeko eta babesteko erabiltzen den kaxa edo edozein motatako bilgarria.
- 2024/032/01 “Fakturazio sanitarioko fluxuaren automatizazioa kontratatzea, gure historia klinikoko aplikazioan (Gehitu) erregistratzeko”. Kontratu horren asmoa da osasun-fakturazioa automatikoki digitalizatzea eta, beraz, paperik ez erabiltzea.

INGURUMEN-INPAKTUA MURRIZTEA ESPEDIENTE HAUETAN:

- 2024/009/01 “Lorezaintza-zerbitzua Henaoko zentrorako”. Konposta eta lurzorua mediatuak Europar Batasuneko Etiketa Ekologikokoaren edo haren baliokideren baten konposizio-irizpide eta substantziekin bat etortzea baloratuko da, baita izurrien plan integralaren kalitatea ere,

bereziki ahalik eta produktu biozida edo fitosanitario gutxien erabiltzea edo zerbitzurako proposatutako automobilak edo ibilgailu komertzialak elektrikoak edo hibridoak izatea, entxufagarriak, ahalik eta zarata eta emisio gutxien sortzeko.

- 2024/063/01 “Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Madrilan dauden Mutualiaren (Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2. mutuaren) zentro guztietako garbiketa-zerbitzuen eta hondakinak gaika biltzeko zerbitzuen kontratua”. Kontratu horretan, gehien erabiltzen diren garbigarriak (erabilera anitzeko garbigarria, zorurako garbigarria eta komunerako garbigarria), komuneko paperak eta eskuak lehortzeko paperak l motako ekoetiketaren batekin (zisne zuria edo Europako etiketa ekologikoa) bat etortzea baloratzen da, produktuaren formulazioko osagai kimikoei dagokienez.
- 2024/056/01 “Osasun-laguntzaren onuradun diren pazienteen garraio ez-sanitarioko zerbitzuen kontratua”. Kontratu horretan, 10 puntu ematen dira kontratura egokitutako kalitate- eta ingurumen-plan bat izateagatik. Planean, alderdi hauek zehaztu behar dira: gainbegiratze- eta segimendu-sistematika, ikuskapenen edukia, kontrol-formularioak eta ingurumen-kudeaketarekin zerikusia duten

neurriak ezartzeko programa, Baldintza Teknikoen Agirian enpresei ingurumen-inpaktua murrizteko eskatutako jardura eta/edo neurriak barne.

- 2024/100/01 “Langileek, pazienteek eta baimendutako laguntzaileek egiten dituzten joan-etorri eta egonaldietarako kudeaketa- eta laguntza-zerbitzuen kontratua”. Kontratu horretan, enpresa lizitatzaileak proposatutako ingurumen-kudeaketako plana baloratzen da, zerbitzua ematean sortzen diren ingurumen-inpaktuak minimizatzen eta kontrolatzen laguntzen duen heinean. Alde horretatik, arreta berezia jartzen da CO2-aztarna neurtzeko programan eta emisioak murrizteko eta konpentsatzeko planean.

PLASTIKORIK EZ ERABILTZEA ESPEDIENTE HAUETAN:

- 22024/026/01 “Edalontzi jasangarrien hornidura”. Erabat berrerabilgarriak diren eta batere plastikorik ez duten edalontziak aurkeztu behar dira, nahitaez.
- 2024/052/01 “Osasun-langileentzako osasun-uniformeen errentamendua eta kudeaketa integrala, eta ingurumen-ikuspegia duten berokien hornidura”. Espediente

Energia eta uraren kontsumoa

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Elektrizitatea ¹	%59,86	%58,33	%-2,56
Gas naturaleko ¹	%26,86	%26,05	%-3,02
Biomasa ¹	%13,27	%15,63	%17,78
Ura M ³	8.864,46	8.472,94	%-4,42

[1] Energia-kontsumo osoaren gaineko %.

Energia-kontsumoa iturriaren arabera

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Elektrikako gigajouleak (berdea)	8.087,04	7.710,08	%-4,66
Gas naturaleko gigajouleak	3.601,69	3.442,75	%-4,41
Biomasa-gigajouleak	1.793,24	2.065,38	%15,18
Baterako sorkuntzako gigajouleak	27,5	62,73	%128,11
Guztira	13.509,47	13.280,94	-1,70%

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

horretan, jantziak biltzeko erabiltzen diren material guztiek ingurumena errespetatzea eta jasangarritasun-irizpideak betetzea baloratzen da.

- 2024/061/01 “Kirurgia irekirako klip (surgiclip) bidezko lotura-gailuen hornidura”. Bilgarria birziklatutako materialekin edo baso jasangarrietako materialekin egina izateak puntu bat balio du. Gutxienez % 90 paper edo plastiko birziklatuz egina izatea, edo gutxienez % 70 ustiapen jasangarriko basoetako edo birziklatutako materialekin sortutako paperez egina izatea.

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA ESPEDIENTE HAUTAN:

- 2024/005/01 “Ingurumen-inpaktu txikiagoko posta-zerbitzua Mutualiako zentroetarako”. Lizitatzailerik energia aurrezte eta ingurumen-inpaktua murriztea sustatzen duten planak ezarri dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dituzte; ibilgailu-flotari dagokionez, bereziki, ingurumen-bereizgarria (emisiorik ez, EKO eta C) duten ibilgailuen ehunekoa adierazi behar dute. Gainera, zerbitzua ematen duen langileak ibilgailuak modu ekologiko edo eraginkorrean gidatzeko trebakuntza jaso izana baloratzen da.
- 2024/010/01 “Mutualia errentako (renting) ibilgailu batez hornitzeko kontratua”. Kontratu horretan gai hauek baloratzen dira: flotaren ingurumen-kudeaketaren segimendua, flota osatzen duten ibilgailuen CO2-emisioen datuak Mutualiari jakinaraztea, ingurumen-arloko aholkularitza, CO2-emisioak neutralizatzeko ekintzak, kontsumo-ratioak optimizatzea, etab.
- 2024/058/01 “Mutualia erradiografiak egiteko gailu eramangarri batez hornitzea”. Ekipoaren energia- eta ingurumen-alderdiak baloratzen dira, hala nola energia gutxiago kontsumitzea, emisioen kontsumoa, ekipoaren kalifikazio energetikoa, obran sortutako hondakinak kudeatzeko plana, etab.

Mutualiak ekonomia zirkularraren inguruan kontzientziazten jarraitzen du, kontzeptu hori jarduera guztietan txertatuz, ahalik eta hondakin gutxien sortzeko eta ezinbestean sortzen direnak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

Paper, kartoi eta tonerren kontsumoa

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Paper- eta kartoi-kilogramoak ^b	7.410,26	7.317,79	%-1,25
Paper- eta kartoi-kilogramoak pertsonako ¹	11,525	11,33	%-1,71
Toner-kilogramoak ^b	792	704	%-11,11
Toner kilogramo pertsona bakoitzeko ¹	1,23	1,09	%-11,40

[1] Batez besteko plantilla kontuan hartuta (646)
[b] birziklatzea

Residuos

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Paper- eta kartoi-kilogramoak ^b	23.988,50	25.262,00	%5,31
Paper- eta kartoi-kilogramoak pertsonako ¹	37,3	39,1	%4,84
Toner-kilogramoak ^b	636	704	%10,69
Toner-kilogramoak pertsonako ¹	0,98	1,09	%11,20
Argiteria-kilogramoak ^{*b}	5,55	5	%-9,91
Argiteria-kilogramoak pertsonako ¹	0,008	0,008	%-3,25
Pila-kilogramoak ^{*b}	49,08	23	%-53,14
Pila2-kilogramoak pertsonako ¹	0,076	0,036	%-53,15
Plastiko-kilogramoak ^b	987	1701	%72,34
Plastiko-kilogramoak pertsonako ¹	1,53	2,63	%72,10
Kutsatutako biosanitario-kilogramoak ^{*e}	1.618,90	1.343,55	%-17,01
Kontsulta bakoitzean kutsatutako biosanitarioen kilogramoak ³	0,0084	0,007	%-17,15
Baztertutako sendagaien kilogramoak ^{*e}	203	192	%-5,42
Kontsulta bakoitzean baztertutako sendagaien kilogramoak ³	0,001	0,001	%-0,55

[1] Batez besteko plantilla kontuan hartuta (646)
[2] Mutuarian erabiltzen diren pilak, erabiltzaileek gure bilketa-puntuetan emandakoak
[3] Kontsultak. Lehenengoak, hurrengoak eta ebakuntza kirurgikoak (193.064 en 2024)
[*] Hondakin arriskutsua. [b] birziklatzea. [e] erraustea.

Mutualiako langileek gizartearekin duten inplikazioa

Mutualiak komunitatean eta ingurunean eragin positiboa duten ekintzak garatzen jarraitzen du, eta gizarte-arloan jasangarritasunarekin duen konpromisoa erakusten du. Aliantzak egin ditugu elkarte, administrazio eta erakundeekin, gure gizarte- eta ingurumen-konpromisoa betetzen duten ekintzak diseinatzeko eta ezartzeko.

Gizarte-kausekin dugun konpromisoa adierazten jarraitzeko, ezinbestekoa da gure talde iraunkorren bidez inguruarekin elkarrekintzan aritzea, sistematikoki. Elkarrekin, ekintza garrantzitsu eta positiboak identifikatzen eta diseinatzeko ditugu engaiatuta dauden interes-talde guztientzat. Ekintza horiek bat etorri behar dute gure politika, balio eta printzipio etikoekin.

Mutualiaren monetizazio soziala kalkulatu dugu berriro, eta xehetasunak memoria honetan daude. Gainera, gizarte-garapenari lagundu diogu, ekarpen ekonomikoen eta borondatezko jardueren bidez.

EIAS ETA BOLUNTALIA

Talde horiek ekimen solidarioen gainean informazioa ematen, sentsibilizatzen, eta borondatezko jarduerak proposatzen dituzte. Horretarako, osasuna, ongizatea, berdintasuna, aniztasuna eta abar hobetzen dituzten proiektu eta kanpainak aukeratzen dituzte, gure politika eta konpromiso publikoen arabera.

Elkarlana zabalkunde-kanpainen, diru-bilketen, dohaintzen eta boluntarioen bidez gauzatzen da, nagusiki. Alde horretatik, gure elkarte kolaboratzaileei laguntzen diegu eta haien esparruetan arrakalak murrizten ditugu.

Boluntariotzari dagokionez, jarduerak egonkorrak eta jarraituak dira. Mutuako

Entidades con las que Mutualia colaboró en 2024



pertsonek irabazi-asmorik gabeko erakundeek proiektuetan parte hartzeak aukera ematen digu proiektuak zuzenean ezagutzeko eta arlo ekonomikotik harago laguntzeko.

Parte-hartze horri esker, modu zuzenagoan eta bitartekaririk gabe jakin daiteke zer proiektu ematen duten mota horretako lankidetzarako aukera, eta premia-egoeran dauden pertsonei hainbat modutan laguntzea lortzen da, laguntza ekonomikora mugatu gabe.

Lankidetzak horiek gure aliantzak indartzen dituzte, eta hainbat erakunde, elkarte eta GGKEek aintzat har gaitzaten ahalbidetzen digute. Izan ere, biltzar, stand eta hitzaldietan parte hartzera gonbidatzen gaituzte, eta, hala, elkarrekin egiten dugun lana indartzen dugu.

Dohaintzan emandako kopuruak eta zenbatekoak

kontzeptu	Adierazlea
Ortesiak eta protesiak	89 ud.
Altzariak	24 ud.
Askotariko materiala	128 ud.
Liburuak	1.800 ud.
Arropa	25 Kg.
Jostailuak	
Elikagaiak	10.053 €
Valentziako DANA laguntza	
Gabonetako kanpaina	

Gizarteari itzulitako balioaren monetizazioa

Balio sozialaren monetizazioaren kontzeptuak garbi islatzen ditu Mutualiak gizartearekin duen konpromisoa eta hartan eragiten duen inpaktua. Metodologia horrek, zeina ekonomia sozialaren printzipioetan oinarritzen baita, erakundeak ingurune sozialean duen eragin biderkatzailea nabarmentzen du, jarduera ekonomikoarekin sortzen duen baino balio handiagoa sortzen baitu.



Mutualiak interes-taldeekin duen konpromiso irmoa du bereizgarri, eta, interes-taldeon artean, zeresan nabarmena dauka gizarteak. Konpromiso horren erakusgarri gisa, aipatzekoa da garapen ekonomikoa eta ongizatea sustatzen dituela Mutualiak, eta ez eskaintzen dituen zerbitzuekin bakarrik, baita bere jarduera ekonomikoaren bidez ere. Ekonomia integralaren ikuspegiarekin, Mutualia finantza-errendimendutik haratago doa, eta gizarteari ekarpen mamitsua egitea bilatzen du.

Mutualiak aitortzen du bere eginkizunak gainditu egiten dituela ohiko merkataritza-eragiketak, eta, horrenbestez, balio jasangarria sortzen ahalegintzen da, berarekin interakzioan jarduten duten kolektibo guztiei mesede egiteko.

Mutualiak 2018az geroztik zenbatesten du gizarteari ematen dion balioa. Eginahal horretan, GEAccounting etxearen lankidetzan du —irabazi-asmorik gabeko interes ekonomikoko kolektibo bat da, hainbat unibertsitatek eta erakundek osatua—. Ikuspegi horrek nabarmen zabaltzen duen ekonomia- eta finantza-azterketa, eta, hari esker, identifikatzen du dezakegu interes-taldeei eta, hedaduraz, gizarte osoari itzultzen zaien benetako balioa.

Hauek dira proiektuaren helburu nagusiak:

- Legitimazio soziala lortzea, Mutualiaren antolaketa-kulturak mutualistei eta, oro har, gizarteari ematen dien balio diferentziala bistaratzearen bidez.
- Mutualiak sortutako inpaktua neurtzea eta hobetzea, onura hori areagotuko duten ekintzak sustatzeko.
- Talentua erakartzea eta langileen artean harrotasuna sortzea, ondotxo baitakite zer-nolako ekarpena egiten dioten inguruneari beren eguneroko lanaren bidez.
- Mutualiaren jasangarritasunaren eta zerbitzuak hobetzeko etengabeko konpromisoaren berri ematea mutualistei.

EnFuntsean, balio sozialaren monetizazioa balio handiko tresna da ekonomia sozialean, eta erakusten du erakunde batek eragin positiboa izan dezakeela gizartean, bere jardun finantzariotik harago. Funtsezkoa da enpresa gehiagotara zabaltzea ikuspegi hori, haien inpaktu soziala kuantifikatzeko eta hobetzeko lan egin dezaten,

4. Gobernu Korporatiboaren sustapena. Herritarren Enpresa

hala ekonomia zuzen, inklusibo eta jasangarriago bat bultzatuko baita. Ahalegin horrek indartu egiten du balio jasangarria sortzeko Mutualiaren konpromisoa, eta, horretaz gainera, erakusten du gizarte-ekonomiaren barruko jardunbideek onura handia ekar diezaiaketela interes-talde guztiei, bai eta gizarte-ongizate orokorrari ere.

BALIOA SORTZEN ETA NEURTZEN DUEN EREDU BAT


Mutualiak garatutako ereduak aukera ematen du balio soziala objektiboki monetizatzeko, eta, hala, beste erakunde batzuen ereduarekin konpara daiteke. Interes-taldeek esanguratsutzat identifikatu dituzten balioetan zentratzen da Mutualiaren ereduak, eta erakundeak balio sozialtzat jotzen duen hori kuantifikatzeko helburua du.

Eskuineko eskemako hiru osagaien baturak “Balio sozial sendotua” osatzen du. Mutualiak gizarteari itzultzen dion ekarpen totala biltzen du adierazle horrek.

Interes-taldeen interesak aztertuta, Mutualiak sortzen duen balioaren aldagai garrantzitsuenetako batzuk zein diren ikus daiteke; besteak beste:

- Arintasuna prestazioen izapideetan eta ordainketan.

Gizarte Balio Kontsolidatua kalkulatzeko metodologiaren eskema



- Bizkortasuna proba medikoak egiteko.
- Pazienteak zentro propioetan ospitaleratzeko gaitasuna.
- Gertutasuna eta irisgarritasuna, zentro-sare zabal baten bidez.
- Arriskuen prebentzioari buruzko informazioa eta prestakuntza.
- Aholku juridikoa eta fiskala izapideetan.
- Komunikazio eleaniztuna kanal guztietan.
- Bizkortasun administratiboa webgunearen eta aplikazioaren bidez.
- Osasun-arloan eta arlo administratiboan lagun egitea.

- Tratu gertukoa, humanoa eta profesionala.
- Akordioak unitate espezializatuekin, asistentziaren kalitatea hobetzeko.
- Kalitate handiko osasun-instalazioak.
- Prestakuntza sanitario eta laboralerako prestakuntza-ikastgelak.
- Enplegu egonkorra sortzea.
- Lana eta bizitza pertsonala uztartzeko politikak aplikatzea.
- Osasun-aroko langile eta administrazio-arloko langileen eta teknikari eta zuzendarien etengabeko prestakuntza.

Gizarte Balioa kalkulatzea (eurotan)

	Gizartea	Bezeroak pazienteak eta hartzaileak	Enpresa bezeroak	AAPP	Mutualiako langileak	Hornitzai- leak	Enpresak atxiki
Merkatuko Gizarte Balioa	468.741.529	364.339.030	0	67.716.346	24.904.072	246.583	11.535.498
EZ Merkatuko Gizarte Balioa	152.327.801	147.575.004	144.240.752	147.076.242	5.717.942	0	0
A. Gizarte Balio Integratua	621.069.330	511.914.034	144.240.752	214.792.588	30.622.014	246.583	11.535.498
B. Diru-sarrera orokorrak	481.770.715						
(A/B) Balio Gizarte Erantsiaren Indizea	1,29						

1,29€

MUTUALIAK HARTZEN DUEN EURO BAKOITZEKO GIZARTEARI ITZULTZEN DION ZENBATEKOA.

Beste era batera esanda, 621,07 milioi euro itzuli dira gizartera. Merkatu-balio gisa, 468,74 milioi euro, mutuaren zuzeneko jardueratik eratorriak; eta 152,33 milioi euro ez-merkatuko balio gisa; 106,7 milioi euro, interes-taldeek nabarmendutako balioen monetizaziotik.

Horrekin guztiarekin, 2024ko ekitaldiko

datu itxiak erreferentziatzat hartuta datu horiek monetizatu ondoren, esan dezakegu Mutualiak gizarteari egiten dion balio-ekarpena 621,07 M € dela. Diru-sarrera globalekin (481,77 M €) zatituta, 1,22ko indizea ematen du; hau da, Mutualiak hartzen duen euro bakoitzeko, 1,29 € itzultzen ditu gizartera.

Interes-taldeekiko komunikazioa

2024an, jarraitu da Mutualiaren webgunea elikatzen, bai zerbitzuen atarian (183 albiste argitaratu dira guztira), bai korporazioari eta gardentasunari buruzko atarietan.

Mutualiaren “MutuaLEX” argitalpen digitalak, aholkularitza-zentro laguntzaileei, zerbitzu juridikoei eta enpresetako giza baliabideen arloei zuzendutakoak, hartzaile-kopurua handitu du, eta irekiera-tasa egonkor mantendu da, % 39 inguruan. “Mutualia i” hilabetekari digitalak hartzaile-kopurua eta irekiera-tasa handitu ditu, 2023an % 22,28 izatetik 2024an % 29,27 izatera igaro baita. Prebentzioko newsletterren kasuan ere, hobetu egin da interesdunen kopurua, eta 6.778ra iritsi dira; hala ere, irekiera-tasa % 34,8ra jaitsi da (% 39,1ekoa zen 2024an).

Sare sozialei eta haien erabilerari dagokienez, Linkedinek oso bilakaera ona izaten jarraitzen du. Mutualiarentzat lehentasunezkoa da sare sozial hori bere publikoekin komunikatzeko. 2024az geroztik, aurreko paragrafoan aipatutako eduki digitalak LinkedIn formatuan ere argitaratzen dira, eta horrek Mutualiaren jarraitzaileen interakzio-kopurua handitzea eragin du. Mutualian erabiltzen diren beste bi sare sozialak X eta Youtube dira. X sare sozialaren erabilera testigantza hutsezkoa eta mugatua da, eta hedabideen erreferentziazko sare soziala izaten jarraitzen duelako soilik erabiltzen da. Hala ere, Youtubek oso garrantzitsua izaten jarraitzen du dibulgazio-plataforma eta edukien gordailu gisa, eta asko ari da hazten harpidedunei, erakustaldiei eta bistaratze-kopuruari (2024an 125.257 izan ziren) dagokienez.

Bilakaera izan duen beste kanal bat podcastena da. 2023an abiatu genuen, eta 2024an bikoiztu egin ditu argitalpen-

Sare sozialak

Adierazlea		2023	2024	▲▼ %
X (Twitter)	Argitalpenak	947	822	%-13,20
	Jarraitzaileak	1.078	1.084	%0,56
Linkedin	Argitalpenak	539	488	%-9,46
	Jarraitzaileak	2.950	3.188	%8,07
Youtube	Argitaratutako bideoak	30	22	%-26,67
	Ikustaldiak	76.976	125.257	%62,72
Web ¹	Saio kopurua	217.482	152.950	%-29,67
	Orrialdeetako bisita kopurua	326.200	295.217	%-9,50

[1] Zerbitzuen WEB atariaren jarduera bakarrik

eta entzunaldi-kopurua; bestalde, lehen baino plataforma gehiagotan argitaratzen da.

Mutualiaren presentzia mediatikoa areagotu egin da 2024an, batez ere arrazoi batengatik: pandemia amaitu zenetik, absentismoa nabarmen igo da, eta, ondorioz, oso presente egon da hedabideen agenda-settingean. Bai zuzendaritza-gerentziak bai alor horretako Mutualiako adituek irrati eta telebistako hainbat elkarrizketatan parte hartu dute, eta beren ezagutzaren eta esperientziaren berri eman dute erakundeetako absentzien kudeaketari dagokionez.

Mutualiak bere interes-taldeekin duen komunikazioan jorratu duen beste gai garrantzitsu bat enpresetan aniztasuna eta inklusioa lantzea izan da, Dibertsitate Batzordeak ezarria baitzuen 2024an

gai hori jorratuko zela bereziki, eta horren adierazgarri nagusia maiatzaren 21ean antolatutako ekitaldia izan zen: “Aniztasuna enpresetan. Erronkak eta aukerak”.

2024an, 2023ko ekitaldiari dagokion jasangarritasun-memoria argitaratu zen; AENOR erakundeak kanpo-egiaztapena egin zion, eta maila sakona lortu du.

2024an, Mutualiak lanean jarraitu du berarekin harremanetan dagoen publikoaren hizkuntza-eskubideak bermatzeko. Helburua ez da mugatzen erakunde gisa berdintasun linguistikoa lortzera indibidualki. Izan ere, beste erakunde batzuekin batera lan egin nahi da, helburua kolektiboa izateko eta esparru horretan hain aurreratuta ez dauden beste erakunde batzuei baliagarriak izango zaizkien sinergiak aprobetxatzeko.

Pertsonen konpromisoa indartzea



5. Pertsonen konpromisoa indartzea


Adierazle garrantzitsuak

646

BATEZ BESTEKO LANGILE-KOPURUA

645

LANGILEAK, 2024KO ABENDUAREN 31N



5. Pertsonen konpromisoa indartzea

2021-2025 aldirako Plan Estrategikoa indarrean den laugarren urtean, aurrera egin da langileen konpromisoa sendotzeko ildo estrategikoari lotutako proiektuetan, zeina erakundearen kudeaketako funtsezko elementuetako bat izan baita. 2024an, Mutualiak zenbait proiektu sendotu ditu; besteak beste, Dibertsitate Plana eta Berdintasun Plana eta Boga proiektua (eraldaketa kulturala indartuko duten ekintzak abiarazi	dira lantaldeen gaitasunak garatzeko programen bidez); eta, gainera, plan berri batzuk abiarazi ditu, hala nola Absentziak Kudeatzeko Plana. Berdintasunaren eta kontziliazioaren arloko egiaztapenak eta ziurtagiriak berritzeari dagokionez, 2024an, EFRn lortu genuen B+ maila mantendu dugu, eta nabarmentzekoa da egindako aurrerapena eta hurrengo berritzean	A bikaintasun-maila lortzeko egiten ari garen bidea (AENOREk EFR 1000-1 Ed-5 arauari jarraituz emandako ziurtagiria); halaber, Enpresako Berdintasun Bereizgarria (DIE) berritu dugu. Mutualiak 2024an egin duen langileen kudeaketari buruzko adierazle eta datu esanguratsuak jasotzen dira datozen orrietan.
---	--	--

Adierazlea	Guztira	Kokapena		Generoa		Adina		
		EAE	Gainerakoak	Gizonak	Emakumeak	<30	30 - 50	>50
Langile-kopuru totala (abenduarien 31ko datuak)	645	636	9	173	472	62	324	259
Kontratu finkoa duten langileen kopurua	596	588	8	157	439	29	311	256
Aldi baterako kontratua duten langileen kopurua	49	48	1	16	33	33	13	3
Bermatu gabeko orduen arabeko langileen kopurua	0	0	0	0	0	0	0	0
Lanaldi osoko langileen kopurua	608	600	8	159	449	51	319	238
Lanaldi partzialeko langileen kopurua	37	36	1	14	23	11	5	21
Langile-txandakatzea	4	4	0	1	3	1	2	1

Mutualiak, aplikatu beharreko araudiaren esparruan eta bere mugak gorabehera, kalitatezko enplegu egonkorra sortzearen alde egiten du, eta talentua erakartzea eta fidelizatzea ditu helburu. Kontratazioari dagokionez, 2024an, behin-behinekotasunaren tasa % 7,6koa izan da (2023an baino puntu bat handiagoa), aldi baterako ezintasunen, murrizketen eta lanpostua gordeta hartutako borondatezko eszedentzien ondorioz. Halaber, plantilla 645 langilekoa izatera iritsi da, 2023an baino % 2,4 gehiago; asistentziaren alorreko langileen igoerak ekarri du gorakada hori.	Plantillaren egonkortasun-tasak oso altua izaten jarraitzen du (% 99,38), eta % 0,62ko errotazio-indizea erregistratu da (2023an % 1,27koa izan zen). Hor kontuan hartzen dira kaleratzeak eta borondatezko bajak, baina ez eszedentziak, eta, 2022tik aurrera, kontratu mugagabea duten pertsonenak bakarrik hartzen dira aintzat). 2024ko bajezi ari garela, % 75 emakumezkoenak izan dira eta % 25 gizonezkoenak 2024ko absentzia-indize totala % 7,05ekoa izan da; 2023koa (% 6,66) baino handiagoa izan da, eta goranzko	joera mantendu da. Hori dela eta, Absentziak Kudeatzeko programa jarri da martxan: erakundeko absentzia-mota desberdinetarako prozedura eta neurri zehatzak ezartzen dituen ekintza-plan bat landu da, eta langile bakoitzaren absentziak haren lanpostuan, haren lantaldean eta bezeroengan duen inpaktua azpimarratu da.
---	--	--

5. Pertsonen konpromisoa indartzea

ORDAINSARIAK

Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen eta aseguru- eta berraseguru-erakundeen estatuko hitzarmen kolektibo orokorra dagokie Mutualiako langileei. Horri esker, oinarritzko kontzeptuetan gizonen eta emakumeen artean soldata-arrakalarik ez izatea bermatzen da.

Hala ere, hitzarmeneko oinarritzko soldatak % 5eko murrizketa dauka 2010etik, Mutualiaren jarduera estatuko sektore publikoan txertatu zenetik eta Estatuko Aurrekontu Orokorraren legeetan sektore publikorako lege ezarritako aurrekontu-mugak aplikatu ondoren. 2024an, ekitaldiari zegozkion soldata-igoerak aplikatu ziren (% 2), eta aplikatzeke geratu zen ekitaldiaren itxierako KPIari lotutako % 0,5 gehigarria.

Soldataren izozketak eta Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legean ezarritako soldata-masen baimenei lotutako

soldaten mugek areagotu egin dute osasun-langileek osasun-zerbitzu publikoko langileekin zuten soldata-arrakala. Hala, erakundearentzat zailagoa da profil kritiko horietako talentua erakarri eta mantentzea. Horregatik, ordainsari-sistema lehiakor bat eta karrera profesionaleko sistema bat ezartzea funtsezko proiektuetako bat da Mutualiarentzat; sistema horiek diseinatzeko lehenengo urrats gisa, estatuko osasun-sektoreko soldaten azterketa konparatibo bat egin da.

Mutualiako batez besteko soldataren aldean, gehieneko soldataren ratioa 3,30 da (legez araututako parte aldakorra barne hartuz gero, 4,12 da). Gehieneko soldataren ratioa gutxieneko soldataren aldean 4,89 da Mutualiako langileen artean (legez araututako parte aldakorra barne hartuz gero, 6,11 da).


Oinarritzko soldata berdina da gizonen eta emakumeen artean (oinarritzko soldata,

bermatua, esperientziagatiko osagarria eta plusak).

902/2020 Errege Dekretua aplikatuz, erakundeko ordainsari-erregistroa egiten da, eta langileen ordezkariak igortzen zaie. Erregistro hori egiteko, Berdintasun Ministerioaren ordainsari-erregistroko tresna erabiltzen da, eta % 25eko eta hortik gorako soldata-diferentziarik badago, azterketa bat ere bidaltzen da erregistroarekin batera; kontuan hartzen dira soldata globalak eta talde eta mailen arabeko soldatak, eta barne hartzen dira soldatako eta soldataz kanpoko kontzeptu guztiak.

Soldata-arrakalaren azterketan ondorioztatzen denez, 2024ko soldata globalan ez dago % 25eko diferentziarik, ez batezbestekoetan, ez egiazko ordainsariko medianetan, ez ordainsari parekatuan. Ikusten denez, azken hiru urteetan jaitsi egin da ordainsari parekatua, % 24tik % 20ra igaro baita.

Soldata-arrakalaren bilakaera



5. Pertsonen konpromisoa indartzea

IGUALDAD Y CONCILIACIÓN

2024ko ekitaldian 432 kontziliazio-neurri onetsi dira, eta horietatik 337 (% 78) emakumeek baliatu dituzte. Agerian geratzen da emakumeek jarraitzen dutela oraindik ere horrelako neurriak hartzen, plantillan duten presentzia baino ehuneko handiagoan, gainera (2024/12/31n % 73,18 ziren emakumeak). Neurri horien artean ageri dira:

- 37 pertsonak lanaldi-murrizketa metatua hartu dute (oporraldietan edo urteko egun zehatzetan, edo beste egun batzuetan); horietatik % 94 emakumeak dira, 2023an baino % 117 gehiago.
- 2024an, 49 lagunek (46 emakumek eta 3 gizonak) hartu dituzte soldatarik gabeko baimenak adingabeak, adineko pertsonak edo mendekotasuna duten senitartekoak zaintzeko, bai eta helburu bererako eszedentziak ere (urteko lehen 31 egunei dagozkien oporretako deskontua ez aplikatzearen hobekuntza barne). 2023an handiagoa izan zen kopurua, guztira 56 pertsonak (51 emakume eta 5 gizon) hartu baitzituzten baimen horiek. Baliteke 2024an 8 asteko guraso-baimena erabili izanak (adingabeak 8 urte bete arte) eragitea jaitsiera hori; Langileen Estatutuaren 48bis artikuluan arautzen da baimen hori, eta 13 pertsonak erabili dute guztira (11 emakumek eta 2 gizonak). 8 asteko guraso-baimen horretan, Mutualan ez dira deskontatu dagozkion opor-egunak.
- Lanaldi-egokitzapenak, lanaldi-murrizketen ondoriozkoak nahiz bestelakoak, 74 izan dira (65 emakumeenak eta 9 gizonenak). 2023an 50 izan ziren (40 emakumeenak eta 10 gizonenak). Horrek esan nahi du egokitzapenok % 117 areagotu direla.
- 2023arekin konparatuta, ordutegi-malgutasunak, antolakuntzakoak eta sailetakoak, % 4,1 handitu dira 2024an; horien barruan sartzen dira arlo korporatiboko pertsonak, baita erregistratutako egokitzapen eta malgutasunak ere.
- Erretiro partziala hartuta dauden pertsonen aukera eman zaie urtean lan egin beharreko orduak metatzeko; 2024an 11 pertsona aritu dira egoera horretan, eta haien % 100ek baliatu dute neurri hori.

Telelanari dagokionez, Mutualan

Lanbide-kategoriaren banaketa, generoaren eta adinaren arabera, ehunekotan

Kategoria ¹	Generoa		Adina		
	Gizonak	Emakumeak	<30	30 - 50	>50
G0N0	66,7	33,3	0	33,3	66,7
GIN1	58,3	41,7	0	12,5	87,5
GIN2	41,5	58,5	0	38,46	61,54
GIN3	36,6	63,4	2,81	38,03	59,16
G2N4	22,4	77,6	8,98	60,82	30,2
G2N5	21,7	78,3	13,04	46,38	40,58
G2N6	19,9	80,1	16,47	50,81	32,72
G3N7	0	100	0	0	100
G3N8	100	0	0	100	0

[1]Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten aseguru, berraseguru eta mutualitateen sektorerako estatu mailako hitzarmen kolektibo orokorrari dagozkion taldeen eta mailen sailkapena.

ezarritako esparru-akordioa luzatzeko eskatu zen 2024an; 2025eko martxoan, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren komunikazio bat jaso zen, zeinaren bidez Ogasun Ministerioi Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzaren 2025eko martxoaren 3ko Ebazpenaren berri eman baitzen: oro har aldeko iritzia ematen zuen besteak beste gai horren negoziazio kolektiboari dagokionez. 2024an, 117 pertsonak egin dute telelana, eta batez beste lanaldiaren % 42,22 egin dute modalitate horretan. Lan-modalitate horren gogobetetasun-maila altua da (8,8 hamarretik) 2024ko inkestan parte hartu zuten eta modalitate horretan aritu ziren pertsonen artean.

Gainera, Masfamilia Fundazioak sustatutako Telelanaren Gutuna ekimenera atxikita jarraitzen du Mutualiak. Telelanaren Gutuna erakunde

profesionalek borondatez sinatzen duten konpromiso bat da, edozein dela ere haien tamaina eta jarduna, honako hauek sustatzeko:

- Malgutasunaren eta Telelanaren kultura.
- Ingurumenarekiko errespetua, bereziki klima-aldaketaren ondorioak murrizteko.
- Aniztasuna eta inklusioa errespetatzea.
- Hirietako mugikortasuna hobetzea.
- Lanerako lehiakortasun eta produktibitate handiagoa ematea.
- Norberaren bizitza, familia eta lana uztartzen laguntzea.

Hauek dira sinatzeko baldintzak: telelangileak % 50 izatea (telelana egin

5. Pertsonen konpromisoa indartzea

dezaketen lanpostuen artean) eta lanaldiaren % 30 edo gehiago egitea telelan-modalitatean. 2024an, Mutualiako plantillaren % 52 ari zen urrutiko lanean (telelana egin zezaketen lanpostuetan ari ziren pertsonak kontuan harturik), eta batez beste lanaldiaren % 42 egiten zuten modalitate horretan (kontuan harturik lanaldiaren % 30etik behera eta ehuneko

horretatik gora telelanean dihardutenak).

Orotara 117 lagunek ziharduten telelanean 2024/12/31n; haietatik 92 emakumeak ziren (% 78,6), eta 25, berriz, gizonak (% 21,4). Telelanean ari ziren pertsonen portzentajeari dagokionez —horretarako aukera duten lanpostuetan dauden pertsona-kopurua aintzakotzat hartuta—,

% 60,1ekoa zen emakumeetan eta % 34,7koa gizonetan. Telelanean eginiko lanaldiaren batezbestekoari dagokionez, emakumeek lanaldiaren % 42,8 egiten dute modalitate horretan batez beste, eta gizonek, aldiz, % 40.

Bateragarritasun-neurriak

Adierazlea	2023			2024		
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Lanaldi-murrizketak	46	3	49	51	2	53
Lanaldi-murrizketak + murrizketa metatzea	14	3	17	14	2	16
Soldatarik gabeko eszedentziak eta baimenak	80	14	94	76	10	86
Edoskitzaroa metatzea	11	5	16	12	1	13
Lantokia aldatzea eta etxera hurbiltzea	1	0	1	1	0	1
Antolaketa-malgutasuneko neurriak (ordutegi-malgutasuna, nahierara lan egitea, etab.)	189	79	268	197	82	279
Guztira	341	104	445	337	95	432

ONURA SOZIALAK

Mutualian, enpresa-hitzarmenen bidez, urtean 28 lanordu murrizten dira dagokion hitzarmenaren aldean. Hala, urteko lanaldia 1.662 ordu da.

Hitzarmen horien ondorioz, Mutualiako langileek onura sozial batzuk dituzte, eta horrek ordainsari hobeak ekartzen dizkie. Alderdi horri 6,44 puntu eman zizkioten (10etik) azken gogobetetze-inkestan, 2023an.

Adierazlea	2024
Eskolako laguntzak ¹	Hautzaindegi eta ikasketetarako bekak eta laguntzak.
Ikasketak ²	Matrikulen % 100era arteko eta langile finkoen (14 pertsona) ikasketa-tasen % 50era arteko ordainketa.
Osasun-asegurua ²	Osasun-aseguruaaren kuoten ordainketa.
Ezkontzagaritako eta jaiotzagaritako saria ²	Jaiotza edo adopzioagaritako laguntza ekonomikoak eta aparteko hilabete bat kobratzea ezkontzeagatik/izatezko bikotea izateagatik/bizikidetzagatik.
Desgaitasuna dutenentzako laguntza ²	Mutualiako pertsonentzako laguntza ekonomikoa (minusbaliotasuna=> % 33)
Osasun-laguntza	Laguntza mediko kirurgikoa eta errehabilitazioa instalazioetan, langilearentzat eta bere familia-unitatearentzat.
Lizentziak eta baimenak	Beste hiru egun ezkontzeagatik edo izatezko bikotea izateagatik. Beste egun bat seme-alaben jaiotzagarit, bigarren gradura arteko ahaideen heriotzagarit edo gaixotasunagatik. 3 hilabete arteko baimen ordaindu gabea. Urtebeteko eszedentzia, lanpostua gordeta. Lanpostua gordetzea hiru urtez, seme-alabak zaintzeko eszedentzietan.
Bizi- eta istripu-asegurua	69.000 euro arteko estaldura duen bizi-asegurua.
Maileguak ²	Maileguak zero interes-tasan etxebizitza erosteko/birgaitzeko.

[1]Behin-behineko pertsonak hiru urtetik beherako seme-alabentzako laguntza baino ez dute
[2] Langile finkoak bakarrik

5. Pertsonen konpromisoa indartzea

PRESTAKUNTZA

Ezagutzaren kudeaketa funtsezko mekanismoa da proiektu estrategikoak hedatzeari eta garatzeari dagokienez, eta haren bilakaerak lotura estua du teknologiaren garapenarekin. Horregatik, Mutualiako langileek prestakuntzara eta jakintzara duten irispidea aldatuz joan da, eta eredu presentziala beste batzuekin konbinatu da, hala nola e-learningarekin, bideokonferentziekin, talde fokalekin, saioekin eta beste ingurune batzuetan sortu diren beste dinamika batzuekin.

2024an, aurrez aurreko edukiak garatzea sustatu da, eta ondoren online eskuragarri jartzea; ildo horretan, aurrez aurreko jardunaldiak izan dira erizaintzat eta erizaintzako zainketa osagarrietako teknikarientzat, eta nabarmentzekoak dira talde estrukturalak eginikoak (OLPB, Pazienteen Segurtasuna, Berrikuntza Batzordea, Berdintasun Batzordea, Dibertsitate Batzordea, eta, oro har, estrategiarako eduki garrantzitsuak dituzten beste arlo batzuk).

Ezagutza hainbat mekanismoren bidez garatzen da Mutualan, hala nola lantaldeen, saio klinikoen, saileko saioen eta simulazio-ikaskelen bidez eta kanpoko jardunaldietan eta biltzarretan parte hartuta. Gainera, ildo estrategikoekin eta definitutako proiektuekin bat datorren trebakuntza-plana dauka erakundeak.

2024an, pixka bat gora egin dute prestakuntzari lotutako adierazle batzuek. Zehazki, 21.821 prestakuntza-ordu egin dira

(18.022 egin ziren 2023an), eta horietatik % 62,59 emakumeek gauzatu dituzte; gizonek, berriz, % 37,41. Jaitsiera txiki bat erregistratu da 2023arekin alderatuta, urte hartan emakumeek orduen % 73 egin baitzituzten.

2024an, pertsonako prestakuntza 33,83 ordukoa izan da batez beste; hau da, aurreko urtean baino % 12,5 gehiago. Gizonek 57,9 ordu eta emakumeek 34,06 ordu egin dituzte.

Zehazki, onlineko prestakuntza ia berdind mantendu da, eta 64 saio egin dira (2023an 66 egin ziren); iraupen apur bat laburragoa izan dute, 2024an 3.847 ordu egin baitira (2023an, aldiz, 4.486).

Asistentzia-kalitatean duen eraginagatik garrantzitsutzat jotzen dela kontuan izanda, Irakaskuntza, Prestakuntza eta Ikerketa Asistentzialeko Batzordeak Mutualiako pertsonen ekarpena mantentzea lortu du, eta horrek kanpo-inpaktua izan du erakundearentzat, aurkeztu dituen ahozko komunikazioen eta posterren kopurua ikusirik (50 izan ziren 2024an, eta 2023an, berriz, 54), eta aintzat hartuta, orobat, gure erakundearen prestatu diren zentro akademikoetako ikasle-kopurua (297 lagun trebatu ziren gurean 2024an, eta 2023an, berriz, 306).

Neurri horien artean aipa daiteke lanaldia ehuneko horren gainetik dagoela.

Orotara 117 lagunek ziharduten telelanean

2024/12/31n; haietatik 92 emakumeak ziren (% 78,6), eta 25, berriz, gizonak (% 21,4). Telelanean ari ziren pertsonen portzentajeari dagokionez —horretarako aukera duten lanpostuetan dauden pertsona-kopurua aintzakotzat hartuta—, % 60,1ekoa zen emakumeetan eta % 34,7koa gizonetan. Telelanean eginiko lanaldiaren batezbestekoari dagokionez, emakumeek lanaldiaren % 42,8 egiten dute modalitate horretan batez beste, eta gizonek, aldiz, % 40.

Batez besteko prestakuntza-orduak, lanbide-kategoriaren arabera

Kategoria	Orduen batez-bestekoa
G0N0	46,5
GIN1	99,38
GIN2	49,96
GIN3	42,17
G2N4	41,44
G2N5	9,36
G2N6	13,54
G3N7	0
G3N8	6



5. Pertsonen konpromisoa indartzea

BOGA PROIEKTUA

Borondatez edo erakundean duten erantzukizunagatik balioen arabera jardun eta zuzendu behar duten pertsonen hazkunderako eta garapenerako gune bat da Boga Hona zein diren Boga proiektuaren helburuak:

- Plantillan ahalik eta lider gehien izatea; horretarako, haien hazkundera bultzatuko da, eta lider berriak sortuko dituzten giroa eta kultura erraztuko dira. Erakundeko pertsona guztiei emango zaizkie aukerak.
- Mutualian lideratzeko modua adostu eta homogeneizatzea. Erakundeak duen lider kontzeptuaren eta balioei egokituko zaie.
- Mutualiako lanpostu erabakigarrietan epe ertaineko edo luzeko liderrak izatea.
- Mutualiako langile guztien ibilbide profesional eta pertsonala erakargarri eta aberasgarriagoa izateko aukera ematea.

2024ko ekitaldian, 211 lagunek parte hartu dute Boga proiektuan, eta 2023ko kopurari eutsi zaio. Urte barruan lan egin duten pertsonen batezbestekoaren % 35,25 izan da.

Espazioa bogalari-taldeetan oinarrituta antolatzen da, erakundean duten lidergo-posizioaren arabera, eta kolektibo bakoitzari prestakuntza-espazioak sortu zaizkio. 2024an, zehazki, jardunaldi, tailer eta Elkar Ezagutu ekimen hauek egin dira:

- Gobernantza
- Pertsonen kudeaketa: Lizentziak eta baimenak
- Batzorde Betearazlea
- Gatazken kudeaketa
- Dibertsitatearen integrazioa: Auticon enpresarekin izandako esperientzia
- Absentzien kudeaketa
- Doluaren kudeaketa

Era berean, lidergo-gaitasunen garapenean aurrera egiteko, aurrera jarraitu da bi talde erabakigarriekin:

- Erizaintzako Ikuskatzaileen Zuzendaritza Taldeari laguntzea: dinamikak hedatu dira zerbitzu-taldeekin (Kontingentzia Arrunta, Ercilla Klinikako Ospitalizazioa, Pakea Klinikako Larrialdiak eta Ospitalizazioa).
- Lidergoaren inguruko Ekinbarri

proiektua bi unitatetan: Zuzendaritza Korporatiboan sendotu egin da (Mutualiako zuzendaritzako 8 arduradunek baliatu dute) eta hasi egin da Mutualiako Fisioterapia-ikuskatzaileen lantaldean.

- Halaber, Eusko Jaurlaritzak sustatutako eta Fabrikak zuzendutako pertsonen kudeaketaren berrikuntzaren inguruko proiektu pilotuan parte hartu dute kudeaketaren jarraipeneko lantaldeak, Ercilla eta Pakea klinikek, Mutualistaren Arretarako lantaldeak eta lantalde ekonomiko-finantzarioak, alderdi korporatiboari dagokionez.

Bestalde, balioak ebaluatzen hasiak gara, eta dagoeneko B4 (erdi-mailako arduradunak), B3 (taldeen koordinatzaileak) eta B2 (taldeetako partaideak) mailak landu ditugu. Prozesu horri esker, neurtu ahal izango dugu Bogan diharduten pertsonak zenbateraino dauden egokituta atal eta profil profesional bakoitzeko pertsonak (arlo sanitarioaren kasuan) definitu zituzten balioetara eta balio bakoitzari lotutako jokabideetara.

SEGURIDAD, SALUD Y BIENESTAR EN EL TRABAJO

Ezbehar-kopuruari buruzko adierazleak

Adierazlea	2023	2024
Lan-istripuen kopurua (lanaldian eta bajarekin)	5	5
Baja duten in itinere istripuak	4	5
Baja-egunak (guztira, in itinerekoak barne direla)	263	492
Ikertutako gertaeren kopurua	64	69
Maiztasun-indizea, bajarekin	5,02	4,94
Baja eragin duten gertaeren indizea	8,34	8,21
Larritasun-indizea, bajarekin	0,17	0,21
Gertakarien indize totala, bajarekin eta bajarik gabe	46,71	62,43
Ilaren ondorioz galdutako lanegunak, guztira	91	67
In itinere gertakariaren ondorioz galdutako lanegunek kopurua	98	280

Adierazleak, generoaren eta eskualdearen arabera

Adierazlea	2023		2024	
Generoaren arabera:	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Lesioak eragin dituzten istripuak	81,19	30,86	65,68	80,92
Baja eragin duten gertakariak	10,68	0	8,47	5,78
Gertakarien totala, bajarekin eta bajarik gabe	81,19	30,86	65,68	80,92
Eskualdearen arabera:	EAE	Gaierakoak	EAE	Gaierakoak
Lesioak eragin dituzten istripuen (bajarekin) indizea	14,22	0	28,66	0
Gertakarien indize totala, bajarekin eta bajarik gabe	111,68	0	97,66	0

Barneko komunikazioa

Mutualiaren kultura korporatiboa ez litzateke gauza bera izango barne-komunikazioko estrategiarik gabe, langile guztien parte-hartzea, gogobetetzea eta partaide izatearen harrotasuna bultzatzen baititu.

Idea horrekin eta langileak eta zentroak eremu geografiko mugatu batean daudenez, komunikazio zuzen eta pertsonala lehenesten da. Hala, barne-komunikazioko bilerak egiten dira hileroko. Bilerak horietan, kudeaketaren segimenduko bileretan lantzen den informazio guztiaren berri ematen diete arduradunek beren taldeei. Komunikazio-kanal hori da Mutualian gehien baloratzen dena (Mutualiaren barne-komunikazioari buruz 2018an egindako inkesta baten arabera). Aldizkako komunikazio horietan, komunikazioa bi noranzkoko izatea bultzatzen da, eta enpresaren emaitzei eta egoerari buruzko informazioa emateko tresna hutsa baino gehiago dira. Bilerak horien edukia eta agenda Komunikazio Sailak diseinatu du, eta pertsonen parte-hartzea eta haien irismena neurtzen dira.

2024an, komunikazioak aurreko urtean bezalatsu jarraitzen du, baina jokabidea desberdina da, arloen arabera. Hala, hileroko zuzeneko komunikazioa jasotzen duten administrazio-arloko pertsonen kopurua % 89,55 ingurukoa da, eta ia %

Barne-komunikazio zuzena jasotzen duten pertsonen %

	2023	2024
Administrazio-arloko pertsonak	%82,70	%89,55
Osasun-arloko pertsonak	%70,80	%62,99
Pertsonak guztira	%75,09	%72,30

82,70 ziren. Aldiz, arlo sanitarioan murriztu egin da, 2023ko % 70,80tik % 62,99ra igaro baita 2024an.

2024an beste urrats bat ere egin da, eta, adierazitako irismen-adierazleak neurtzeaz gainera, aurrerapenak egin dira komunikazioaren eraginkortasuna neurtzen. Azterketa hori gamifikazioaren bidez egin da, “Saber y ganar” izeneko lehiaketaren bidez. Joko horretan, hileroko zuzeneko komunikazio-bileretan landutako gaiekin zerikusia zuten galdetegiak egin ziren hileroko. 12 hilabetez, plantillaren % 50 inguruk hartu du parte, eta 70 bat lagunek gainditu dute azken erronka.

Barne-komunikazioko bestelako kanalei dagokienez, 2024an areagotu egin da Elkargune barne-atari korporatiboaren erabilera. Atari horretan 153 albiste

hartu dira, albiste korporatiboak eta taldeek beren txokoetan argitaratzen dituzten albisteak batuta; 2023an, 132 albiste argitaratu ziren. Ekipoek, arloek eta batzordeek argitalpen gehiago egiteko helburua ezarri zen 2022an, eta, testuinguru horretan, 2023an 22 albiste argitaratu ziren, eta 2024an 76. Albisteak bistaratzen dituzten pertsonen datuek ere gora egin dute: 2023an, 243,9 izan ziren; eta, 2024an, 304,7.

Bestalde, barneko komunikazio-kanal gisa erabiltzen dira Viva Engage (Yammer) sare soziala eta Teams tresna kolaboratiboak. Elkargune atarian eta Microsoft 365 ingurunean txertatzen dira, eta parte hartzeko aukera eskaintzen diete langileei.



Berrikuntza zerbitzuetan



Babestutako pertsonak

3. ildo estrategikoaren erronka da “mutua arin eta abangoardista izatea zerbitzuak eskaintzeko prozesuan berrikuntza txertatzeari dagokionez”. Baina Mutualiak zer kolektibori eskaini behar dizkie zerbitzuak?

Pertsona babestuak. Batez besteko afiliazioa Kontingentzia Profesionalean (KP)

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Norbere kontura KP	50.713	50.587	%-0,25
Besteren kontura KP	380.348	393.919	%3,57
Guztira KP	431.061	444.506	%3,12

Pertsona babestuak. Batez besteko afiliazioa Kontingentzia Arruntean (KA)

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Norbere kontura KA	50.886	50.770	%-0,23
Besteren kontura KA	191.311	184.922	%-3,34
Guztira KA	242.197	235.693	%-2,69

Mutualiak, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua gisa, zerbitzu sanitario eta ekonomikoak eskaintzen ditu eta prebentzio-jarduerak egiten ditu berekin elkartutako enpresentzat eta mutuara atxikitako besteren konturako langileentzat eta Langile Autonomoen Araubide Orokorrera atxikitako langileentzat (norbere kontura dihardutenak).

Mutualiak babesten duen kolektibo osoak du kontingentzia profesionalerako babesa. Hala ere, % 53k baino ez dute kontingentzia arrunta Mutualiarekin babestua; kasu horretan, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak (GSIN) estaltzen du kontingentzia hori.

Mutualiak babesten duen kolektiboaren % 94,54 Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) dago. Batez besteko biztanleria afiliatua osatzen duten 444.506 pertsonetatik 420.235 Euskal Autonomia Erkidegoan daude eta 20.270 Estatuko gainerako erkidegoetan.

444.506

MUTUALIAK BABESTUTAKO LANGILEAK
GUZTIRA

28.257

MUTUALIARI ELKARTUTAKO ENPRESEN
KOPURUA

420.235

MUTUALIAK EAEN BABESTUTAKO
LANGILEAK

%46,23

MUTUALIAK BABESTUTAKO EAEKO
LANGILEEN EHUNEKOA

Osasun-jarduera

2024an, osasun-jarduera orokorrak % 1,57ko hazkundera izan du aurreko ekitaldiaren aldean: 2023an 373.996 osasun-jarduera egin ziren, eta 2024an, 379.864. Osasun-jarduera indibidualizatuari dagokionez, azken urteetako joerari jarraituz, nabarmena da proba diagnostikoen eta fisioterapia-saioen igoera (% 3,47 eta % 3,57, hurrenez hurren).

Osasun-jarduera orokorra

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Lehenengo kontsultak	58.459	57.803	%-1,12
Hurrengo kontsultak	133.513	133.777	%0,20
Ebakuntza kirurgikoak	1.614	1.484	%-8,05
Proba diagnostikoak	58.464	60.495	%3,47
Fisioterapia-saioak	121.946	126.305	%3,57
Guztira	373.996	379.864	%1,57

Osasun-jarduera (KP)

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Lehenengo kontsultak	45.456	45.355	%-0,22
Hurrengo kontsultak	118.050	119.254	%1,02
Ebakuntza kirurgikoak	1.601	1.471	%-8,12
Proba diagnostikoak	57.152	59.402	%3,94
Fisioterapia-saioak	120.723	125.312	%3,80
Guztira	342.982	350.794	%2,28

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Taula honetan, datu hauek jasotzen dira: kontingentzia profesionaleko diagnostiko ohikoenak, diagnostiko bakoitzaren ehunekoa kasu guztien aldean, indemnizatutako egunekiko ehunekoa —hau da, baja-egoera baten ondoriozko prestazio bat zenbat egunez ordaintzen den— eta, azkenik, diagnostiko bakoitzeko batez besteko baja-egunak.

Diagnostikoen taula, kalte-ordaina jaso duten egunak eta batez besteko iraupena

Adierazlea	% kasu guztiekiko		Kalte-ordaina jaso duten egunen %		Batez besteko iraupena (egunak)	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
Mina bizkarraren behealdean	%7,81	%6,25	%4,11	%2,91	20,85	19,66
Muskulu-kontraktura, beste kokapen bat	%3,89	%4,20	%1,32	%1,35	13,47	13,53
Zehaztu gabeko zauri irekia beste eskuko hatz batean, azazkala kaltetu gabe, hasierako kontaktua	%4,04	%4,13	%2,11	%2,09	20,68	21,41
Bizkarrezur-zerbikaleko lotailuetako bihurritua, hasierako kontaktua	%2,91	%2,53	%2,66	%2,29	36,22	38,16
Zerbikalgia	%1,92	%2,16	%1,65	%1,49	34,08	29,12
Eskuin orkatilako lokailu kalkaneoperoneoko bihurritua, hasierako kontaktua	%1,32	%1,66	%0,68	%1,22	20,35	31,06
Ezker orkatilako lokailu kalkaneoperoneoko bihurritua, hasierako kontaktua	%1,69	%1,54	%1,40	%1,06	32,80	28,96
Eskuineko orkatilako lotailu zehaztu gabeko bihurritzea, hasierako kontaktua	%1,59	%1,53	%1,32	%1,04	32,87	28,71
Lunbagoa ziatikarekin, zehaztu gabeko aldea	%1,24	%1,44	%1,31	%1,61	41,80	47,23
Ezker orkatilako zehaztu gabeko lotailua bihurritzea, hasierako kontaktua	%1,22	%1,33	%0,69	%0,85	22,41	27,06
Bizkarrezurreko mina	%0,97	%1,21	%1,17	%1,24	47,98	43,16
Alboko epikondilitisa, eskuineko ukondoa	%1,04	%1,15	%0,50	%0,70	18,97	25,82
Gainerakoak	%70,35	%70,87	%81,09	%82,15	45,72	48,95

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Osasun-jarduera (KA)

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Lehenengo kontsultak	13.003	12.448	%-4,27
Hurrengo kontsultak	15.463	14.523	%-6,08
Ebakuntza kirurgikoak	13	13	%0,00
Proba diagnostikoak	1.312	1.093	%-16,69
Fisioterapia-saioak	1.223	993	%-18,81
Guztira	31.014	29.070	%-6,27

KANPOKO ASISTENTZIA SANITARIOA

Kanpoko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren helburua da Mutualiatik kanpoko instalazioetan artatzen diren pazienteek mutuaren baliabide propioek ematen duten asistentzia-kalitatearen antzeko kalitateko asistentzia jasotzea. Osasun-zerbitzu publikoek, beste mutua kolaboratzaile batzuek eta, neurri txikiagoan, osasun-zentro pribatuak ematen dute kanpoko asistentzia hori.


Batez ere bi motatako pazienteak artatzen dira zerbitzu horietan: alde batetik, EAetik kanpo lan egiten dutenak; eta, bestetik, Euskadin lan egiten duten eta Osakidetzan artatzen dituzten pazienteak (lesioen larritasunagatik, normalean).

Eskuineko grafikoan dago jasota kanpoko osasun-laguntzaren banaketa.

HIRUGARRENTZAKO OSASUN-LAGUNTZA

Asistentzia-baliabideak optimizatzen laguntzeko asmoarekin, babesten dituen biztanleen kolektiboetatik harago zabaltzen du Mutualiak osasun-arreta: osasun-zerbitzuak ematen dizkie hirugarrenei, beste mutua batzuei edo Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.

Kanpoko asistentzia sanitarioa banaketa



Hirugarrenei emandako osasun-laguntzaren fakturazioa

Garante	2023	2024	▲▼ %
Juridikoak/Trafiko istripuak	830.124,05 €	863.111,36 €	%3,97
Gizarte Segurantzarekin lankidetza duten beste mutualitate batzuk	473.029,90 €	446.247,23 €	%-5,66
Rama Korporazioaren mutualitateak	243.720,68 €	314.847,66 €	%29,18
EJren Osasun Saila/Osakidetza	22.225,22 €	0 €	%-100,00
Enpresa autoaseguratzaileak	164.224,99 €	124.030,18 €	%-24,48
Beste batzuk	22.888,54 €	17.511,85 €	%-23,49
Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (GSIN)	4.633,43 €	3.999,68 €	%-13,68
Guztira	1.760.846,81 €	1.769.747,96 €	%0,51

Osasun-kudeaketa

Osasun-kudeaketa Osasun Kudeaketako Zuzendaritzaren (OKZ) bidez zentralizatu eta koordinatzen da, eta bertan sartzen dira osasun-arlo osorako zeharkakoak diren proiektu eta ekintza guztiak.

Osasun Kudeaketako Zuzendaritzak barnean hartzen ditu asistentziaren efizientzia- eta kalitate-ildoak gainbegiratzeko lanak; hau da, kontingentzia arrunta, kontingentzia profesionala (ezintasuna, heriotza eta biziraupena; kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasuna; edoskitze naturaleko arriskua; gaixotasun larria duen seme-alaba zaintzeko eskubidea), Osasun Arloko batzordeak, hobekuntza sanitarioko taldeak, eta Plan Estrategikoaren barruan Osasun Arloari dagozkion proiektuen garapena. Batzorde guztietan ADI pertsona bat izendatu da Berrikuntza Batzordeari sortutako ideien berri emateko.

OSASUN ARLOKO GARAPEN INFORMATIKOETAKO BATZORDEA

Berrikuntza edo hobekuntza dakarten Osasun Arloko proiektu gehienek aldaketak sustatzen dituzte sistema informatikoetan edo garapen berrietan. Hortaz, funtsezkoa da Sistemen Arloak eta Osasun Arloak lankidetzan jardutea, baita programazio-orduetako inbertsioen gastua planifikatzeko ere. Horrexegatik sortu zen batzorde hori, zeinaren eginkizun nagusiak baitira garapen-premien lehentasunak zehaztea, proiektuen jarraipena egitea eta Sistemen Arloak proiektu horietako bakoitzerako behar dituen eskakizun teknikoei erantzutea.

Hauek dira 2024ko ekitaldian garaturiko proiektuetako batzuk:

- Gehitu-Ospitalizazioko hobekuntzak
- Idonia: PINa automatikoki sartzen da
- PACS to PACS konexioa Santurtziko San Juan de Dios Ospitalearekin
- Onarpen digitala ezarri da Ertzillan
- Dokumentazioa eguneratu da Gehitun



- Ikastetxeen arteko zitazioa
- Talka-uhinak

Gainera, 2025ean ezarriko diren hainbat proiektu garatu dira, hala nola dokumentu-kudeatzaile berria, errezeta elektronikoa, Gehituren arkitektura-aldaketa, REL aplikazio berria, taxiarena, Diet Tools, aurrekariak, etab.

IRUDI BIDEZKO DIAGNOSTIKOKO BATZORDEA

Batzorde honen helburu nagusia da plan estrategikoak iraungo duen aldian erradiodiagnostikoko unitate asistentzialetarako Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria lortzea, zeinak 46 estandar betetzen diren ebaluatzen baitu.

Horrekin lotuta, 2024an funtzionamendu-sistemak egokitzen aritu gara, eta uste dugu, egindako aurrerapenen ondorioz, I. eta II. taldeetako estandarrak ia erabat bete ditugula. Horregatik, 2025ean ziurtapenari heltzea pentsatzen ari gara. Dagoeneko aurkeztu da eskaera, eta Eusko Jaurlaritzaren auditoria 2025eko maiatzean izango da.

Gainera, batzorde hau gai asko eztabaidatzeko foro gisa erabiltzen da; besteak beste, Mutuialiaren 3 ospitaleetako erradiologia-unitateen

arteko komunikazioa eta protokoloen estandarizazioa indartzen ditu, eta berrikuntzarako eta argitalpen zientifikoetarako ideiak proposatzeko ere erabiltzen da.

OSASUN ARRETA PERTSONALIZATZEKO BATZORDEA (OAPB)

Mutuialiak konpromiso sendoa du zentro guztietako paziente guztiei arreta sozial eta sanitario humanizatua eskaini dakien sustatzeko, eta, bide horretan, Asistentzia Sanitaria eta Humanizazioa Pertsonalizatzeko Plana diseinatu du.

Osasun Laguntza Pertsonalizatzeko Batzordearen hurbileko lanaren ardatz nagusietako bat da erakunde osoa inplikatzeko laguntza pertsonalizatzeko kulturaren, eta, horretarako, prestakuntza-ekintzak aurreikusten ditu, dela aurrez aurrekoak, dela onlinekoak.

2024ko maiatzean, Gasteizko Erabakimen Handiko Ospitalean, humanizazioaren inguruko prestakuntza eta sentsibilizazioari eskainitako jardunaldi bat egin zen. Osasun Arloko pertsona guztiei egin zitzaion deialdia, eta hizlaririk nabarmenena Julio Zarco izan zen, Humans-eko presidentea eta Madrilgo Niño Jesús Ospitaleko kudeatzailea.

6. Berrikuntza zerbitzuetan

IRAKASKUNTZA, PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA BATZORDEA (IPIB)

Batzorde honen xedea da osasun-arloko pertsonen prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa sustatzea. Helburu nagusietako bat da Mutualiaren ekoizpen akademikoa eta irakaskuntza-arlokoa partekatzea, ezagutza maila guztietan zabalduz.

2024ko ekitaldian funtsezko lorpenak izan dira Mutualiaren irakaskuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-gaitasun askotan.

Ibilbide zehatzagoak ezarri dira Prestakuntza Plan Erkidean, eta urteko kongresu eta ikastaroen diseinua egin da, urte barruan izaniko prestakuntzak kontuan hartuta. 2024an ere bete dira planifikatutako ekintzak, eta prestakuntza-eginahal horretan zenbait irakasgai nagusi biltzen dituen zerrenda bat prestatu da, hala nola bihotz-biriketako berpiztea, pazienteen segurtasuna eta osasun-laguntza pertsonalizatzea.

Barne-prestakuntza ere sustatu da, saio kliniko bidez (52 barne-prestakuntza eta 26 saio kliniko), baita tailer teoriko-praktikoen eta Erizaintzako Ezagutzak Eguneratzeko Jardunaldien bidez ere.

Ponentzien, ahozko komunikazioen eta posterren atalean, jardura hau erregistratu da: 50 lan, 33 argitalpen zientifiko eta 9 moderatzaile-lan edo lehendakaritza mahai-inguruetan. Bestalde, 3 aipamen berezi edo sari lortu dira:

Capelastegui Alber, Ana. SETLA ahozko komunikazio onenaren José Luis de Gregorio Doktorea Saria asistentzia-medikuentzat. "Mejorando la detección de fracturas con Inteligencia Artificial" (Hausturen detekzioaren hobekuntza adimen artifizialaren bitartez).

Cáceres Belda, Alejandra; Garay Guruceaga, Estibaliz; Beldarrain Urra, Ainara. Pakea Klinikako ebakuntza-gelako erizainak. Bideo-teknikarik onenaren saria "Vistiendo nuestras Cirugías" (Gure kirurgiak janzen) lanarentzat, Batzorde Zientifikoak emana Erizaintza Kirurgikoaren XVIII. Kongresu Nazionalen; Sevillan egin zen, urriaren 23, 24 eta 25ean, "El reflejo de cuidar" (Zaintzearen isla) lelopean.

Lourdes Villar, Beatriz Corvo, Ainara Beldarrain: "E2 B3 C21 ¡Localizado!" (E2 B3 C21 Lokalizatua!). Aipamen berezia: 4. postua Desinfekzio eta Esterilizazioko

Espainiako Elkartearen SEDE biltzarrean.

Kanpoko ikasleei zuzendutako irakaskuntza % 30 hazi da, eta 297 pertsona bildu ditu.

Educator taldeak, beste urte batez, aurrerapen esanguratsuak lortu ditu pazienteei zein langileei zuzendutako osasun-hezkuntzan. Proiektu berriak egin dira, eta Mutualiaren webgunean eta Gehitun daude eskuragarri. Lehen Focus Group delakoa egin da, eta Gipuzkoako lau enpresatako osasun-taldeak gonbidatu dira. Jardunaldi horretan, Educator programa eta garatutako lanak aurkeztu zituzten, eta prestakuntza-beharrei erantzuteko lankidetzak sustatuz langileen artean osasun-hezkuntza zabaltzeko helburua nabarmendu zen.

2024ko ekitaldiko prestakuntza-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardura hori guztia Mutualiaren Zientzia eta Irakaskuntza Memorian jasota dago.

ESKUEN HIGIENE BATZORDEA

2024an, handitu egin da eskuak garbitzeko ohitura, pandemiak ekarritako esperientziaren ondotik. Ildo horretan, beren tokian jarraitzen dute gel hidroalkoholikoa banatzeko puntuek.

Kontzientziazio-jardura gisa, Mutualiak Eskuen Higienearen Munduko Eguna ospatzen du maiatzaren 5ean, eta, urtero bezala, zenbait jardura antolatu zituen; esaterako, artikulu bat argitaratu zuen Elkargune atari korporatiboan, eta kliniketan kartelak jarri.

FARMAZIAKO BATZORDEA

2024an, batez ere Errezeta Digitalaren proiektua landu da; pazienteak paperezko errezetarik gabe joan ahal izango dira farmazietara (Estatu osoan), eta, horren orde, mugikorreko QR kode bat erabili ahalko dute preskripzioa jasotzeko. Mutualiako langileei dagokienez, erraztu egingo ditu preskripzioak egiteko, mantentze-sendagaiak berritzeko eta segurtasuna eta kontsumoa kontrolatzeko lanak. Lankidetzak puntu guztiak jorratu dira Farmazia Elkargoen Kontseilu Nagusiarekin eta Medikuen Kontseilu Orokorrarekin, eta horiek abian jartzeko epeak azkentzen ari dira.

Bestalde, Batzordeak jarraitu du Mutualiako pertsonen lanean laguntzeko eta aldakortasuna saihesteko balio duten dokumentuak lantzen; 2024an, zehazki,

jarraibide berri bat egin da (I 04.14/27. Atzerriko sendagaiak identifikatzea eta kudeatzea), eta 44 jarraibide eguneratu dira.

ARRISKUAK KUDEATZEKO UNITATEKO (AKU) BATZORDE IRAUNKORRA

2024an, pazienteen segurtasunari lotutako 22 jakinarazpen jaso dira, eta honela sailkatu dira: 10 gertaera kaltegarri, 9 gertakari eta 3 asistentzia-arrisku. UGR SPk aztertu ditu jakinarazpen guztiak, eta arriskuak minimizatzeko egin beharreko ekintzak jasotzen dituzten txostenak egin dira. Txosten horiek zenbait bidetatik zabaltu dira: saio klinikoak, erizaintzako eta errehabilitazioko bilerak, Elkarguneko Pazienteen Segurtasun Txokoa eta "Pazienteen Segurtasuneko 30 Solaskide" postontzia.

Bestalde, 2024an segurtasun-errondak egin dira Madrilgo, Ercilla Klinikako (Kirofanoak eta Larrialdiak) eta Pakea Klinikako (Errehabilitazioa) zentroetan, eta horien helburua da egiaztatzea ezarri direla jakinarazpen-sistemaren bidez jakinarazitako gertakarien ondoriozko ekintzak eta zerbitzuen ondoriozko arriskuen tratamendu-planetan jasotako ekintzak.

INFEKZIOEN BATZORDEA

Infekzio-adierazleek oso aldekoak izaten jarraitzen dute, eta erraz betetzen dituzte ezarritako helburuak eta erreferentzia-parametroak.

Prozesu infekziosoen detekzio- eta jarraipen-sistema indartzen jarraitzeko, 2024an hobekuntza hau egin da GEHITU, II. Fasean: "Isolamendu infekziosoen" ez-medikamentuzko agindua honela banakatu da, eta orain aireko isolamendua, ukipeneko isolamendua eta tanta-isolamendua daude.

2024an, IRASen zaintzarekin, prebentzioarekin eta kontrolarekin lotutako praktika klinikoko gidak berrikusi dira, eta honakoekin lotutakoak nabarmendu dira: legionellarekin eta aspergillusekin, antiseptikoekin eta desinfektatzaileekin, terapia antibiotiko ez-kirurgikoarekin edo antibiotikoen egonkortasun-taularekin.

Osasun-administrazioa

Osasun Administrazioaren arloak, ADKZren bidez, administrazio-prozesuak kudeatzen ditu efizientziaren, balio-aniztasunaren eta prozedurak bateratzearen ikuspegitik. Taldea 57 profesionalen osatuta dago, eta arreta hurbil eta profesionala eskaintzeaz gain, pazientearen konfidentzialtasuna errespetatzen du.



Mutualiak lehen mailako arretako 13 zentro eta 3 ospitale ditu. Denek jarraibide orokorrak betetzen dituzte lan-metodologiei eta prozedura eta protokolo klinikoei dagokienez, eta, aldi berean, nolabaiteko autonomia dute lanaren barne-antolamenduan.

Asistentzia-jarduera horretan, paziente bakoitzarekin sortzen diren prozesu administratiboak pazienteen laguntza-prozesu klasikoak bezainbesteko garrantzia dute pazientearen historia klinikoari dagokionez. Ildo horretan, Administrazio Sanitarioaren barruko Administrazio eta Dokumentazio Klinikoko Zerbitzuari dagokio administrazio-eskumen horiek kudeatzea, eta haren helburu nagusien artean ageri dira prozedurak bateratzea eta lan-sistematiketan lerrokatzea, oinarri gisa harturik balioaniztasuna eta emaitzetan efizientzia lortzeko kultura.

Helburu horrekin, Mutualiak ADKZ egitura bat dauka zentro asistentzial bakoitzean. Bereziki, hiru ospitaleetan (Ercilla Klinika Bilbon, Pakea Klinika Donostian eta EHO Gasteizen) berrikusten eta/edo egiten dira adostutako prozedurak eta jarraibideak, eta, ondoren, zentro asistentzial periferikoetan zabaltzen eta ezartzen dira. Hedapenez, ospitaleetako ADKZen arduradunak lurralde-unitate bakoitzeko (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba, hurrenez hurren) zentro asistentzialen arduradunak dira.

Prozesu administratiboak kudeatzeko, Osasun Administrazioaren arloak 57 lagunekoa talde bat du. Profesional horiek engaiatuta daude Mutualiak pazienteen eta haien senideen osasunarekin eta bizi-kalitatearekin hartutako konpromisoarekin. Horrez gain, laguntzeko bokazioa dute, eta beren asistentzia-prozesua dela eta Mutualiako asistentzia-zerbitzuekin duten harreman administratiboa erraztu nahi dute, tratu profesional, hurbileko, pertsonalizatu eta humanoa eskaintzen dute, eta gure pazienteen historia klinikoak ahalik eta errespetu eta konfidentzialtasun handienarekin kudeatzen dituzte.

2024an izandako gertakari nabarmenen artean honako hauek daude:

6. Berrikuntza zerbitzuetan

- Osasun Administrazioako Arriskuen Mapa kontrolatu eta haren jarraipena egin da. Jarraibide eta prozedura berriak garatzen jarraitu da, erakundearen arriskua minimizatzeko eta Mutualiaren asistentzia-zentroetako lan-sistematikak bateratzeko.
- Osasun Administrazioarako prestakuntza-plan bat sortu da, gure pertsonen premiei erantzuteko eta asistentziaren kalitatea hobetzeko, prestakuntza-ibilbideak ezarri. Etengabeko prestakuntzarekin dugun konpromisoa dela eta, ikastaro eta biltzarretan parte hartu dugu.
- Mutflix-en eduki-multzo bat sortu da ADKZrentzat, Trebakuntza Atariaren barruan, ezagutza hainbat formatutan gordetzeko: bideoak, aurkezpenak, etab.
- Ercilla klinikan Pazienteen Onarpen Digitalaren proiektua jarri da martxan. Era horretan, pazienteak asistentzia-fluxu eta zirkuituen kudeaketaren erdigunean jarri da, beharrik gabe zain egon ez dadin eta hitzordua edo proba osagarri programatua duen kontsultara erraz eta intuitiboki hel dadin. Horrekin batera, informazio-pantailak jarri dira itxarongeletan. Pantaila horietan, paziente bakoitzarentzako kode anonimoak bistaratzen dira, soinu bidezko abisua duen sistema batez lagunduta. Horri esker, pazienteen intimitatea bermatzen da kontsultetan artatuak izateko deian. Gure erakundean metodologia berritzaileen aldeko apustua egiten dugu eta, taldearen ahaleginari esker, hiru lurraldeetan ezartzea lortu dugu.
- Gure helburua pazienteen segurtasuna areagotzeko aktiboki lan egitea da. Hori dela eta, Osasun Administrazioan lanean dihardugu, dokumentu-kudeatzaile berriaren funtzionamendua hobetzeko, ezarri aurretik. Gainera, irudi erradiologikoak hodeira automatikoki igotzeko sistema bat jarri dugu, pazienteek irudi horiek eskura izan ditzaten, giza akatsik egiteko arriskurik gabe.
- Halaber, gure balioekin bat datorren proiektu berritzaile bat ezartzea sustatu dugu: "Urruneko hitzorduak espezialistekin". Proiektu horren helburua da kontsulta medikoak urrunetik egitea, bideokonferentzia bidez, zerbitzua eraginkorragoa eta kalitatekoa izan dadin, gure bezeroen premiak hobeto betetze aldera. Gainera, pazienteentzat erosoagoa da eta joan-etorriak eta kostuak gutxitzen ditu.
- Asistentzia-zentro periferikoetako (AZP) eta Ercilla klinikako paperezko historia klinikoak digitalizatzeko eta integratzeko 2. fasea amaitu da.
- Horri esker, kontingentzia profesionalagatik artatutako Mutualiako pazienteen historia klinikoa osoa, fidagarria, ordenatua eta segurua izango da paziente bakoitzaren informazio klinikoari dagokionez, betiere historia kliniko bakarra izateko duten eskubidea errespetatuz, zeinak osasun-laguntza errazten baitu osasun-datu beti eguneratuen eta osoen bidez, eta hori onuragarria da pazienteen segurtasunerako ere. Fase honetan 53.044 historia kliniko eskaneatu dira (Bilboko 26.857 eta asistentzia-zentroetako 26.187). 3. fasea 2025ean gauzatzea aurreikusita dago.
- Mutualiak pazienteen ongizatea zaintzeko konpromiso irmoa du eta, beraz, gure osasun-zentro eta/edo kanpo-hornitzaileetarako joan-etorriak barne hartzen ditu. Horregatik, taxiak eskatzeko aplikazioa hobetzeko lanean ari gara. Gainera, garraio berezia (taxia/anbulantzia) eskatzeko sistematika helarazi diegu enpresei, lizitatu gabeko hornitzaileei ordainketarik ez egiteko.
- Pazienteek historia klinikoan duten dokumentazio klinikoaren (txosten medikoak eta/edo irudi erradiologikoak) kopia eskatzeko proiektua ezarri da Bizkaian. Horri esker, osasun-arloko profesionalak aukera ematen zaie gure pazienteen eskaerak berehala ezagutzeko, eskaera bakoitzaren egoeraren jarraipena egiteko eta gerta daitezkeen desbideratzeak epe barruan aztertzeko.
- Osasun Administrazioaren arloan etengabeko hobekuntzak eskatzen eta ezartzen ditugu, gure aplikazioan SAP kontratuak eta hornitzaileekin egiten ditugun kontratuak grabatzean batere hutsik ez edo ahalik eta huts gutxien egiteko, eta probak eta espezialistak eguneratuta edukitzeko.
- Gure paziente mutualistei kontingentzia profesionalagatik emandako osasun-laguntzako gastuak berreskuratzea, gertatutako trafiko-istripuaren hirugarren arduradun bat (aseguru-etxeak) dagoenean. 2024an 863.111,36 euro berreskuratu ditugu.



Prestazio ekonomikoak

2024ko ekitaldian, Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoen 131.406 eskaera kudeatu dira guztira, hau da, aurreko ekitaldian baino % 4,18 gehiago. Eraginari dagokionez, igoerarik handiena kontingentzia arruntek eragindako aldi baterako ezintasunaren ordainketa eskuordetuen eskaeretan gertatu da: 2023tik % 9,75 egin dute gora.

2024an ez da espedienterik bideratu COVID-19agatik.

Ondorengo tauletan, artatutako prestazioen kopurua eta kontingentzia profesionalek eragindako prestazioen espedienteen xehetasunak agertzen dira, hala nola ezintasuna, heriotza edo biziraupena (BHB), haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua (HEA) edo haurren zaintza (HAZA).

131.406

2024AN KUDEATUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK

Prestazio ekonomikoak

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Kontingentzia arruntengatiko Aldi Baterako Ezintasuna	98.962	106.783	%7,90
Ordainketa eskuordetua	87.944	96.522	%9,75
Zuzeneko ordainketa	11.018	10.261	%-6,87
Kontingentzia Profesionalengatiko Aldi Baterako Ezintasuna	20.228	20.850	%3,07
Ordainketa eskuordetua	18.539	19.251	%3,84
Zuzeneko ordainketa	1.689	1.599	%-5,33
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua	1.883	1.973	%4,78
Gertakari profesionalen ondoriozko sekuelak eta heriotzak	966	908	%-6,00
Baliaezintasunik gabeko Lesio Iraunkorrak eta Ezintasun Iraunkor eta Partziala	828	728	%-12,08
Pentsiorako eskubidea ematen duen ezintasuna eta Heriotzagatiko prestazioak	138	180	%30,43
Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeak zaintzea	346	462	%33,53
Langile autonomoen jarduera etetea	355	430	%21,13
Besteren kontuko COVID-19 espediente kopurua	3.337		%-100,00
Norbere kontuko COVID-19 espediente kopurua	57		%-100,00
Guztira	126.134	131.406	%4,18

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Baliaezintasun-, heriotza- eta biziraupen-espedienteak

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Baremoak (Elbarritasuna eragiten ez duten lesioak)	819	712	%-13,06
Ezintasun iraunkor partziala	9	16	%77,78
Ezintasun iraunkor osoa	68	97	%42,65
Ezintasun iraunkor absolutua	13	11	%-15,38
Baliaezintasun handia	1	3	%200,00
Hildakoak	56	69	%23,21
Guztira	966	908	%-6,00

Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arrisku-espedienteak


Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Haurdunaldiko arriskuko espedienteen kopurua	1.840	1.942	%5,54
Edoskitze naturalaren garaiko arriskuko espediente kopurua	43	31	%-27,91
Guztira	1.883	1.973	%4,78
Tramitatze epea (prestazioa kobratzen hasi arte)	24,65	24	%-2,64
Batez besteko iraupena (kobratze-egunak)	105	103	%-1,60

Adingabeak zaintzeko espedienteak

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
HAZA espedienteen kopurua	346	462	%33,53
Batez besteko iraupena (kobratze-egunak)	438	646	%47,49

2011. urtean gaixotasun larria duten adingabeak zaintzeko prestazioa sortu zen, hau da, guraso, adoptatzaile edo harreragile diren langileen diru-sarrerengatik konpentsatzen dituen dirulaguntza bat. Izan ere, langile horiek lanaldia eta soldata murrizten dituzte, beren ardurapean duten adingabea (hasieran 18 urte bete arte), minbizia edo legez zehaztutako beste gaixotasun larri bat duena, zuzenean, eta modu jarraitu eta iraunkorrean zaintzeko. Prestazio hori Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek kudeatzea adostu zen, eta, orduetik, etengabe hazi da, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan. Gainera, 2023ko apirilaren 1etik aurrera, behin 18 urte beteta, eragileak 23 urte betetzen dituen arte jaso ahal izango da prestazioa, adinez nagusi izan aurretik diagnostikatutako minbizia edo gaixotasun larria izanez gero.


Adingabeak zaintzeko espedienteak



Laneko istripuak eta gaixotasun profesionalak

2024an, baja eragin duten lan-istripuen kopuruak gora egin du pixka bat, % 2,43, hain zuzen, eta, batez ere, in itinere istripuak gehitu dira. Hala ere, bajarik gabeko istripuak % 2,21 jaitsi dira, eta, beraz, istripuen kopuru osoa 2023ko ekitaldiaren antzekoa da. Istripuen adierazleak, hau da, sektorea, istripua gertatutako lekua, asteko eguna eta modua, ez dira asko aldatu urteen joanean.

Baja duten lan-istripuak asteko egun bakoitzeko



16.385

BAJA DUTEN LANEKO ISTRIPUAK

Lan-istripuak

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Baja duten laneko istripuak	15.996	16.385	%2,43
Baja duten istripuak lanaldian	13.973	14.251	%1,99
Baja duten istripuak in itinere	2.023	2.134	%5,49
Bajarik gabeko istripuak	18.431	18.024	%-2,21
Guztira	34.427	34.409	%-0,05

Baja duten laneko istripuak jarduera-sektorearen arabera

Adierazlea	2023	2024
Zerbitzuak	%56,69	%57,40
Industria	%30,55	%30,28
Eraikuntza	%11,47	%11,00
Lehen sektorea	%1,29	%1,31

Baja duten lan-istripuak, istripua izandako lekuaren arabera

Adierazlea	2023	2024
Ohiko zentroan	%69,84	%69,17
In itinere	%12,65	%13,02
Laneko joan-etorriak	%3,95	%3,79
Beste zentro batean	%13,56	%14,01

6. Berrikuntza zerbitzuetan

Istripua nola gertatu zen

Adierazlea	2023	2024
Gainesfortzu fisi oa, trauma psikikoa, erradiazioen, zarataren, argiaren edo presioaren eraginpean egotea	%30,28	%28,97
Geldirik dagoen objektu baten gainean edo kontra zapaltzea	%26,46	%25,65
Mugitzen ari den objektu baten kontra talka egitea edo kolpatzea	%18,37	%19,59
Kontaktua "agente material" ebakitzaile, zorrotz, gogor, zimurtsu batekin	%8,78	%9,34
Harrapatzea, zapaltzea, anputazioa zehaztu gabe	%3,45	%3,26
Korronte elektrikoa, sua, tenperatura ukitzea	%2,82	%3,03
Hozkadak, ostikadak, etab. (animalienak edo pertsonenak). Zehaztu gabe	%2,48	%2,65
Zehaztu gabeak edo bestelakoak	%7,36	%7,51

Gaixotasun profesionalak

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Baja duten lanbide-gaixotasunak	515	569	%10,49
Bajarik gabeko lanbide-gaixotasunak	569	536	%-5,80
Guztira	1.084	1.105	%1,94

Baja duten lanbide-gaixotasunak

Adierazlea	2023	2024
Ag. kimikoak	%0	%0,35
Ag. fisikoak: Zarata	%0,19	%0,18
Ag. fisikoak: Jarrera eta mugimendu errepikakorrak	%90,49	%88,75
Ag. fisikoak: Bibrazioak	%0,19	%0,00
Ag. fisikoak: Bestelakoak	%2,91	%2,28
Ag. biologikoak	%1,17	%2,11
Inhalazioa (bestelako substantziak eta agenteak)	%1,17	%2,28
Larruazaleko LG (bestelako substantziak eta agenteak)	%3,88	%3,87
Ag. kartzinogenikoak	%0	%0,18

Bajarik gabeko lanbide-gaixotasunak

Adierazlea	2023	2024
Ag. kimikoak	%0,18	%0,19
Ag. fisikoak: Zarata	%17,75	%16,60
Ag. fisikoak: Jarrera eta mugimendu errepikakorrak	%54,66	%59,14
Ag. fisikoak: Bibrazioak	%0,18	%0,00
Ag. fisikoak: Bestelakoak	%16,87	%14,93
Ag. biologikoak	%8,61	%5,78
Inhalazioa (bestelako substantziak eta agenteak)	%1,05	%1,12
Larruazaleko LG (bestelako substantziak eta agenteak)	%0,53	%2,05
Ag. kartzinogenikoak	%0,18	%0,19

Prebentzio-jarduera

Kontzeptua		2023	2024	▲▼ %
Enpresetara bisitak		309	308	%-0,32
Istripugarritasun azterketak		592	667	%12,67
LI eta LGen azterketak		226	208	%-7,96
Prebentziori buruzko dibulgazio materialaren hartzaileak ¹		448.440	598.820	%33,53
Prebentzioari buruzko kontsultak		1.086	1379	%26,98
Prebentzio kanpainak		64	84	%31,25
Prebentzioko Mutualia Ikasgela	Jardunaldi/tailer kopurua	41	47	%14,63
	Parte hartzaileen kopurua	1.399	1145	%-18,16
Mutualia Campus Birtuala	Eskainitako ikastaroen kopurua	58	64	%10,34
	Parte hartzaileen kopurua	2.032	2.165	%6,55

[1] Hartzaileak errepikatu egin daitezke bidalketetan.

4,65
(5EN GAINEKO BALORAZIOA)
JARDUNALDIETAN, MINTEGIETAN,
TAILERRETAN ETA ESKOLETAN PARTE
HARTU DUTEN PERTSONEN BALORAZIOA

PREBENTZIO-GELA

Mutualiako Prebentzio Ikasgelak 47 jardunaldi eta tailer egin ditu, aurrez aurreko formatuan eta webinarrean, eta 1.379 pertsonak parte hartu dute. Hauek izan dira jardunaldiak eta tailerrak:

- Elikadura osasungarriaren eskola: “Ongizatea 50 urtetik aurrera”, “Nola planifikatu zure menuak”, “Elikadura funtsezko faktorea da patologia kardiobaskularrak eta hanturazkoak hobetzeko”, “Ez egin dietarik, ikasi jaten” eta “Kirol-nutrizioa”.
- Ongizate emozionaleko eskola: “Automotibazioa: nire indarguneak sendotuz”, “Elkarriketa erabakigarriak”,

“Enpatia garatzea”, “Gatazkak kudeatzea”, “Estresa kudeatzea” eta “Denbora kudeatzea”.

- Segurtasunez gidatzeko eskola.
- Ahotsaren eskola.
- Absentziak kudeatzeko arduradunentzako eskola.
- Loaren eta atsedenaren eskola.
- Prevención10 jardunaldia.
- Jardunaldi teknikoak: “Nola sortu inpaktua eta eragina zure erakundean”.
- Absentzien tailerra: “Lan-taldea eta erdi-mailako arduradunak absentzien kudeaketan”.
- Absentzien kudeaketan espezializatutako tailerra.
- Absentismoari buruzko tailerra: adierazleak eta protokoloak, eta absentziak prebenitzeko eta kudeatzeko plan bat abiaraztea.

Gainera, zorion korporatiboari, neuromanagementari eta erresilientziari buruzko hitzaldia eman da OBidean aintzatespenak eta Prebentzio Begiradak sariak banatzeko ekitaldian.

CAMPUS BIRTUALA

Mutualiako Campus Birtuala onlineko prestakuntza bat da, eta etengabe hazten ari da, bai eskainitako ikastaro-kopuruari dagokionez (64 ikastaro 2024an), bai izena eman duten pertsonen kopuruari dagokionez (iaz baino % 10,34 gehiago). Guztira, 14.341 prestakuntza-ordu egin dira —5.396 egin ziren 2023an—. Gogobetetze-indizeak ere 0,2 puntu hobera egin du iazkoarekin alderatuta, eta 5etik 4,27an geratu da.

LANDUTAKO MATERIALA

Prebentzio Zerbitzuak dibulgaziorako eta prestakuntzarako hainbat material landu ditu. 2024ko ekitaldian honako hauei buruzko materiala landu eta argitaratu da, hainbat formatutan:

- Haurdunaldiko lan-arriskuaren eskuliburua berrikustea.
- Eskoletako diptikoak.
- Mutualiako campus birtualaren liburuxka eguneratzea.
- 6 newsletter adinari buruzko kanpainako laguntza-materialari buruz.

6. Berrikuntza zerbitzuetan

- Elikadura osasungarriari buruzko 7 infografia.
- Adinari eta lanari buruzko eskuliburua.
- Laneko indarkeriari buruzko prozedura.
- Prebentzio Begiradak lehiaketa zabaltzeko materialak.
- Gure esperientziari buruzko fitxak.
- Enpresa osasungarriaren WEB-eredua.
- Absentziak kudeatzeko gidari buruzko koadernoak.
- Gidariantzako luzatze-ariketen 5 bideo.
- Adineko langileentzako luzatze-ariketen 18 bideo.

Eduki horiez guztiez gain, Mutuialiako Prebentzio Zerbitzuak komunikazio-jarduera zabala egiten du Mutualiaren kanaletatik. Hala, 2024an 39 artikulua argitaratu dira webgunean, eta 51 newsletter bidali dira. Eduki horiek guztiak Mutualiaren sare sozialen bidez ere zabaltzen dira.

“PREBENTZIO BEGIRADAK” ARGAZKI-ERAKUSKETA

2017an inauguratutako “Prebentzio Begiradak” erakusketa 43 argazkik osatutako hautaketa bat da; Mutualiaren Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Argazki Lehiaketan parte hartu duten 1.200 eta gehiago argazkietatik aukeratuak dira. Erakusketa ibiltaria da, eta enpresa elkartuen eskura jartzen da, EAEko txoko guztietan erakutsi ahal izateko. Erakusketa honen helburua zera da, laneko arriskuen prebentzioaren garrantziaz hausnartzen eta kontzientziatzen laguntzea.

2024an, toki hauetan egon da ikusgai erakusketa:

- Sopelako udaletxea (2023/12/01etik 2024/01/05era)
- Arrigorriagako udaletxea (2024ko azaroaren 17tik 28ra)

PREBENTZIO BEGIRADAK LEHIAKETA

Mutuialiak urtero antolatzen du laneko arriskuen prebentzioari buruzko argazki-lehiaketa bat, pertsonen laneko arriskuen prebentzioaren inguruan kontzientzia sorrarazteko. 2024ko ekitaldian XXI. edizioa egin zen. Lehiaketa hau, hasieran argazkiena baino ez zena, zabaldu egin

da, eta bi kategoria berri sartu dira: adimen artifizialarekin egindako argazkirik onena (2023tik) eta bideo laburrik onena (2024tik). Aurkezten diren argazkirik onenak jada aipatutako “Prebentzio Begiradak” erakusketan jartzen dira.

Era berean, Mutualiak prebentziozko argazkien barne-lehiaketa bat ere egiten du urtero, mutuako langile guztiek parte hartu ahal izateko eta, barrurantz ere, sentsibilizazioa sustatzeko laneko arriskuen prebentzioaren inguruan.

OBIDEAN AITORPENAK ETA PREBENTZIO BEGIRADAK SARIAK BANATZEKO EKITALDIA

Mutuialiak Segurtasunaren eta Osasunaren Mundu Eguna ospatzeko apirilaren 26an Bilboko Yimby aretoan antolatu zuen ekitaldian OBidean aitortpenak eta Prebentzio Begiradak sariak banatu ziren. OBidean aitortpenak ematen zaizkie azken urteetan laneko

ezbehar-tasa murrizten lagundu eta ibilbide ona izan dutela egiaztatzen duten enpresei. Hauek izan ziren 2024ko edizioan aintzatetsitako enpresak:

- Bakelite Ibérica SA
- Ikusi SLU
- Lantek Sheet Metal Solutios SLU

Prebentzio Begiradak sariei dagokienez, Carlos de Cosek aurkeztutako “Placas” (Plakak) argazkiak irabazi du argazki onenaren kategorian. Bestalde, adimen artifizialak sortutako irudi onenaren saria Danel Solabarrietak irabazi du, “Segurtasuna itsas zabalean: ekaitzerako prestatuta” lanarengatik. Azkenik, prebentzioarekin lotutako bideo laburren kategorian, Oscar Lópezek aurkeztutako “La vida no para ante los actos inseguros” (Bizitza ez da geratzen ekintza ez-seguruen aurrean) bideoa izan da irabazlea.



Fotografía ganadora del premio “Miradas de prevención”

Bezero bakoitzaren tipologiara egokitutako zerbitzuak

Mutualian mota askotako bezeroei ematen zaie zerbitzua. Bezerotzat hartzen dira enpresak, langileak —prestazio ekonomikoaren eskatzaile gisa edo osasun-zentroetako paziente gisa—, langile autonomoak, etab.

Zerbitzua ematen zaien erakunde- eta pertsona-mota ezberdinek eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuek bete behar dituzten arauzko balditzek, etengabe zerbitzuen zorroa berrikustera behartzen dute, bertara egokitzeko eta Mutualian duten esperientzia onena izan dadin saiatzeko.

Mutualiak bere webgunean argitaratu du balioei lotutako zerbitzuen karta, eta kontrastatu daitezkeen konpromiso batzuk ezartzen dira han.

Bezeroen eskura jartzen diren zerbitzu horietako asko tresna digitalekin lotuta daude. Zentzu horretan, 2024ko ekitaldian, hobekuntzak sartzen jarraitu da enpresen eta langileen aplikazioetan eta web-orrian: segurtasun-neurri berriak ezarri dira eta nabigagarritasuna eta irisgarritasuna hobetu dira, eta Mutualiaren zentroen bilatzaile berria nabarmentzen da ororen gainetik.

Zerbitzu eta tresna digitalak garrantzitsuak dira, bezeroen kudeaketa asko errazten dutelako, baina, zalantzarik gabe, gertuko harremanak eta harreman pertsonalak nagusitu eta mantendu egin behar dira; izan ere, hurbiltasuna da Mutualiaren balio garrantzitsuenetako bat.

Bestalde, 2024an Educator proiektua hedatzen jarraitu dugu. Gai hauei buruzko materiala argitaratu da, besteak

beste: Traumatismo kranioentzefaliko arina eta traumatismo torazikoa duten pazienteentzako gomendioak edo Zer egin ebaketa edo zauria eginez gero.

2024an egindako prebentzio-jarduerei buruz aurreko puntuan esan bezala, lan handia egin da absentziak kudeatzeko tresnarekin, eta Mutualia ON (enpresa osasungarria) programa sartu da web orrian zerbitzu guztiekin.

IRADOKIZUN ONENAREN SARIA

Urtero, azken hiruhilekoan, Mutualiak sari bat ematen du bezeroek iradokizunak egin ditzaten ematen diren zerbitzuei buruz. Hobekuntzak identifikatzeko eta zerbitzuen kalitatea hobetzen lagunduko duten ideiak atzemateko bide bat da. Enpresa elkartuetako eta aholkularitza-zentro laguntzaileetako langile guztiei zuzendutako ekimen honek haien inplikazioa eta lankidetzat bilatzen du.

2024an sariaren XIII. edizioaren deialdia egin da, eta Mutualiak, irabazleari detaile teknologiko bat emateaz gain, iradokizun saritua inplementatzeko konpromisoa hartzen du.

Edizio honetan, iradokizun saritua Ingeniería TPI - Industry Solutions enpresako Kira Villamizar Da Silvarena izan da, zeinak honakoa proposatu baitu: "Iradokitzen dut plataforma moduko bat egotea, autoebaluatzeko edo prestatzeko aukera ematen duena. Langileei zuzendutako formatu digitaleko plataforma bat, beren ongizatearen autoebaluazioa egiteko (mentala, fisikoa, etab.). Eta autoebaluazio hori egin ondoren, hobetzeko gomendioren bat jasotzeko aukera izatea, behar izanez

mutualia XIII. EDIZIOA

Iradokizun hoberenari saria

Gure zerbitzuen kalitatea hobetu dezakeen iradokizun onena aintzatetsi eta saritu nahi dugu

Aurkezpen-epaia 2024ko abenduaren 31n amaituko da

Epaimahaiaren epaiaren unean Mutualiarekin elkartuta dauden enpresetako edozein pertsonak parte hartu ahal izango du

Irabazleak iPad bat jasoko du

Nola parte hartu?

• Mugikorraren bidez egin dezakezu QR kode hau eskaneatuz, edo

• Emaila bidali zure datuekin eta iradokizunarekin helbide elektroniko honetara: sugerencias@mutualia.es

Parte hartu! Hobetzen lagun iezaguzu!

www.mutualia.eus

gero. Langilearen sektoreko arriskueta oinarritutako gaikuntza bat barne hartzen duen gomendio bat ere izan liteke (bizkarreko edo eskumuturreko mina badu zer ariketa egin lanaldian, adibide bat aipatzearen)“.

Sari-banaketak bat egiten du Mutualiako Bezeroen Egunarekin. Barne-ospakizun hori urtero egiten da, erakundeko pertsonak kontzientziatzeko bezeroek duten garrantziaz, horiei zerbitzurik onenak eman behar zaizkielako, betiere Mutualiaren balioetan oinarrituta.

Eraldaketa digitala

Mutualiak berrikuntzarekiko eta abangoardia teknologikoarekiko konpromisoa du, eta Eraldaketa Digitalerako Plan bat garatu du 2021-2025 aldirako, zeina bat baitator erakundearen Plan Estrategikoarekin. Datorren urteetan ezarriko diren ekintzak zuzentzen dira plan horretan, zerbitzu eta prozesuak hobetu ahal izateko teknologia aurreratuen eta automatizazioaren bidez.



Mutualiarentzat eraldaketa digitala funtsezkoa da, etengabe aldatzen ari den ingurunera egokitu behar baitu, eraginkortasun operatiboa optimizatuz eta interesdunek kanal digitalen bidez gero eta gehiago eskatzen dituzten zerbitzuak eskainiz. Eraldaketa horrekin, Mutualiak hobeto asebate ahal izango ditu bezeroen premiak, informazioaren segurtasuna hobetuko du eta goi-mailako erabiltzaile-esperientzia eskainiko du.

Hona hemen 2024an amaitutako proiektu esanguratsuenak, eremuka antolatutak:

INTERES-TALDEAK

- Mutualistentzako poliza digital bat lantzea: Bezero-zerbitzua hobetu da poliza digitalizatuz, papera erabiltzea saihestuz eta bidalketa automatizatuz (sinatzeko eta gordetzeko).
- Absentziak kudeatzeko tresna: Lan-absentziak errazago kudeatzen eta prebenitzen dira, aplikazio baten bidez.
- Web-ingurune prestakuntza-tresna: Prebentzio eta Kudeaketa Aholkularitzak antolatutako ikastaro eta ekitaldien kudeaketa integrala.
- CRM – Interes-taldeak: GKEekin eta talde sozialekin egindako jardueren eta kontaktuen erregistroa.
- Prestazioei buruzko inkestak: Erabiltzaileentzako inkestak modernizatzea.
- Onarpen digitala Pakea klinikan eta Ercilla klinikan, kioskoen bidez: Barra-kodearen edo NANaren irakurgailu baten bidez pazienteek onarpena beren kabuz egiteko aukera ematen du.
- Gehitu izeneko historia klinikoa integratzea, tableta batetik gidatutako ariketen bidez: Urrutiko errehabilitazioko aplikazioetarako konexioa, Gehitu sistemarekin.

INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

- GIBILGETUA tableten bidez kudeatzea: Aktiboen jarraipena barra-kode bidez egiteko aplikazioa.
- Kontingentzia arrunten eraginkortasuna neurtzea: Baliabideen eraginkortasuna neurtzeko eta haiek hobeto kudeatzeko sistematika.

ERAGIKETAK

- Ospitalizazioa: Medikamentuen preskripzioa eta administrazioa hobetu da papera saihestuz.

6. Berrikuntza zerbitzuetan

- Prestakuntzako tresna: Mutualiak antolatutako ikastaro eta ekitaldien kudeaketa integrala.
- RPA Gutun ziurtatuen eta CATA prestazioak jaso izanaren agiriaren bidalketa automatizatzea.

PERTSONAK

- Mutualiaren lorpenak Urtean zeharreko lorpenen bidez Mutualiari buruzko barne-ezagutza sustatzeko joko korporatiboa.
- Henaon mahai librearen erreserbatzeko sistema: Beste lankide batzuen telelanaren ondorioz libre geratu diren mahaiak erreserbatzeko aukera

- ematen die enplegatuei. Erreserbak asteko egun eta ordu espezifikoan arabera egin daitezke, Bilbora etorri behar duten enplegatuek errazago uztar ditzaten lana eta bizitza pertsonala.
- Fakturazio sanitarioko fluxuaren automatizazioa: AA erabiltzea faktura eskaneatuak irakurtzeko eta grabatzeko.
 - ITa kudeatzea goi-geruzetako depresio isolatuak kaltetutako autonomoentzat.
 - Autonomoen kotizazioa erregularizatzeko prestazioei buruz informatzeko protokolo berria.

AZPIEGITURA ETA SEGURTASUNA

- Estraneta – Cookieen kudeaketa: Erabiltzaileek cookieak hautatzeko soluzioa.
- Pazienteek hodeiko irudiak bistaratzeko PIN automatikoa.
- Kanpotik o365-ean sartzeko aukera baldintzatua: Baimendu gabeko sarbideak saihesteko soluzioa.
- Sistemetara sartzeko autentifikazio bikoitza erabiltzea, segurtasun handiagoa bermatzeko.

Eraldaketa Digitaleko Plana: ekintzen egoera-taula




Interes-taldeak

- Gure interes-taldearen artean, kanal digitala bilakatzea gogokoen, bai administrazio-kudeaketarako, bai haien informazioa kontsultatzeko. (28 ekintza).



Informazioaren kudeaketa

- Informazioaren eskuragarritasuna eta sarbidea hobetzea, erabakiak hartzeko tresna izan dadin.



Eragiketak

- Papera ahalik eta gehien murriztea administrazio-kudeaketetan.
- Barne-kudeaketako programak bizkortzea eta automatizatzea.



Pertsonak

- Lankidetzaren sustatzea, efizienteagoak izateko.
- Laneko gailuetan eta gailu pertsonaletan sarbide segurua erraztea.



Azpiegitura eta segurtasuna

- Zibersegurtasuna areagotzea.
- Beharretara egokitutako baliabideak, ekipamendua eta azpiegitura modernoa jartzea.



☒ Ezarrita

☐ Abian

☐ Ezarri gabe

Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea



7. Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

Prestazio bereziak

Lan-istripu bat edo lanbide-gaixotasun bat izan duten eta egoera berezietan edo premia-egoeran dauden langileentzako laguntza ekonomiko edo asistentzial osagarriak. Laguntza horiek Prestazio Berezien Batzordearen bidez kudeatu eta ematen dira.



Prestazio bereziak gizarte-babesa indartzeko sistema bat dira, Gizarte Segurantzak aurreikusitako prestazioetatik harago doana. Ezohiko laguntza-eskaera horiek Mutuialiako Prestazio Berezien Batzordeak kudeatzen ditu. Batzorde horrek, jasotako eskaerak zorrotz eta legez ezarritako irizpideei jarraituz kudeatzeaz gain (abenduaren 7ko 1993/1995 Errege Dekretuaren 67bis artikulua), sentsibilitatea eta konpromisoa erakutsi behar du ahultasun bereziko egoeren aurrean.

2024an, gizarte-laguntzako 636 eskaerari erantzun zaie, guztira 455.149,92 €-ko zenbatekoarekin, eta eskaera-kopurua eta laguntzetara bideratutako zenbatekoa % 27 inguru igo dira bi kasuetan.

Prestazio Ekonomikoen Arloak komunikazio-ahalegin handia egin du laguntza horien berri emateko. Alde batetik, gutunak bidali zaizkie prozesuen batez besteko iraupena gainditzen zuten aldi baterako ezintasuneko egoeran zeuden langile guztiei, eta, bestetik, Eskutik taldearen bidez (lotura-unitate sanitarioko langileek, besteren baliabideetakoek eta gizarte-langileek osatua) arreta pertsonalizatua eman zaie larritasun medikoagatik edo zaurgarritasun sozialagatik premia berezikotzat jotzen ziren kasu guztiei.

Lankidetza eta koordinazio horri esker, orobat osasun-, gizarte- eta administrazio-arloko profesionalen dedikazio bereziari esker, kudeatu ahal izan dira, oso modu berezian gainera, gaixotasun profesionalak eta larritzat edo oso larritzat jotako lan-istripuak, pazienteen tratamendu- eta errekonbuzio-prozesuan eragin dezakeen gizarte-problematika diagnostikatuz eta baloratuz. Guztira 76.946 euroko 467 laguntza-eskaera izapidetu dira, ospitaleratutako pertsonen senitartekoek haiei laguntzeko eta haiek artatzeko izan dituzten gastuak arintzeko, bai eta etxeko 17 laguntza-beharrian ere; are gehiago, 2 laguntza ekonomiko eman dira eguneko oinarrizko jarduerak egiteko aldi baterako ezinduta dauden eta familia-ingurunean baliabiderik ez duten pertsonak zentro soziosanitarioan sartzeko ospitale-altaren ondoren.

7. Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

Ilido beretik, garrantzi handiko sekuelak dituzten pertsonen hobekuntzak eta konponbideak emateko lan egin da, betiere helburu izanda haien ahalik eta autonomia handiena lortzea eta egoera berrira baldintzarik egokienetan egokitzea. Eremu horren barruan sartzen dira baliabide teknikoetara bideratutako 18 laguntza ekonomikoak (ohe egokituak, dutxa-aulkiak, garabi elektrikoak, gurgil-aulki bereziak, batec elektrikoak...), bai eta guk babestutako langileek etxebizitzan eta ibilgailuan egin behar izan dituzten 4 egokitzapenak ere.

Bereziki garrantzitsuak dira ohiko etxebizitzaren hipoteka edo alokairua ordaintzeko emandako 60 laguntzak. Laguntza horiek eman zitzaizkien enplegua galdu duten edo kontingentzia profesionalen ondoriozko epe luzeko baja medikoetan sortutako zaurgarritasun ekonomikoko egoera antzekoan egon

direnei eta baita haien kausadunei ere, kontingentzia profesionalengatik heriotzak gertatu diren kasuetan. Laguntza horien batez besteko zenbatekoa 1.434 euro baino gehiagokoa izan da, eta helburua izan da pertsona horiek diru-sarrera ekonomiko gutxiago izan dituztenean hipoteka-maileguaren edo alokairuaren kuotak ordaindu ahal izatea, eta ekiditea gizarte-bazterketako arrisku-egoerak sortzea. Berrikuntza gisa, 2024an 12 hilabetetik 24ra luzatu da laguntzak estal dezakeen epea, aldi baterako ezintasun prozesuen gehieneko iraupenak kontuan hartuta.

Gainera, izan da babes berezia jaso duen beste kolektibo bat ere, baliaezintasun handia zuten edo ospitaleko alta jaso ondoren eguneroko jarduerak egiteko (norbere higieena, garbiketa, janaria...) langile kualifikatuen laguntza behar izan zuten 17 pertsonak osatua. Helburu

horretarako, 50.056 euro bideratu ziren 2024an.

Gainera, lanposturako ondorio funtzionalak dituen lan-istripu edo gaixotasun profesional baten ondorioz lana galdu duten pertsonen berregokitze profesionala sustatzen eta bultzatzen da. Guztira 8.848 euro bideratu dira kolektibo horren prestakuntza hobetzeko edo gizarteratzea eta laneratzea errazteko lanbide-heziketako ikastaroak diruz laguntzeko.

Azkenik, bereziki zorigaiztokoak diren egoeretan ere esku hartu du Mutuak; besteak beste, lan-istripuen edo gaixotasun profesionalen ondoriozko heriotzetan. Guztira, 48.932,71 euro eman dizkie bizia galdu duten 19 pertsonaren ehorzketa-gastuen kargu egin ziren senideei.

Prestazio Berezien Batzordeak emandako laguntzen kopurua eta zenbatekoa

Esparrua	Laguntza	2023		2024	
		Zk	Zenbateko	Zk	Zenbateko
Errehabilitazioa eta errekupeazioa	Zentro soziosanitarioan sartzea			2	19.198,52 €
	Joan-etorrien gastuak	317	32.453,54 €	467	76.946,36 €
	Protesiak eta laguntza teknikoak	9	20.866,62 €	18	45.452,66 €
	Arautu gabeko terapiak	50	54.807,63 €	45	55.700,62 €
Laneko birorientazioa	Prestakuntza-ikastaroak eta bekak	4	12.866,58 €	4	8.848,28 €
Eguneroko bizitzako ohiko jardueretarako bitartekoak egokitzea	Oztopo arkitektonikoak ezabatzea	3	19.157,56 €	2	34.966,86 €
	Ibilgailuak egokitzea	2	6.431,89 €	2	29.005,68 €
	Etxeko laguntza (aldi baterako ezintasuna eta baliaezintasun handia)	15	42.323,43 €	17	50.056,21 €
Beste prestazio batzuk	Heriotzagatiko sorospenenaren osagarria	19	47.600,54 €	19	48.932,71 €
	Etxebizitza/hipoteka mantentzeko laguntza	37	51.675,20 €	21	31.439,05 €
	Etxebizitza edukitzeko edo alokairurako laguntza	43	69.844,77 €	39	54.602,97 €
Guztira		499	358.027,76 €	636	455.149,92 €

7. Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

Eraikinen eta instalazioak

Mutualiaren lehentasun estrategikoa da zentroak seguruak, irisgarriak, jasangarriak eta erosoak izan daitezen bermatzea.

Eraikinen Kudeaketaren arloan, instalazio guztiek printzipio hauek bete ditzaten bermatzeko lan egiten da: jasangarritasuna, eraginkortasun energetikoa eta erabiltzaileen esperientzia positiboa. Konpromiso hori gauzatzeko, esku-hartze planifikatuak egiten dira, guneak zaintzeko, berritzeko, egokitzeko eta humanizatzeke.

2024ko ekitaldian, azpiegiturak hobetzeko hainbat esku-hartze egin dira, eta honako alderdi hauek lehenetsi dira: eraginkortasun energetikoa, irisgarritasuna, modernizazio teknologikoa eta ingurumen-konforta. Hala, besteak beste, Henaoko egoitzan bosgarren solairuko isolamendu termikoa hobetu da, Erandioko zentroan eskulasa klimatizatu bat sortu da eta Bergarako eta Beasaingo zentroetan UBS ekoizteko metagailu elektrikoak ordeztatu dira. Eraginkortasun energetikoari dagokionez, Ercilla klinikako zenbait argi-pizketa automatizatu dira eta Pakea klinikako zenbait gunetako argiak LED argiekin ordeztu dira.

Ekipamendu handiak modernizatzeari dagokionez, Ercilla klinikako erradiologiako ekipoa (x izpiak) berritu da.

IRISGARritasun unibertsala

Mutualiak aurrerapausoak eman ditu irisgarritasun unibertsalarekin hartutako konpromisoan, ezinbesteko eskubidea eta baldintza baita osasun-arreta inklusiboa izan dadin.

2024an, ekintza hauek egin dira

irisgarritasuna hobetzeko:

- Asistentzia-zentro hauetan seinaleak margotu eta aldatu dira: Erandio, Irun, Beasain, Iurreta, Laudio, Zamudio, Madril (Francisco Gervás) eta San Rafael ospitaleko kontsultategia. Gainera, Pakea klinikako Zuzendaritza arloa, sukaldeko sabaia eta aparkalekua pintatu dira, MUP barne.
- Zenbait zentroetan, makuluak jartzeko euskarriak jarri dira mostradoreetan.

Ekintza horiek guztiek hobetu egiten dituzte instalazioak, eta, gainera, lagundu egiten dute Mutualiako zentroen irisgarritasun-ziurtagiria berritzeko bidean.

GUNEAK HUMANIZATZEA

Eraikinen Kudeaketa Saila ere Humanizazio Batzordeko kide aktiboa da. Batzordea lantalde iraunkorra da, eta haren helburu nagusia da osasun-laguntza humanoagoa eta pertsonen ardatzua izan dadin laguntzen duten alderdi guztiak sustatzea, bultzatzea, erraztea eta hobetzea. Batzordeak zeharka lan egiten du erakundearen, eta estrategiak lantzen ditu dagoeneko ezarritako ekintzak finkatzeko eta pazienteen eta haien familien premia emozional, fisiko eta sozialei erantzun egokiak ematen berriak identifikatzeko.

Eraikinen Kudeaketa Sailak esparru horretan parte hartzeak agerian uzten du Mutualiak arreta integralarekin duen konpromisoa. Izan ere, ingurune

fisikoa ere erabiltzaileen esperientziako funtsezko elementutzat hartzen da. Ongizate-, hurbiltasun- eta duintasun-sentsazioak sortu nahi dira, eta, horretarako, asistentzia-guneak hobetu eta ingurune atsegina eta funtzionalak sortu nahi dira, besteak beste.

Ematen dugun arretari balioa gehitzeko konpromiso irmo eta aktiboa dugu, eta, beraz, etengabeko hobekuntzan aurrera egiten jarraitzeko ibilbide-orri argi bat dugu. Azken helburua da Mutualia erreferente gisa finkatzea humanizazioaren esparruan, eta, horretarako, batetik, sustatzea antolaketa-kultura bat pertsona jarriko duena sistemaren ardatzean, eta ez patologia, eta, bestetik, ziurtatzea erabiltzaileek sentitzen dutela aintzat hartzen eta baloratzen dituztela eta modu berezi eta pertsonalean tratatzen dituztela.

KARBONO-AZTARNA ETA DESKARBONIZAZIOA

2024an, aurreko ekitaldiko eraikinen karbono-aztarna kalkulatu da, eta nazioarteko araudiak zehaztutako hiru irismen nagusiak landu dira:

- 1 irismena: Ekipo termikoetako erregai fosilen kontsumotik eratorritako zuzeneko emisioak.
- 2 irismena: Argindarraren kontsumotik eratorritako zeharkako emisioak.
- 3 irismena: Hornitzaileekin, mugikortasunarekin, hondakinekin eta zeharkako beste prozesu batzuekin zerikusia duten emisioak (gaur egun lantzen ari gara).

Mutualiak ingurumena zaintzeko hartutako konpromisoaren barruan, Eraikinen Deskarbonizatzeko Plan bat idatzi da. Planaren asmoa da pixkanaka klima-neutraltasunera heltzea, eraginkortasun energetikoa hobetzeko jardueren bitartez.

Konpromiso horren emaitza bat bildu dugu, Deskarbonizazioaren aldeko Europako Fundazioak (ECO2F) "Deskarbonizazioarekin konprometitutako erakundea – ECO2 AGREED 2030" zigilu europarra eman baitio Mutualiari. Zigilu horrek klima-alaketaren aurka borrokatzeko eta berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioa eraginkorki murrizteko erakundeek egiten duten ahalegina aintzatesten du.

Asistentziaren kalitatea eta pazienteen segurtasuna

Asistentziaren kalitatea neurtzen duten adierazleak oso maila egokietan daude, eta, kasu askotan, aurreko ekitaldiko datuak hobetu dituzte, nahiz eta osasun-langile gutxi izan eta horrek mutua laguntzaileetako plantillei ere eragin.

Adierazle garrantzitsu bat kontsultarako 20 minutu baino gehiago itxaroten duten pazienteen ehunekoa da. Bilakaera ona izan du eta gaur egun % 5,53 da.

Kirurgia anbulatorioko prozesuek behera egin dute pixka bat, baina egonkortzeko joera dute.

8,8
EBAKUNTZA EGITEKO ITXAROTE-ZERRENDAKO EGUNAK

11' 15"
LARRIALDIETAN EDO LEHEN KONSULTAN ARRETA JASOTZEKO ITXARONALDIA (MINUTUTAN)

7' 4"
ONDORENGO KONSULTETAN ARRETA JASOTZEKO ITXARONALDIA (MINUTUTAN)

Osasun laguntzaren kalitatearen adierazleak

Adierazlea	2023	2024
Ebakuntza egiteko itxarote-zerrendako egunak	9,02	8,80
Pazienteek ospitaleratuta egiten duten batez besteko denbora (egunetan)	2,56	2,35
Antolakuntzaren ondorioz atzeratutako ebakuntzen tasa	%1,36	%0,95
Errehabilitazioko kontsultarako atzerapen-egunak	2,34	2,59
Fisioterapiarako atzerapen-egunak	1,68	1,85
Baja-prozesuen batez besteko iraupena, Fisioterapian	49,39	49,67
Kontsulta baterako 20 minututik gora itxaroten duten pazienteen ehunekoa	%6,71	%5,53
Kirurgia-prozesuen anbulatorizazioen %	%58,36	%55,35
Gaixo ibiltarien %	%61,28	%58,96
Erresonantzia magnetikoa eta txostena egiteko itxaronaldia (egunetan)	3,68	3,28
Ekografia eta txostena egiteko itxaronaldia (egunetan)	7,81	8,4
Proba biomekanikoa eta txostena egiteko itxaronaldia (egunetan)	10,87	13,78
Larrialdietan edo lehen kontsultan arreta jasotzeko itxaronaldia (minututan)	11' 45"	11' 15"
Ondorengo kontsultetan arreta jasotzeko itxaronaldia (minututan)	7' 47"	7' 4"

7. Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

Pazienteen segurtasunaren adierazleek oso emaitza onak izaten jarraitzen dute, bilakaera positibo jarraitua izan baitute. Hobekuntza hori osasun-arloko batzordeen konpromisoaren eta batzorde horietan osasuna kudeatzeko egiten den lanaren emaitza zuzena da.

Pazienteen segurtasuna kudeatzea ez da bakarrik ezarritako arau, protokolo eta estandarrak zorrotz betetzea (adibidez, UNE 179003 eta 179006 arauetan jasotakoak); erakunde osoan segurtasunaren kultura sustatu ere egin behar da.

2024ko adierazleetako gertakari garrantzitsu bat da ez dela segurtasuneko gorabeherarik jaso jakinarazpen-sistemaren bidez; horrek aurreko ekitaldiko datua hobetu du.

%0

EGINDAKO CHECKLIST
KIRURGIKOEN EHUNEKOA

%0,16

BERRIRO OSPITALERATU
BEHARREKO KASUEN TASA

0

JAKINARAZPEN SISTEMAREN BIDEZ
JAKINARAZITAKO SEGURTASUN-
GORABEHEREN KOPURUA

Pazienteen segurtasunaren adierazleak

Adierazlea	2023	2024
Berriro ebakuntza egin beharreko kasuen tasa	%4,58	%4,60
Berriro ospitaleratu beharreko kasuen tasa	%0,68	%0,16
Transfusioen ondoriozko erreakzioen tasa	%99,70	%100,00
Alta ematean eskura emandako alta-txostenen ehunekoa	%0	%0
PSari buruzko gida berrien edo berrituen kopurua	%100	%99,84
Presioagatiko ultzeren tasa, ospitaleratutako pazienteetan	4	0
Erorikoen tasa, ospitaleratutako pazienteetan	%0,00	%0,00
Gernubideen infekzioen tasa, ospitaleratutako pazienteetan	%0,00	%0,00
Zainetako kateterragatiko infekzioen tasa, ospitaleratutako pazienteetan	%0,00	%0,00
Zauri kirurgikoen infekzioen tasa	%0,00	%0,00
Asistentzia sanitario anbulatorioarekin lotutako infekzioen tasa	%0,06	%0,00
Osasun-asistentziarekin loturiko infekzioen tasa	%0,00	%0,00
Egindako Checklist kirurgikoen ehunekoa	%0,00	%0,00
Dauden baimen informatuen ehunekoa	%100	%100
Behar bezala betetako baimen informatuen tasa	%98,40	%99,6
Jakinarazpen Sistemaren bidez jakinarazitako segurtasun-gorabeheren kopurua	25	--

7. Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

Bezeroen Defentsa Erakundea

Bezeroen defendatzailearen figura 2019an sortu zen, eta haren helburua da Mutuialiaren prestazio ekonomikoak edo osasun-zerbitzuak jaso dituzten enpresei eta haietako langileei zerbitzu ona ematen zaiela zaintzea, haiei emandako zerbitzuen karta betez. Haren zereginetako bat da eraginpeko arloetako arduradunek jasotzen dituzten kanpoko kexen, erreklamazioen eta eskertzen esleipena kudeatzea.

Mutualian jasotzen ditugun kexa eta erreklamazio guztiei idatziz erantzuten diegu, eta 2024an erantzuteko batez besteko epea 8,71 egunekoa izan zen. 2024an, 481 kexa jaso genituen, eta, kontuan hartuta 514.468 zerbitzu-prestazio egin zirela (osasun-arreta, prestazio ekonomikoen eta prestazio berezien eskaerak eta prebentzio-jarduerak), jasotako kexen portzentajea % 0,09koa da (hau da, emandako 10.000 zerbitzuko 9,3 kexa).

Bestalde, 2024an, Bezeroaren Babesak bezeroen 112 esker on jaso ditu. Horiei gehituz gero osasun-zentroetako inkesten bidez jasotakoak, guztira 1.145 dira.

9,3
KEXAK, EMANDAKO 10.000 ZERBITZUKO

8,71
KEXA ETA ERREKLAMAZIOEI IDATZIZ ERANTZUTEKO EGUNAK, BATEZ BESTE




Kexa eta erreklamazioen arrazoiak

Adierazlea	2023	2024	▲▼ %
Kontingentziaren kalifikazioarekiko desadostasuna	106	118	%11,32
Osasun-arreta desegokia	83	78	%-6,02
Alta ematearekiko desadostasuna	63	74	%17,46
Jasotako tratuarekiko desadostasuna	63	54	%-14,29
Beste batzuk	37	39	%5,41
Osasun-arreta. Tratamenduarekiko desadostasuna	27	37	%37,04
Garraioa	18	32	%77,78
Asistencia sanitaria. Informe médico	21	13	%-38,10
Osasun-arreta. Emandako arreta atzeratzea	8	9	%12,50
Prestazio ekonomikoak	15	9	%-40,00
Osasun-arreta. Diagnostikoa	11	6	%-45,45
Haurdunaldiko eta edoskitze naturaleko arriskua (HEA)	1	5	%400,00
Instalazioak	2	3	%50,00
LAJE	2	1	%-50,00
Ondarezkoak, kalte-galerengatik	2	3	%50,00
Guztira	459	481	%4,79

7. Osasunaren zaintza, segurtasuna eta babes ekonomikoa humanizatzea

Gogobetetze-indizeak

Azken 4 urteetako asebetetze-inkesta guztien emaitzak




Mutualiarekin harremana duten pertsonen asebetetze maila neurtzeko modurik zorrotzena kolektibo bakoitzari bideratutako inkestak era sistematikoan egitea da, jomugatzat hartuta Mutualiaren osasun-zerbitzuetan artatu dituztenak, prestazio ekonomikoak jaso dituztenak edo zerbitzuen kudeaketan bitartekari direnak, besteak beste aholkularitza laguntzaileak.


Inkesta horiek bi urtean behin egin ohi dira, eta enpresa espezializatu batek egiten ditu, Osasun Arloarekiko asebetetzekoa izan ezik, zeina era jarraituan egiten den.

Gomendio Garbiaren Indizea (NPS) 2024 eta bilakaera

Mutualiak erabiltzen dituen adierazleetan Gomendio Garbiaren Indizea (GGI) ere sartzen da. Indize horren bidez, puntuazio erreala kalkulatzeko, inkestatuen artean aurkakoak diren eta inoiz gomendatuko ez lituzketen pertsonen ehunekoa (0tik 6ra bitarteko puntuazioak) kendu egiten da, sustatzaile diren eta guztiz ziur gomendatuko luketen ehunekotik (9ko eta 10eko puntuazioak). Pertsona pasiboak (7ko eta 8ko puntuazioak), asebetetze soilekoak, ez dira erabiltzen azken kalkulua egiteko. Horrela, -%100etik %100era bitarteko puntuazioa eragiten da. Emaitza horretan, kontuan hartuta dago inkestatutako pertsona guztiek Mutualian jasotako kontingentzia profesionalako osasun-laguntzari buruz duten iritzia.



NPSren bilakaera



GRI Global Reporting Initiative



8. GRI Global Reporting Initiative

GRI: 2021eko oinarriak

OROKORRA					
GRI 2: 2021EKO EDUKI OROKORRAK					
GRI	Deskribapena	Or.	Informazioa 2024	MIP	GJH
2-1	Antolaketari buruzko xehetasunak	20 22	Mutualia, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitatea, 2. zk. Mirakontxa pasealekua, 7 20007 Donostia (Gipuzkoa) Jarduera-eremua, Espainia.	6,7	
2-2	Jasangarritasun-txostenen aurkezpenean sartutako erakundeak	20	Erakunde bat baino ez da. Mutualia, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutua		
2-3	Txostenaren xede-aldia, maiztasuna eta harremanetarako puntua	2 10	2024ko memoria, 2025ean argitaratua (uztailak 18) Urtero egiten da. dircom@mutualia.es		
2-4	Informazioa eguneratzea		Ez da eguneratu informazioa, aurreko txostenei dagokienez		
2-5	Kanpo-egiaztapena	10 11	Bi urtean behin egiten da. 2023ko memoriarako egin zen azken kanpo-egiaztapena, egiaztapen-maila zorrotzarekin. Goi-zuzendaritzako kargudunek kanpo-ebaluazioko prozesuan parte hartzen dute. Lizitazio publikoko prozesuaren enpresa esleipendunak egiten du egiaztapena, eta ez dago prozesu horrez bestelako loturarik.		
2-6	Jarduerak, balio-katea eta bestelako merkataritza-harremanak	20 41	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, zeinak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak. Jarduera-eremua, Espainia		
2-7	Langileak	52	% 100 norberaren konturako langileak, juridikoki aitortuak. Urtean zehar ez da izan aldaketa nabarmenik pertsona-kopuruan	6	8 y 10
2-8	Enplegatuak ez diren langileak		81. Hauek dira ohikoenak: Garbiketa, mantentze-lan orokorrak, informatika, atezaintza, espezialista sanitarioak; batez ere, enpresa azpikontratatuak. Ez da izan gorabehera esanguratsurik aurreko ekitaldiaren aldean (enplegatu gabeko 79 langile 2023an)	6	
2-9	Gobernantza-egitura eta osaera	15	Zuzendaritza Batzordea: % 45 emakumezkoak Batzorde Betearazlea: % 47 emakumezkoak		
2-10	Gobernu-organo gorena izendatzea eta hautatzea	15	Zuzendaritza Batzordearen antolaketa eta funtzionamendurako barne-erregelamendua		5 y 16
2-11	Gobernu-organo goreneko presidentea		Presidenteak ez du kargu betearazlerik.		
2-12	Gobernu-organo gorenaren eginkizuna inpaktuen kudeaketa ikuskatzeari loturik	32	Zuzendaritza Batzordearen antolaketa eta funtzionamendurako barne-erregelamenduan ezarritako funtzioak		
2-13	Inpaktuak kudeatzeko erantzukizuna eskuordetzea		Zuzendari kudeatzaileak zuzenean eta hilerio ematen dio Batzorde Betearazleari erakunderako garrantzitsuak diren gai guztien berri, eta Zuzendaritza Batzordeak hiru hilean behin ebaluatzen ditu gai garrantzitsuak. Mutualiaren helburu orokorrak lortzeko beharrezkotzat jotzen bada, beharrezko irizpideak eta jarraibideak eman ahal izango zaizkio zuzendari kudeatzaileari.		
2-14	Gobernu-organo gorenaren eginkizuna jasangarritasunari buruzko txostenak aurkeztea		Zuzendaritza Batzordeak, mutualitatearen zuzeneko gobernu gisa jarduten duen organoa den aldetik, legez aitortuta dauka erakundearen martxa onerako beharrezkotzat jotzen dituen ohiko eta ezohiko neurri guztiak hartzeko ahal. Horretan oinarrituta ezartzen ditu erakundearen xedea eta politikak, garapen jasangarriarekin loturiko helburuak, eta , orobat, misioa, ikuspegia eta balioak.		

8. GRI Global Reporting Initiative

2-15	Interes-gatazkak		Zuzendaritza Batzordeko kideei eragiten dieten bateraezintasunak eta debekuak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean daude araututa, zeinaren testu bategina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen. Organo horretako kideek eta mutualitateko zuzendari kudeatzaileak adierazpen pertsonal bat sinatzen dute, erregelamenduak eskatzen duen bezala, eta han adierazten dute ez dutela bateraezintasunik eta badutela kargua betetzeko debekuen berri.		16
2-16	Kezka kritikoak komunikatzea		Zuzendari kudeatzaileak erakundearentzat garrantzitsuak diren gai guztien berri emango die Zuzendaritza Batzordeko kideei. 2024an ez zaio kezkarik planteatu Zuzendaritza Batzordeari ohiko gai-zerrendetatik kanpo.		16
2-17	Gobernu-organo gorenaren ezagutza kolektiboak		Zuzendaritza Batzordearen antolaketa eta funtzionamendurako barne-erregelamendua. Etika Batzordearen bidez, batzordeen lana eta ezagutza Zuzendaritza Batzordeari helarazten zaizkio.		
2-18	Gobernu-organo gorenaren jarduna ebaluatzea		Zuzendaritza Batzordearen betebeharrak eta funtzioen artean, zeinak legez eta araudiaren arabera ezartzen baitira, ez da jasotzen Zuzendaritza Batzordearen jardura ebaluatzea.		
2-19	Ordainsari-politikak		35/2014 Legea 8/2015 ELDa Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak erabakitzen ditu Zuzendaritza Batzordeko kideen ordainsariekin zerikusia duten gai guztiak.		
2-20	Ordainsariak zehazteko prozesua		35/2014 Legea 8/2015 ELDa Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak erabakitzen ditu Zuzendaritza Batzordeko kideen ordainsariekin zerikusia duten gai guztiak. Zuzendari kudeatzailearen eta goi-zuzendaritzako eginkizunak betetzen dituzten langileen ordainsariak gehieneko muga batzuei lotuta daude; hain zuzen ere, enpresa-sektore publikoko eta beste erakunde batzuetako arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-araubidea arautzen duen martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuak ezartzen ditu muga horiek talde bakoitzerako.		
2-21	Urteko guztizko konpentsazio-ratioa	53	Mutualiako batez besteko soldataren aldean, gehieneko soldataren ratioa 3,30 da (legez araututako parte aldakorra barne hartuz gero, 4,12 da). Gehieneko soldataren ratioa gutxieneko soldataren aldean 4,89 da Mutualiako langileen artean (legez araututako parte aldakorra barne hartuz gero, 6,11 da).		
2-22	Garapen jasangarriaren estrategiari buruzko adierazpena	9 26	Gutuna Nazio Batuei		
2-23	Konpromisoak eta politikak		https://corporativo.mutualia.eus/etica-y-buen-gobierno/ https://transparencia.mutualia.eus/es/documentacion/ Hornitzaileek Jokabide-kodea betetzea. Barrurako, barne-atari korporatiboan argitaratzen dira.		
2-24	Konpromisoak eta politikak txertatzea	30	Arau, prozedura eta protokoloekin. Barne-komunikazioaren eta -prestakuntzaren bidez.	10	
2-25	Inpaktu negatiboak konpontzeko prozesuak	83			
2-26	Aholkularitza eskatzeko eta kezka planteatzeko mekanismoak	34	Komunikazio- eta salaketa-kanala (informazio-kanala), interes-talde guztien eskura. Informazio-kanala		
2-27	Legeria eta araudia betetzea		2023an, ez da izan ingurumen-legeriarekin loturiko zehapenik, aplikatu beharreko legeriaren arabera oso astuntzat har daitekeenik, ez eta arlo sozial eta ekonomikoan ere; ez dago halako epai irmorik.		
2-28	Elkarteetako afiliazioak		Laneko Istripuen Mutualitateen Espainiako Elkarte (AMAT). Rama korporazioa. Euskalit.	1	17
2-29	Erakundeak interes-taldeen parte-hartzeari buruz duen ikuspuntua.	27 28 29		3	8
2-30	Negoiazio kolektiboko hitzarmenak		Langileen % 100 daude estalita negoziazio kolektiboko akordioetan, Zuzendaritza Komiteko kideak izan ezik. Zuzendaritza Komiteko kideek goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen kontratua dute, zeinek jarraitzen baitiete kontratu-mota horren berariazko araudiari.		

8. GRI Global Reporting Initiative

GRI 3: ALDERDI MATERIALAK (2021)						
GRI	Deskribapena	Or.	Informazioa	2024	MIP	GJH
3-1	Gai materialak zehazteko prozesua	27 29				
3-2	Gai materialen zerrenda	29				

DIMENTSIO EKONOMIKOA							
GRI	Deskribapena	Or.	Informazioa	2024	HT	MIP	GJH
3-3	Gai materialen kudeaketa		Ez dago inpaktu negatiborik gai materialen kudeaketan				

GRI 201: JARDUN EKONOMIKOA (2016ko BERTSIOA)						
201-1	Sortutako eta banatutako balio ekonomiko zuzena	98		•		2, 5, 8, 10,16
201-2	Klima-aldaketaren ondoriozko finantza-inplikazioak eta beste arrisku eta aukera batzuk		Mutualiak garatzen duen jarduera-mota kontuan izanik, ez da aintzat hartu klima-aldaketari loturiko jarduerak egitea.		7,10	13
201-3	Zehaztutako irabazi-planaren eta beste erretiro-plan batzuen betebeharrak		Ez dago erretiro-planik. Mutualiak borondatezko ekarpenei buruzko kanpo-plan bat dauka hitzarmen kolektiboan definituta. 2024an, 509 lagun zeuden atxikita. Mutualiak langilearen oinarritzko soldataren % 1 edo % 2,3 arteko ekarpena egiten du (lurralde bakoitzeko enpresa-hitzarmenaren arabera), langile horren lan-kontratua mugagabetzat jotzen denetik aurrera.	•		
201-4	Gobernutik jasotako finantza-laguntza					

GRI 202: PRESENTZIA MERKATUAN (2016ko BERTSIOA)							
202-1	Hasierako kategoria estandarreko soldataren ratioa, sexuaren arabera, tokiko gutxieneko soldata kontuan hartuta	% 10 handiagoa lehen urtean, % 20 handiagoa bigarren urtean eta % 30 handiagoa hirugarren urtean (Mutualiaren oinarritzko soldata). Ez dago sexuaren araberrako alderik.			•	6	1, 5, 8,10
202-2	Toki-komunitatean kontratatutako goi-exekutiboen proportzioa	% 100				6	6, 8

GRI 203: ZEHARKAKO INPAKTU EKONOMIKOAK (2016ko bertsioa)						
203-1	Inbertsioak azpiegiturretan eta lagundutako zerbitzuetan.	80			•	68
203-2	Zeharkako inpaktu ekonomiko nabarmenak.	47			•	

GRI 204: HORNIDURA-PRAKTIKAK (2016ko bertsioa)					
--	--	--	--	--	--

204-1	Tokiko hornitzaileetan egindako gastuaren proportzioa	41	% 73,19				
-------	---	----	---------	--	--	--	--

GRI 205: USTELKERIAREN AURKAKO BORROKA (2016ko bertsioa)				
205-1	Ustelkeriarekin lotutako arriskuetaarako ebaluatutako eragiketak	Ekitaldian zehar egiten duen jarduera-mota kontuan izanik, Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren zaintzapean dago.	•	10

8. GRI Global Reporting Initiative

205-2	Ustelkeriaren aurkako politika eta prozedurei buruzko komunikazioa eta prestakuntza	34		•	10	
205-3	Baieztatutako ustelkeria-kasuak eta hartutako neurriak		Ez da detektatu		10	
GRI 206: LEHIA DESLEIALA (2016ko bertsioa)						
206-1	Lehia desleialarekin, monopolio-praktikekin eta lehia askearen aurkako jardunbideekin lotutako ekintza juridikoak		MarGizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateen arau-esparruak jarduera kontrolatuko eremua ezartzen du		10	16
GRI 207: FISKALITATEA (2019ko bertsioa)						
207-1	Ikuspegi fiskala		Mutualitateek zerga-salbuespena dute, hala baitago ezarrita Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 65. artikuluan Gizarte Segurantzari laguntza ematen dieten erakunde kudeatzaileentzat.		10	
207-2	Gobernantza fiskala, arriskuen kontrola eta kudeaketa		Gizarte Segurantzaren Kontu Hartzailletza Nagusiak Gizarte Segurantzaren Sistemaren Finantza Kontroleko Zuzendariordetza Nagusiaren bitartez ikuskatzen ditu Mutualiaren urteko kontuak —atxikita dauzkan Gizarte Segurantzaren ondarea kudeatzeari dagokionez—, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorraren 143. eta 168. artikuluek esleitzen dizkioten eskumenak erabiliz eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 98.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.	•	10	
